



ENPLEGUAREN PERSPEKTIBA SEKTORIALAK EUSKAL EKONOMIAN

TXOSTENA

2015eko abendua



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: IKEI research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-941393-6-9

1.	SARRERA	10
2.	JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGU DINAMIKAK EAE-N: KRISIAREN INPAKTUA.....	12
2.1.	Industriaren uzkurdura eta zerbitzuen hazkundera	14
2.2.	Krisiaren inpaktu negatibo gogorra EAEko enpleguan.....	18
2.3.	Enpleguaren bilakaera sektorial desberdina	24
2.4.	Aldaketak enpleguaren ezaugarrietan.....	36
3.	PRESTAKUNTZA ETA KUALIFIKAZIOEN HOBEKUNTZA, ENPLEGU IRAUNKORRERAKO OINARRI	48
3.1.	Euskal biztanleriaren prestakuntza-maila handiak	50
3.2.	Biztanleria okupatu gero eta kualifikatuagoa	52
3.3.	Alde handiak kualifikazioetan sektoreen arabera	55
3.4.	Lanbide Heziketaren hedapena.....	57
3.5.	Unibertsitate-hezkuntza aldatzen ari da	67
3.6.	Etengabeko Prestakuntzaren erronka	75
4.	JARDUERA EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN EPE ERTAIN ETA LUZERAKO PERSPEKTIBAK	79
4.1.	Gogoetaren esparrua: ekonomiaren eta enpleguaren bilakaera baldintzatzen duten faktoreak	80
4.2.	Europar eta Espainiar enplegua sortzeko perspektibak.....	82
4.2.1.	Biztanleria aktiboaren bilakaerari buruzko perspektibak	82
4.2.2.	Enplegu-aukeren kuantifikazioa.....	83
4.2.3.	Sektoreen araberrako enpleguaren bilakaerari buruzko perspektibak.....	84
4.2.4.	Enpleguaren bilakaera-perspektibak kualifikazio-mailen eta sektoreen arabera	90
4.2.5.	Lanbidearen araberrako enpleguaren bilakaerari buruzko perspektibak	94
4.3.	EAEen enplegua sortzeko perspektibak	96
4.3.1.	Lan egiteko adina duen biztanleriaren bilakaera.....	96
4.3.2.	Enplegu-aukeren kuantifikazioa.....	100
4.3.3.	Hurrengo urteetan langileen erretiroaren ondorioz hutsik geratuko diren lanpostuen ezaugarriak.....	102
4.3.4.	Enplegu-aukerak lanbide-arloaren eta sektorearen arabera.....	106
4.3.5.	Lanbide-arlo bakoitzean enplegua sortzeko perspektiben eta EAEko Lanbide Heziketako ikasleen duela gutxiko bilakaeraren arteko kontrastea	110
4.4.	EAEko sektore estrategikoak eta hazteko ahalmena dutenak	112
4.5.	Enpleguaren eta enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreen bilakaera zehaztuko duten joerak	117
4.5.1.	Enpleguari eta prestakuntzari buruzko joera orokorrak	117
4.5.2.	Europar enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreen bilakabidearen bereizgarri izango diren ezaugarriak	120
5.	LABURPENA ETA ONDORIOAK	136
5.1.	Laburpena	137
5.1.1.	Jarduera ekonomikoa eta enplegu dinamikak EAEen: krisiaren inpaktua	137
5.1.2.	Prestakuntza eta kualifikazioen hobekuntza, enplegu iraunkorrerako oinarri.....	138
5.1.3.	Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren epe ertain eta luzerako perspektibak	139
5.2.	ONDORIOAK.....	142
Eranskina.	BIBLIOGRAFIA	149

Taulen aurkibidea

2.1. taula	Industriaren jarduera ekonomikoaren internalizazio-maila (BEG/fakturazioa, %-tan) EAEn, Espainian eta EB-28n.....	15
2.2. taula	BEGaren bilakaera jarduera-adarren arabera EAEn (2008-2013)	16
2.3. taula	Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren adierazle nagusien bilakaera EAEn	19
2.4. taula	Emakumezkoen eta gizonezkoen jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren adierazle nagusien bilakaera EAEn (2002-2014)	20
2.5. taula	Biztanleria okupatuaren bilakaera adin-taldeen arabera EAEn (2002-2014)	22
2.6. taula	Biztanleria okupatuaren bilakaera jarduera-sektorearen arabera EAEn (2008-2014)	26
2.7. taula	Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2008-2014).....	32
2.8. taula	Establezimenduen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2009-2014).....	33
2.9. taula	Establezimenduen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2009-2014).....	34
2.10. taula	EAEko biztanleria okupatuaren lanbide-egoeraren bilakaera.....	36
2.11. taula	EAEko sektore publikoko eta sektore pribatuko soldatiko biztanleriaren bilakaera	38
2.12. taula	EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera kontratu motaren eta lanaldi motaren arabera (2002-2014).....	39
2.13. taula	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) jakinarazitako EAEko kontratuen bilakaera kontratuaren iraupenaren arabera (2002-2014)	44
2.14. taula	16-64 urteko biztanleria okupatuaren bilakaera okupazioaren arabera (2007-2013)	47
3.1. taula	EAEko biztanleriaren eskolatzeko-maila adinaren, generoaren eta jarduerarekiko erlazioaren arabera (2013).....	53
3.2. taula	LHko promozioek izan dituzten lanbideen bilakaera (2003-2012)	63
3.3. taula	LHko ikasleek lana aurkitu duten lanbide-taldeen pisua lanbide-arloen arabera (%) (2004-2012)	66
3.4. taula	Matrikulatutako ikasleen banaketa jakintza-adarraren arabera (2013-2014)	68
3.5. taula	EAEko unibertsitate-hezkuntzaren adierazle nagusien joerak jakintza-adarraren arabera (1)	71
3.6. taula	Titulazio nagusiak 1. eta 2. graduko ikasle bolumenaren eta jakintza-alorraren arabera (2013/2014 ikasturtea)	72
3.7. taula	EAEko unibertsitate-titulazio berriak jakintza-alorraren arabera	72
3.8. taula	Unibertsitate-biztanleriaren enplegu bideratuaren bilakaera (2002-2010eko ikasleak)	75
3.9. taula	Etengabeko prestakuntzan parte hartzen duen 25-64 urteko biztanleriaren bilakaera EBko herrialdeen arabera (2003-2013).....	77
4.1. taula	Enplegu-aukerak eskari motaren arabera. EB eta Espainia (2013-2025)	84
4.2. taula	Espainiako enplegu sektorialaren egituraren bilakaera (2000, 2015, 2025).....	87
4.3. taula	Europar hurrengo hamarkadan hazteko potentzial handiena duten sektoreak	89
4.4. taula	Sektoreetan eragina izan dezaketen arrisku motak	90
4.5. taula	EAEko lan-merkatuaren aldagai nagusien 2014-2024 aldiko bilakaera.....	101
4.6. taula	EAEko 2014-2024 aldiko enplegu-aukeren zenbatespena.....	101
4.7. taula	Biztanleria okupatu osoaren eta 55 urtetik gorako biztanleria okupatuaren banaketa lanbidearen arabera (EAE, 2014).....	103
4.8. taula	EAEko langile kualifikatu gabe gutzien eta 55 urtetik gorakoen kolektiboaren proportzioa jarduera-adarraren arabera (2014).....	106
4.9. taula	EAEko lanbide-heziketako tituludunei enplegua eman dien jarduera-sektorea lanbide-arloaren arabera. 2013ko promozioa	109
4.10. taula	Espainian erdi- eta goi-mailetan enplegu-aukeren itxaropen onenak dituzten azpisektoreak	109
4.11. taula	Espainian behe-mailetan enplegu-aukeren itxaropen onenak dituzten azpisektoreak	110
4.12. taula	EAEn hurrengo urteetan enplegu garbia sortzeko perspektiben eta ikasle kopuruaren iragan hurbileko bilakaeraren arteko kontrastea lanbide-arloaren arabera.....	111

4.13. taula	Enpleguari eta garapen ekonomikoari eta lehiakortasunari lotutako estrategia eta gobernu-plan nagusiak	112
4.14. taula	Sektore esportatzaileen intentsitate teknologikoaren / jakintza intentsiboaren xehetasuna eta EAEko 2012ko BEGaren gaineko ehunekoa	113
4.15. taula	Barne-eskariko sektoreen jakintza intentsiboaren xehetasuna eta EAEko 2012ko BEGaren gaineko ehunekoa	114
4.16. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: manufaktura aurreratua	127
4.17. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: automobilgintza eta ibilgailu garbiak	129
4.18. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: energia berriztagarriak	130
4.19. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: zerbitzu profesionalak eta enpresentzakoak	131
4.20. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: osasuna eta gizarte-zerbitzuak	132
4.21. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: txikizkako merkataritza eta logistika	134
4.22. taula	Enpleguko eta kompetentzietako inplikazioak: sektore sortzailea eta digitala	135

Grafikoen aurkibidea

2.1. grafikoa	Balio erantsi gordinaren (BEG) osaeraren bilakaera EAEn, jarduera-sektoreen arabera (%) (2008-2013).....	14
2.2. grafikoa	BEGaren osaera jarduera-sektoreen arabera (%) EAEn, Espainian eta Europan (2013)	15
2.3. grafikoa	Manufaktura-sektorearen BEGaren bilakaera (guztizkoaren gaineko %) EAEn, Espainian eta Europan (2008-2013)	16
2.4. grafikoa	BEGaren eta enpleguaren banaketa jarduera-adarren arabera EAEn (2012).....	18
2.5. grafikoa	EAEko biztanleria aktiboaren, biztanleria okupatuaren eta langabezia-tasaren bilakaera (2002-2014)	19
2.6. grafikoa	Jarduera-tasa eta enplegu-tasa Espainian eta EAEn (2014).....	20
2.7. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera, generoaren arabera (2007-2014).....	21
2.8. grafikoa	Emakumeen eta gizonen langabezia-tasa adin-taldeen arabera (EAE, 2014)	21
2.9. grafikoa	Emakumeen eta gizonen langabezia-tasa Europan, Espainian eta EAEn (2014)	22
2.10. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren banaketaren bilakaera, adin-taldeen arabera (2007-2014)	23
2.11. grafikoa	Biztanleria okupatuaren bilakaera adin-taldeen arabera EAEn (2002-2014)	23
2.12. grafikoa	Biztanleria okupatuaren banaketa adin-taldeen arabera Europan, Espainian eta EAEn (2014).....	24
2.13. grafikoa	Biztanleria okupatuaren bilakaera jarduera-sektorearen arabera EAEn (2008-2014)	25
2.14. grafikoa	Biztanleria okupatuaren banaketa jarduera-sektorearen arabera Espainian eta EAEn (2014).....	26
2.15. grafikoa	Merkatuko eta ez-merkatuko zerbitzuetako biztanleria okupatuaren bilakaera EAEn (2008-2014) (2008=100).....	28
2.16. grafikoa	Gizarte Segurantzaren afiliatutako zerbitzu-sektoreko biztanleriaren bilakaera EAEn (2009-2013)	29
2.17. grafikoa	EAEn industria-sektorean okupatutako biztanleriaren bilakaera adar handien arabera (2008-2014) (2008=100)	30
2.18. grafikoa	Gizarte Segurantzaren afiliatutako manufaktura-industriaren sektoreko biztanleriaren bilakaera (2009-2013)	31
2.19. grafikoa	Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileak jarduera-sektorearen arabera (2008-2013) (kopuru metatua).....	32
2.20. grafikoa	Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileak jarduera-sektorearen eta espediente motaren arabera (2008-2013).....	33
2.21. grafikoa	EAEko establezimenduen hazkunde-ehunekoa jarduera-sektorearen arabera (2009-2014)	34
2.22. grafikoa	2009-2014 aldiko establezimenduen saldo garbia (1.000 establezimenduko) jarduera-sektorearen arabera	35
2.23. grafikoa	2009-2014 aldiko establezimenduen saldo garbia enplegu-tamainaren arabera (establezimenduen %)	36
2.24. grafikoa	Biztanleria okupatuaren banaketa lanbide-egoeraren arabera (2007-2014)	37
2.25. grafikoa	Sektore publikoko eta pribatuko soldatuko biztanleriaren bilakaera (2002-2014)	38
2.26. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren aldi baterako enpleguaren bilakaera (2007-2014).....	39
2.27. grafikoa	Europako, Espainiako eta EAEko soldatuko biztanleriaren banaketa kontratu motaren arabera (2014)	40
2.28. grafikoa	Behin-behinekotasunaren tasaren bilakaera sektore publiko eta pribatuaren eta generoaren arabera (2002-2014).....	41
2.29. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren lanaldi motaren bilakaera (2007-2014).....	42
2.30. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren lanaldi partzialaren bilakaera generoaren arabera (2002-2014)	42
2.31. grafikoa	Biztanleria okupatuaren banaketa kontratu motaren arabera Europan, Espainian eta EAEn (2014)	43

2.32. grafikoa	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) jakinarazitako EAEko kontratuen banaketa kontratuaren iraupenaren arabera (2014).....	43
2.33. grafikoa	Kontratuak jakinaraztean lanaldi partzialak izan duen garrantziaren bilakaera (2002-2014).....	44
2.34. grafikoa	EAEko soldata-bilakaera (langileko urteko batez besteko irabazia) generoaren arabera (2008-2012).....	45
2.35. grafikoa	EAEko soldata-bilakaera (langileko urteko batez besteko irabazia) jarduera-sektorearen arabera (2008-2012).....	46
2.36. grafikoa	EAEko industria-sektoreko eta zerbitzu-sektoreko emakumeen eta gizonen soldata-bilakaera (2008-2012).....	46
2.37. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera okupazio-mailaren arabera (2007-2013).....	47
3.1. grafikoa	EAEko 10 urteko eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera eskolatzeko-mailaren arabera (2001-2013).....	50
3.2. grafikoa	EAEn, Espainian eta Europan gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituen 20-24 urteko biztanleriaren proportzioa (2014).....	51
3.3. grafikoa	30-34 urteko biztanleriaren artean hirugarren hezkuntzako ikasketak dituen biztanleria-tasaren bilakaera (2000-2013).....	51
3.4. grafikoa	Europako (2020rako UE27 eredua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (2010) kualifikazioen piramidearen konparazioa	52
3.5. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera amaitutako ikasketa-mailaren arabera (1996-2013).....	54
3.6. grafikoa	Espainiako eta EAEko biztanleria okupatuaren banaketa erdietsitako prestakuntza-mailaren arabera (2014)	54
3.7. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren amaitutako ikasketa-maila eta jarduera-sektorea (1996-2013).....	55
3.8. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera sektoreen arabera eta amaitutako ikasketa-mailaren arabera (1996-2013)	56
3.9. grafikoa	EAEko biztanleria okupatuaren batez besteko ikasketa-urteen bilakaera jarduera-adarraren arabera (1977-2013).....	57
3.10. grafikoa	Batxilergoan eta LHko erdi-mailetan matrikulatutako ikasle guztietatik LHko erdi-mailak aukeratzen dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaera (2001/2002-2013/2014).....	58
3.11. grafikoa	EAEko lanbide-heziketako ikasleen bilakaera (2001/2002-2013/2014).....	59
3.12. grafikoa	LHko lanbide-arlo nagusietan matrikulatutako ikasleak (2013-2014 ikasturtea)	60
3.13. grafikoa	EAEko lanbide-heziketako tituludunen okupazio-tasaren bilakaera (2002-2012)	61
3.14. grafikoa	Lanbide-arloen sailkapena okupazio-tasaren arabera (2012)	61
3.15. grafikoa	LHko tituludunen okupazio-tasaren bilakaera lanbide-arloaren arabera (1999-2012).....	62
3.16. grafikoa	Lanean ari diren LHko promozioek izan dituzten lanbideen bilakaera (Lanbideen Sailkapen Nazionala) (2003-2012)	64
3.17. grafikoa	EAEko unibertsitateko ikasle matrikulatu eta egresatuen bilakaera (2008-2014)	67
3.18. grafikoa	EAEn matrikulatutako ikasleen bilakaera jakintza-arloaren arabera (2008-2014)	69
3.19. grafikoa	EAEko ikasle egresatuen bilakaera jakintza-arloaren arabera (2008-2013).....	70
3.20. grafikoa	EAEko unibertsitate-promozioen jarduera-tasa, enplegu-tasa eta langabezia-tasa. Batez bestekoa	73
3.21. grafikoa	Enplegu-tasaren bilakaera jakintza-alorraren arabera (2005-2013)	74
3.22. grafikoa	Hiruko Fundazioaren hoberia duen eskari-prestakuntzako parte-hartzaileen estaldura-tasa autonomia-erkidegoen arabera (2012)	76
3.23. grafikoa	EAEn eskari-prestakuntzako jardueretan parte hartu duten enpresen eta pertsonen kopuruaren bilakaera (2004-2012).....	78
4.1. grafikoa	Ekonomiaren eta enpleguaren bilakaera baldintzatzen duten azpisistemak	80
4.2. grafikoa	Biztanleria aktiboaren aldakuntza-tasa herrialdeen arabera (UE-28) (2015-2025)	82
4.3. grafikoa	2013-2025 aldiko biztanleria aktiboaren aldakuntza-tasa adin-talde handien arabera. EB-28 eta Espainia	83
4.4. grafikoa	Enpleguaren bilakaera eta etorkizuneko joerak sektorearen arabera. EB-28.....	85
4.5. grafikoa	EB-28ko eta Espainiako enpleguaren hazkunde-tasa jarduera-sektore handien arabera (%) (2015-2025).....	86
4.6. grafikoa	Espainiako enpleguaren aldakuntza-tasa sektorearen arabera (2004-2014 eta 2015-2025)	87

4.7. grafikoa	2015-2025 aldiko enpleguaren aldakuntza-tasa jarduera-adarraren arabera. EB-28 eta Espainia	88
4.8. grafikoa	Enpleguaren bilakaera kualifikazio-mailaren eta etorkizuneko joeren arabera. EB-28 eta Espainia.....	91
4.9. grafikoa	2013-2025 aldiko enplegu-aukerak kualifikazio-mailaren eta eskari motaren arabera. Espainia (milaka).....	92
4.10. grafikoa	Enpleguaren banaketa kualifikazio-mailaren eta jarduera-sektore handien arabera. Europa eta Espainia (2013-2025)	93
4.11. grafikoa	Enpleguaren banaketa kualifikazio-mailaren eta jarduera-sektore handien arabera. Europa eta Espainia (2013-2025)	94
4.12. grafikoa	Espainiako enplegu-aukerak lanbidearen arabera (milaka) (2015-2025).....	95
4.13. grafikoa.	EB-28ko eta Espainiako enpleguaren hazkunde-tasa lanbidearen arabera (%) (2015-2025)	96
4.14. grafikoa	EAEko biztanleriaren piramidearen bilakaera aurreikusia (2014-2025).....	97
4.15. grafikoa	EAEko guztizko biztanleriaren aldakuntza adin-taldeen arabera (2014-2025).....	98
4.16. grafikoa	EAEko 15-64 urteko biztanleriaren bilakaera agertokirik baikorrenaren eta ezkorrenaren arabera (2014 eta 2025)	99
4.17. grafikoa	EAEko 15-24 urteko eta 55-64 urteko biztanleriaren bilakaera aurreikusia (2014-2025)	99
4.18. grafikoa	EAEko erretiroaren ondoriozko alden bilakaera (2006-2014).....	100
4.19. grafikoa	EAEko 55 urtetik gorako pertsona okupatuen proportzioa jarduera-adarraren arabera (2014)	103
4.20. grafikoa	Emakumeen pisua biztanleria okupatu osoaren gainean eta 55 urtetik gorako biztanleria okupatuaren gainean, kategoria profesionalaren arabera (2014)	104
4.21. grafikoa	EAEko 55 urtetik gorako biztanleria okupatua (%) sektorearen eta lanbidearen arabera (2014)	105
4.22. grafikoa	Batez besteko globala baino enplegu-hazkunde garbi handiagoa duten lanbide-arloetako erretiroaren ondoriozko irteerak eta enplegu-sorkuntza. Egun dagoen enpleguaren gaineko urteko %.....	107
4.23. grafikoa	Ekonomia zirkularra	121

LABORAL Kutxak urte asko darama Euskal Herriko errealitate ekonomikoaren azterketarekin konprometuta. Horren froga dira 1979az geroztik egin dituen Euskal Ekonomiari buruzko txostenak. Txosten horiek urtero eskaintzen dute datu makroekonomiko eta sozialen panoramika (bilakaera demografikoa eta lan-merkatuaren bilakaera barne), baita gure produkzio-ehuneko sektore ekonomiko garrantzitsuenen egoerari eta ikuspegiei buruzko analisi zehatza eskaini ere.

Zehazkiago, enpleguaren gai-esparruan, 1978an LABORAL Kutxako Ikerketa Departamentuak Euskal Herriko langabeziari buruzko txosten bat egin zuen, sektore publikoari zein sektore pribatuari aztarnak eta orientabideak emateko hainbat gairen inguruan: biztanleriaren zein joera espero zitezkeen, produkzioan zein joera sektorial antzeman zitezkeen, eta, politika ekonomikoaren ikuspegitik, zein elementu jar zitezkeen abian enplegua areagotzeko eta une hartan bizi zen krisialditik irteteko. Produktuen bizi-zikloaren ideia ildo kontzeptual garrantzitsua zen. Izan ere, beste zenbait elementuren artean, heldutasun teknologikoaren arabera produkzioa eremu geografiko batzuetatik beste batzuetara nola mugitzen den azaltzen du. Produktuaren bizi-zikloaren teoria hori eta hainbat zona geografikoren artean nabarmendutako konparazio-abantailen teoria lan-ildo gisa erabili dituzte beste azterketa sektorial batzuetan, hala nola makina-erremintari eta zurezko altzarien fabrikazioari edo nekazaritzako elikagaien sektoreari buruz egin diren lanetan.

Biztanleriaren joerak beste txosten batzuetan ere aztertu dira, hala nola Ikerketa Departamentuak 2006an egindako *“Población, empleo y pensiones en la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2004-2050”* izenekoan (Biztanleria, enplegua eta pentsioak Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004-2050). Txosten horren funtsezko helburua zen gure egungo pentsio-sistemaren etorkizuneko bideragarritasuna analizatzea, Euskadin eta Europako herrialde gehienetan biztanleriaren zahartze bizkorrak markatzen duen bilakaera demografikoaren aurrean. Horretarako, azterketak hainbat proiektzio demografiko egiten zituen, biztanleriak aurreikuspenen arabera izan lezakeen bilakaeran oinarrituak, bilakaera horretarako erabakigarriak diren aldagai nagusien portaeraren hainbat hipotesi kontuan hartuta eta aldagai horiek gure ingurunean aldagai makroekonomikoekin erlazionatuta.

LABORAL Kutxak euskal errealitate ekonomiko eta sozialari buruzko jakintza sortzearekin hartutako konpromisoari jarraiki, txosten honen eginkizun nagusia da jarduera ekonomikoak eta enpleguak euskal ekonomian azken hamarkadan (krisialdi ekonomiko sakonaren testuinguruan) izan duten bilakaera eta etorkizunari begira dituzten perspektibak analizatzea. Horretarako, Euskadin maila sektorialean jarduera eta lanpostuak epe ertain eta luzean sortzeko dauden aukerak aztertzen ditu, nazioarteko eta, bereziki, Europako aukeren testuinguruan.

Helburu nagusi honoko ardatzetan banatu da:

- EAEn jarduera ekonomikoaren bilakaera eta enplegua sortzeko eta suntsitzeko dinamikak analizatzea, ikusmolde nagusiki sektorialetik, eta biztanleria aktiboaren okupazioen eta kualifikazio-mailen bilakaerari ere begiratu bat emanda.

- Epe ertain eta luzera aurreikus daitezkeen enpleguaren perspektibak analizatzea, hazteko eta lanpostuak sortzeko ahalmen handiena duten jarduera-sektore estrategikoak eta goraka ari direnak, eta okupazioak identifikatuta.
- Europan enpleguaren bilakaera baldintzatuko duten joerak eta garatzeko perspektibak dituzten sektoreak identifikatu.

Ardatz horietako bakoitzaren atzean, erantzun nahi zaien galdera zehatzak dautza. Lehenengoan atzera begirako moduko bat egiten da eta honako galdera hauek formulatzen dira: zein izan dira nazioarteko krisi ekonomiko eta finantzarioa hobekien jasan duten sektoreak eta zein kalteberenak? Zer-nolako bilakaera izan du enpleguak? Zenbat lanpostu galdu dira krisialdiak iraun duen bitartean? Zer-nolako eragina izan du lan-baldintzetan? Nolakoa da etorkizuneko profesionalen "harrobia", hots, zein dira Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta Unibertsitateko ikasleek erakutsi dituzten joerak jakintza-arloei, kualifikazioari edo trebetasunari (*expertise*) dagokienez? Zein izan da krisialdiak iraun duen bitartean enpresek etengabeko prestakuntzan izan duten dinamika? Azken batean, hau da planteatzen den galdera: nola, zein "ekipamendurekin" irten gara krisialdi horretatik etorkizunari aurre egiteko?

Analisiaren bigarren eta hirugarren blokeetan etorkizunean kokatzen da fokua, hurrengo hamarkadaren horizontean hain zuzen, eta galdera hauei erantzuteko ahaleginak egin dira: zein izango da biztanleria aktiboaren bilakaera? Zenbat enplegu-aukera izango dira? Zein sektoretan kokatuko dira? Zein kualifikazio-mailekin lotuko dira? Zein lanpostu edo okupaziok izango dute hedapen handiena? Zein sektoretan ditu EAEk lehia-abantailak eta zein dira sektore estrategikoak?

Laugarren ardatz edo kapituluan, enpleguaren bilakaera kuantitatiboa eta kualitatiboa zehaztuko duten joera orokorrak aintzat hartzen dira, baita Europan enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreen bilakabidea ezaugarrituko duten bereizgarriak ere.

Txostena amaitzeko, egindako analisisen ondorio diren indar-ideia nagusiak eta ondorio nagusiak eta gogoeta egiteko eta esku hartzeko esparruak laburbiltzen ditu bosgarren kapituluak.


2. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGU DINAMIKAK EAE-N: KRISIAREN INPAKTUA

Kapitulu honen asmoa da euskal ekonomiak eta enpleguak azken hamarkadan izan duten bilakaera analizatzea eta krisi ekonomikoak enplegua sortzeko eta suntsitzeko dinamiketan izan duen inpaktuaren nolakotasuna mugatzea, termino globaletan eta ikuspegi sektorialetik.

2.1. Industriaren uzkurdua eta zerbitzuen hazkundea

Euskal Autonomia Erkidegoko BPGa, 2013an merkatuko prezioetako 66.081 milioi eurotan zifratua, % 5 uzkurtu da 2008tik 2013ra nazioarteko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioz. Haren osaera sektorialari dagokionez, azken urteetan gora egin du merkatuko zerbitzuek eta ez-merkatuko zerbitzuek euskal ekonomiaren osotasunean duten garrantziak, industriaren eta eraikuntzaren sektorearen pisu erlatiboak atzera egin duen aldi berean.


2.1. grafikoa Balio erantsi gordinaren (BEG) osaeraren bilakaera EAEn, jarduera-sektoreen arabera (%) (2008-2013)



Iturria: Kontu ekonomikoak, Eustat.

Horiek horrela, merkatuko zerbitzuen sektoreak ia BEGaren erdia ordezkatzeko du 2013an eta ez-merkatuko zerbitzuenak beste % 20. Industriak, aitzitik, 2013ko balio erantsi gordinaren % 24 ordezkatzeko du, eta kopuru absolutuetan krisia hasi zenetik % 19 atzera egin badu ere, Europako herrialdeen osotasunean (% 19) baino pisu handiagoa du oraindik ere.

2.2. grafikoa BEGaren osaera jarduera-sektoreen arabera (%) EAEn, Espainian eta Europan (2013)



Iturria: Kontu ekonomikoak, Eustat eta Eurostat.

Industriaren parte-hartze txikiago hori (aberastasunari zein enpleguari dagokionez, aurrerago ikusiko den moduan) edo "desindustrializazio" esan daitekeena, alabaina, teknologia eta antolakuntza berritzeko eta merkatuak zabaltzeko prozesuan inskribatu behar da, laguntza-jardueren esternalizazioa bizkortu baitu, lehiakortasuna hobetzeko zerbitzu berriak gehituta. Azken batean, euskal produkzioaren modernizazioa da, industriatik industria berrira eramaten gaituena. Izan ere, produktiorako zerbitzutzat jotzen diren jardueren gero eta pisu handiagoak konpentsatu egin du industriaren uzkurdura, eta enpresa-lehiakortasunean duten eraginagatik nabarmendu dira zerbitzu profesionalak, hala nola I+G jarduerak, ingeniariaritzak, aholkularitzak, arkitektura, zerbitzu juridikoak, kudeaketa-zerbitzuak, zerbitzu teknikoak, diseinua, publizitatea eta marketina, besteak beste. Aldatu egin da, azken batean, produkzio-egitura.

"Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2015eko Txostenaren Koadernoak" dokumentuan jasotzen den moduan, internalizazio-mailak –fakturazioaren gaineko BEGaren ehuneko gisa neurtua– beheranzko joerari jarraitu dio industrian, maila apalagoan izan bada ere. Bestela esanda, euskal enpresek duela urte batzuk baino gehiago esternalizatzen dute. Enpresaren tamaina kontuan izanda, egiazta daiteke, beste herrialde batzuen aldean, euskal enpresa handiek gehiago esternalizatzeko joera dutela eta, tamaina txikiagokoen, aldiz, gehiago internalizatzeko joera dutela.

2.1. taula Industriaren jarduera ekonomikoaren internalizazio-maila (BEG/fakturazioa, %-tan) EAEn, Espainian eta EB-28n


	Guztira	0-9	10-49	50-249	250 +
2008-2009					
EAE	27	40	32	27	20
Espainia	24	35	31	23	20
EB-28	27	32	32	28	26
2011-2012					
EAE	25	34	32	26	17
Espainia	23	28	29	23	21
EB-28	27	31	31	29	25

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2015eko Txostenaren Koadernoak.

Euskal industriak manufaktura-jardueren nagusitasunari eusten dio: Metalurgia eta produktu metalikoak, Makinak eta ekipamenduak eta Garraio-materialaren fabrikazioa nabarmentzen dira, 2013ko BEG osoaren % 12 biltzen dute-eta. Energia ere sektore garrantzitsua da EAEn (BEGaren % 2,8). 2008 eta 2013 artean nabarmentzekoa da produktu informatiko eta elektronikoen industriak, makina eta ekipamenduen adarrak eta ur-hornidura eta saneamenduarenak izan duten bilakaera positiboa. Gainerako industria-jarduerak atzerakada izan dute.

Atzerakadak atzerakada, Euskal Autonomia Erkidegoko manufaktura-industriak pisu handiagoa du Europako herrialdeen osotasunean baino (BEGaren % 15).

2.3. grafikoa Manufaktura-sektorearen BEGaren bilakaera (guztizkoaren gaineko %) EAEn, Espainian eta Europan (2008-2013)



Iturria: Kontu ekonomikoak, Eustat eta Eurostat.

Merkatuko zerbitzuak EAEko balio erantsi gordinaren % 4,8 dira eta joera positiboa izan dute azken urteetan: kopuru absolutuek % 4 egin dute gora 2008tik 2013ra. Nabarmentzekoak dira merkataritza (BEGaren % 11), higiezinaren jarduerak (% 10), garraioa (% 5) eta ostalaritza (% 4,5).

Bilakaeraren ikuspegitik begiratuta, merkataritza-jardueraren kasuan BEGa mantendu egin dela ikus daiteke, eta ostalaritzan eta higiezinaren jardueretan hazkunde garrantzitsuak izan direla. Ez-merkatuko zerbitzuek ere (2013an BEGaren % 20) hazkunde-dinamikari jarraitu diote jarduera-adar guztietan (2008 eta 2013 artean +% 11).

2.2. taula BEGaren bilakaera jarduera-adarren arabera EAEn (2008-2013)

	2013 (milioi eurotan)	2008-2013ko aldakuntzaren %


2. Jarduera ekonomikoa eta enplegu-dinamikak EAEn: krisiaren inpaktua

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	513,5	20,13
Erauzketa-industriak	35,7	-73,68
Manufaktura-industria	12.198,1	-19,51
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak	854,0	-6,93
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	107,4	-24,06
Zura, papera eta arte grafikoak	673,6	-25,86
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	89,1	-55,67
Industria kimikoa / Farmazia-produktuak	451,2	-11,71
Kautxua, plastikoak eta beste ez-metalikoak	1.293,2	-24,08
Metalurgia eta produktu metalikoak	3.921,4	-31,93
Produktu informatikoak eta elektronikoak	396,7	19,05
Material eta tresneria elektrikoa	791,7	-18,35
Makinak eta ekipamenduak	1.534,1	7,64
Garraio-materiala	1.490,8	-4,18
Altzariak eta beste zenbait manufaktura-industria	595,0	-18,20
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	1.710,0	-14,92
Ur-hornidura eta saneamendua	417,7	18,06
Eraikuntza	3.926,6	-37,49
Merkatuko zerbitzuak	29.043,1	3,95
Merkataritza; ibilgailuen konponketa	6.572,4	0,24
Garraioa eta biltegiatzea	2.994,3	-0,60
Ostalaritza	2.700,2	20,63
Edizioa, irudia, irratia eta telebista	342,2	-19,73
Telekomunikazioak	943,4	4,43
Informatika	735,0	10,58
Finantza- eta aseguru-jarduerak	3.527,3	-13,66
Higiezin-jarduerak	6.057,0	15,44
Aholkularitza eta jarduera teknikoak	2.797,7	12,96
Ikerketa eta garapena	291,5	10,90
Beste jarduera profesional batzuk	428,4	-9,65
Zerbitzu osagarriak	1.653,7	3,97
Ez-merkatuko zerbitzuak	12.217,4	11,21
Administrazio publikoa eta defentsa	3.196,6	5,22
Hezkuntza	3.017,1	12,72
Osasun-jarduerak	3.232,9	9,94
Gizarte-zerbitzuetako jarduerak	627,5	12,60
Jolas- eta kultura-jarduerak	806,4	31,49
Bestelako zerbitzuak	772,8	11,49
Etxeetako jarduerak	564,0	20,84
Oinarrizko prezioetako BEG guztira	60.062,0	-5,10
Merkatuko prezioetako BPGa	66.081,1	-5,12

Iturria: Kontu ekonomikoak, Eustat.

Kontuan izanik, orain, sektoreek enpleguari dagokionez zer-nolako pisu erlatiboa duten, adierazi beharra dago euskal ekonomian manufaktura-industriaren pisua antzekoa dela enpleguari eta balio erantsi gordinari dagokionez; merkatuko zerbitzuak, aitzitik, ez dira hain zabalak enplegu-zifretan, eta ez-merkatuko zerbitzuek garrantzi handiagoa dute enplegu-zifretan produkzioari egiten dioten ekarpenean baino.

2.4. grafikoa BEGaren eta enpleguaren banaketa jarduera-adarren arabera EAEn (2012)



Iturria: Kontu ekonomikoak, Eustat.

2.2. Krisiaren inpaktu negatibo gogorra EAEko enpleguan

a) Enplegua % 13,5 baino gehiago murrizten da 2008 eta 2013 artean.

Lehenik, laburbilduta aurkeztu nahi da enpleguaren eta langabeziaren bilakaera, 2008-2013ko krisialdian izan den lanpostu-galera kuantifikatzeko. Krisialdia hasi baino lehen, enplegu-sorrerak oso hazkunde-joera handia izan zuen euskal ekonomian. 2008tik aurrera, alabaina, enpleguaren zifrek beheranzko joerari jarraitu zioten eta zeinu positibo batzuk erakutsi zituzten 2014an¹.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestak² islatzen duen bilakaeraren arabera, 2008an krisia Euskal Autonomia Erkidegoan hasi zenetik 2013 arte jaitsi egin zen biztanleria aktiboa (lan egiteko adinean dagoen eta enplegu bila dabilen biztanleria) eta uzkurto egin zen ekonomiak sortutako guztizko enplegua. Krisiaren aurreko aldian biztanleria aktiboa eta okupatua nabarmen handitu zen arren, EAEk biztanleria aktiboaren % 3 eta biztanleria okupatuaren % 14 galdu zuen 2008-2013 aldian. Gutxi gorabehera 137.000 enplegu galdu dira 2008 eta 2013 artean. Hala, krisia hasi aurretik lana zuten 10 pertsonatik batek gaur egun ez du lanik. Izan ere, biztanleria langabea 2002 eta 2007 artean % 30 murriztu bazen ere, % 14,2 handitu zen 2008 eta 2013 artean.

¹ 2015eko lehen erdiari dagozkion datuek ere zentzu positibo bera adierazten dute.

² Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuetara jo da Espainiako datuekin konparatzerakoan informazio-iturri bera erabiltzeko asmoz. Hala eta guztiz ere, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datuek ere berretsi egiten dituzte txostenean irudikatutako joerak.


2.3. taula Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren adierazle nagusien bilakaera EAEn

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
Biztanleria aktiboa	1.034.200	1.047.150	-3,21	1.067.575	7,56
Biztanleria okupatua	865.300	873.575	-13,52	1.001.125	11,53
Biztanleria langabea	168.875	173.550	142,13	66.450	-29,98

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Enpleguak Espainian izandako bilakaerarekin konparatuta, nabarmendu beharra dago biztanleria aktiboa egonkor mantendu dela estatu-mailan (2008 eta 2013 artean +% 0,5), EAEn ez bezala, eta enplegua neurri handiagoan uzkuritu dela Espainian (-% 16,3).

2.5. grafikoa EAEko biztanleria aktiboaren, biztanleria okupatuaren eta langabezia-tasaren bilakaera (2002-2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

2014an behera egin zuten berriz ere biztanleria aktiboak (1.034.200 pertsona) eta biztanleria okupatuak (865.300 pertsona) EAEn, 2013an eta 2012an baino neurri txikiagoan izan bazen ere.

Biztanleria langabeari dagokionez, 2014an murrizketa txiki bat erregistratzen da lehen aldiz 2010az geroztik (2013 eta 2014 artean -% 2,7): 168.875 pertsona daude langabezia-tasa % 16,3koa da. Adierazle horien arabera pentsa daiteke, itxaropenak betetzen badira, enplegu-suntsiketa garbiak behea jo duela.

Estatuko batez bestekoarekin konparatuz gero, estatuko jarduera-tasa (% 60) EAEko jarduera-tasa (% 57) baino handixeagoa da oraindik ere, eta gizonezkoen jarduera-tasa emakumezkoena baino nabarmen handiagoa da bi kasuetan. Enplegu-tasa, ordea, handiagoa da euskal ekonomian Espainiakoan baino, bai emakumezkoen artean bai gizonezkoen artean.

2.6. grafikoa Jarduera-tasa eta enplegu-tasa Espainian eta EAEn (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

b) Emakumezkoen biztanleria aktiboak gora egiten du eta gizonezkoen enpleguak neurri handiagoan egiten du behera

Bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta ikus daiteke krisiak iraun zuen bitartean emakumezkoen biztanleria aktiboak gora egin zuela 2008 eta 2013 artean (+%3) eta, gizonezkoen biztanleria aktiboak, aldiz, atzera egin zuela (-%8), estatu-mailan gertatu zen bezalaxe (emakumezkoen biztanleria aktiboa %7 handitu zen eta gizonezkoena ia %5 murriztu zen). Aldi berean, enplegu-galera askoz ere nabarmenagoa izan zen gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.

2.4. taula Emakumezkoen eta gizonezkoen jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren adierazle nagusien bilakaera EAEn (2002-2014)


	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
Emakumeak					
Emakume aktiboak	485.550	488.425	2,86	464.825	13,08
Emakume okupatuak	407.300	407.950	-6,84	428.350	21,13
Emakume langabeak	78.225	80.450	118,02	36.500	-36,44
Gizonak					
Gizon aktiboak	548.650	558.775	-7,95	602.700	3,65
Gizon okupatuak	458.000	465.625	-18,63	572.775	5,28
Gizon langabeak	90.625	93.125	167,79	29.950	-20,03

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Gizonezkoen biztanleria aktiboaren galera 2009an hasi zen eta 2012 eta 2013 artean erregistratu zen beherakadarik handiena. Emakumeen kasuan, biztanleria aktiboak kopuru positiboak mantendu zituen 2012 arte, orduan hasi baitzen arinki uzkuertzen. 2014an behera egin zuen berriz ere gizonezkoen eta emakumezkoen biztanleria aktiboak, baina aurreko bi urteetan baino neurri txikiagoan.

Biztanleria okupatuaren bilakaerari dagokionez, aldi horretan gizonen %19k eta emakumeen %7k galdu zuten enplegua. Espainian ere beherakada handiagoa izan zuen gizonen enpleguak (-% 21 gizonen artean eta -% 10 emakumeen artean). 2014an ere enplegu-galerak erregistratu ziren, baina ez hain nabarmenak. Gizonen enpleguaren beherakada handiago horren ondorioz, gora egin zuen emakumeek guztizko biztanleria okupatuan zuten presentzia: 2007an % 43 ziren eta 2014an % 47.

2.7. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera, generoaren arabera (2007-2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Langabezia-egoerari dagokionez, emakume langabeen kopuruak gora egin du 2008 eta 2013 artean (+% 118), baina gizonen baina neurri txikiagoan (+% 168). Estatu-mailan ere joera bera hauteman da.


Azken urtean langabeziak lehen aldiz egiten du behera (-% 2,7) emakumeen zein gizonen artean, eta bien langabezia-tasa parekatu egiten da EAEn: gizonena % 16,5 da eta emakumeena % 16,1. Adinaren arabera, jakinaenez, langabezia askoz ere handiagoa da biztanle gazteen artean helduagoen artean baino, nahiz eta txikiagoa den emakume gazteen artean gizonen artean baino. Espainian, alabaina, emakumeen langabezia-tasa (% 25,4) gizonen (% 23,6) baino handiagoa da. Eta Europakoak baino askoz ere handiagoak dira bi kasuetan.

2.8. grafikoa Emakumeen eta gizonen langabezia-tasa adin-taldearen arabera (EAE, 2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

2.9. grafikoa Emakumeen eta gizonen langabezia-tasa European, Espainian eta EAEn (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta EUROSTAT

c) Biztanle gazteak dira enpleguaren beherakada gehien jasaten dutenak

Adierazi den moduan, biztanle gazteak izan dira krisi ekonomikoaren eragina neurri handienean jasan dutenak, bai EAEn, bai Europako herrialdeetan oro har. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008 eta 2013 artean, gazteen enplegua % 39 uzkurdu da; izan ere, biztanleria okupatuak 35 urtetik beherako 139.000 gazte galdu ditu. Biztanle gazteentzako enplegurik ezaren arazo hori lehentasun bihurtu da Eusko Jaurlaritzaren zein Europako erakundeen enplegu-politikentzat.

16-24 urteko adin-taldea da lana aurkitzeko zailtasun handiena duena eta, gainera, krisi-egoeretan enplegua galtzeko erraztasun handiena duena, zeren biztanle horien artean handiagoa baita enpleguaren behin-behinekotasuna eta, gainera, "merkeagoa" baita horiek lanetik kaleratzea (eman beharreko kalte-ordainak txikiagoak dira).


2.5. taula Biztanleria okupatuaren bilakaera adin-taldean arabera EAEn (2002-2014)

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
16-19 urte	2.400	2.700	-64,9	8.000	9,6
20-24 urte	22.700	25.700	-54,9	58.900	-13,2
25-34 urte	174.300	184.100	-34,6	284.400	5,2
35-44 urte	271.200	277.500	-4,4	287.100	10,8
45-54 urte	251.200	246.900	0,1	240.000	19,8
55 urte eta gehiago	143.400	136.700	7,8	122.800	32,4
Guztira	865.300	873.600	-13,5	1.001.100	11,5

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Horiek horrela, EAEn biztanleria okupatua nabarmen zahartzen ari dela ikus daiteke. Adibidez, 2014an biztanleria okupatuaren ia erdia 45 urtetik gorakoa da (% 46), eta segmentu hori % 36 besterik ez zen 2007an.

2.10. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren banaketaren bilakaera, adin-taldean arabera (2007-2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

25-34 urteko biztanleriak beherazko joera handia erakusten du 2008az geroztik, eta 55 urte edo gehiagoko biztanleriarena, aitzitik, goranzkoa da. Dinamika hori Espainian erregistratutakoaren oso antzekoa da.

Biztanleria gazte okupatuaren beherakada, zati batean bederen, bilakaera demografikoak argitzen du, baita krisiaren disuasio-eraginaren ondorioz adin-talde horretan jarduerarik ezak gora egin izanak ere. Zenbatespenen arabera, 2006an hiru gaztetik bat lan bila zebilen eta orain lautik bat besterik ez, eta enplegu bila ari ez direnak ikasketak egiten ari dira batik bat.

2.11. grafikoa Biztanleria okupatuaren bilakaera adin-taldean arabera EAEn (2002-2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

EAEn 45-55 urteko biztanle okupatu gehiago daude Espainian eta Europako herrialdeen multzoan baino, eta lanean ari den 55 urte baino gehiagoko biztanleria Europa-mailan erregistratzen denaren

antzekoa da. Aitzitik, segmentu gaztea murriztagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan estatu-mailan eta Europan baino.

2.12. grafikoa Biztanleria okupatuaren banaketa adin-taldeen arabera Europan, Espainian eta EAEn (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta EUROSTAT

2.3. Enpleguaren bilakaera sektorial desberdina


a) Industria-enpleguak behera egin du eta zerbitzu-sektoreak gora

Euskal ekonomian azken hamarkadan gertatu dena ulertzeko funtsezkoa da, enplegua sortzeko ahalmenari dagokionez bereziki, sektore ekonomikoek izan duten bilakaera desberdina aintzat hartzea.

Oro har, krisialdian zehar mantendu egin dira enpleguaren egituran aurrez ikus zitezkeen joerak, jarduera-sektore bakoitzaren ekarpenari dagokionez behintzat. Ildo horretan, zerbitzu-sektorearen ekarpen ukaezinak goranzko joerari jarraitu dio (biztanleria okupatuaren %73) eta industriak nolabaiteko pisua galdu du biztanleria okupatuaren artean (%20). Horrek eragin handia du ekonomian, industria-sektoreak oso garrantzi estrategiko handia baitu balio erantsiaren sortzaile den aldetik.

Sektore ekonomikoen arabeko analisi zehatza eginez gero, enplegua galtzeak edo irabazteak Euskal Autonomia Erkidegoan eragin desberdina izan duela egiazta daiteke.

2.13. grafikoa Biztanleria okupatuaren bilakaera jarduera-sektorearen arabera EAEn (2008-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da zerbitzu-sektoreak ia 4 pertsona okupatutik 3 hartzen dituela (% 73, hots, 628.275 pertsona okupatu), eta kopuru efektiboetan ere uzkurtu egin bada ere (-37.500 pertsona okupatu 2008 eta 2013 artean), biztanleria okupatuaren guztizko kopuruaren gaineko ehunekoetan hazi egin da (biztanleria okupatuaren % 65 ordezkatzen zuen 2008an). Industriak, aitzitik, neurri askoz ere handiagoan galdu ditu langileak (-60.875). Horrez gain, 2014an zerbitzuena da biztanleria okupatuaren hazkundera kopuru positiboetara itzuli den sektore ekonomikoa bakarra.

Jakina denez, krisiak eragin bereziki nabarmena izan zuen eraikuntzan: biztanleria okupatuaren % 39 galdu zuen 2008 eta 2013 artean (37.000 okupatu gutxiago). Gaur egun, sektorea 50.050 enpleguk osatzen dute eta lan-merkatuaren % 6 ordezkatzen du (2008an % 9).

Industriak, 174.725 okupaturekin, enplegu osoaren % 20 hartzen du 2014an, hots, 2008an baino 4 puntu gutxiago ehunekoetan (% 24). 2008 eta 2013 artean, enplegua % 25 uzkurtu zen industrian. Beherakada hori askoz ere handiagoa izan zen zerbitzu-sektorean erregistratutako galera baino (-% 5,7).


2.6. taula Biztanleria okupatuaren bilakaera jarduera-sektorearen arabera EAEn (2008-2014)

	2014 (kopurua)	2008-2013		
		2013 (kopurua)	2008 (kopurua)	2008- 2013ko aldakun- tzaren %
Nekazaritza	12.275	14.250	16.300	-12,4
Industria	174.725	179.125	240.000	-25,4
- Erauzketa-industriak	10.700	8.400	8.200	2,4
- Manufaktura-industria	164.000	170.700	231.700	-26,3
Eraikuntza	50.050	56.800	93.100	-39,0
Zerbitzuak	628.275	623.375	660.850	-5,7
- <i>Merkatuko zerbitzuak</i>				
- Merkataritza, konponketa eta ostalaritza	215.900	206.600	243.600	-15,2
- Informazioa eta komunikazioak	22.800	25.100	28.900	-13,1
- Banku-jarduera eta aseguruak	27.600	25.900	24.300	6,6
- Higiezin jarduerak	4.300	3.000	4.800	-37,5
- Enpresentzako zerbitzuak	93.500	91.300	103.200	-11,5
- <i>Ez-merkatuko zerbitzuak</i>				
- Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak	197.600	195.500	188.600	3,7
- Beste zenbait zerbitzu-jarduera	66.600	76.000	67.400	12,8
Guztira	865.300	873.575	1.010.200	-13,52

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urteko batez bestekoa.

Dena dela, Espainiako enpleguaren banaketa sektorialarekin konparatuz gero, osaera sektorialak industriaren garrantzi handiagoa eta manufaktura-sektorearen pisua islatzen jarraitzen du 2014an. Bestalde, zerbitzu-sektorearen hedapena nabarmena da estatu-mailan ere.

2.14. grafikoa Biztanleria okupatuaren banaketa jarduera-sektorearen arabera Espainian eta EAEn (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta EUROSTAT


b) *Jarduera-adarren arabera bilakaera desberdina zerbitzu-sektorean*

Zerbitzu-jardueran ere enpleguaren portaera desberdina da azpisektoreen arabera. Izan ere, merkatuko zerbitzuetan enpleguak atzera egin du eta ez-merkatuko zerbitzuen kasuan, aldiz, gora egin du enpleguak.

2008 eta 2013 artean bilakaerarik onena izan duten jarduera-adarrak banku-jarduera eta aseguruak (+% 6,6), administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak (+% 3,7) eta askotariko jarduerak hartzen dituzten beste zenbait zerbitzu-jarduera (% 13) izan dira, enplegu-zifren igoera mantentzea lortu baitute.

Aitzitik, krisiaren inpakturik handiena jasan duten jarduera-adarra higiezin jarduerena izan da (-% 37,5). Hala eta guztiz ere, 2012 eta 2014 artean jarduera horrek hazkunde-joera berreskuratu duela dirudi. Biztanleria okupatuak atzera egin du, halaber, merkataritza, konponketa eta ostalaritzan (-% 15), informazioaren eta komunikazioaren adarrean (-% 13) eta enpresentzako zerbitzuetan (-% 11,5).

2.15. grafikoa Merkatuko eta ez-merkatuko zerbitzuetako biztanleria okupatuaren bilakaera EAEn (2008-2014) (2008=100)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta


Zerbitzu-sektorearen Gizarte Segurantzako afiliazioen datuek berresten dute industria baino sektore heterogeneoagoa eta enplegua sortzeari eta suntsitzeari dagokionez dinamikoagoa dela 2009-2013 aldian³.

Jarduera-adarren hierarkiak, enpleguari dagokionez, lehen tokian mantentzen du merkataritza, ibilgailu motordunen konponketaren adarra ere barnean hartzen duena (133.556 afiliazio), eta osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (83.037) dira hurrengoak. Hezkuntzaren esparrua sailkapeneko hirugarren tokiraino igotzen da (59.003). Ostalaritza mantendu egiten da (56.941) eta administrazio-jarduerak edo enpresentzako zerbitzu osagarriek behera egiten dute (55.829).

³ 2009az goertziko datuak analizatzen dira, EJSN-09 sailkapeneko jarduera-adarren sailkapen bera erabiltzeko.

Aldi horretan, afiliazio-galeraren ikuspuntutik geldialdi ekonomikoaren kalterik handiena jasan duten zerbitzu-jarduerak honako hauek izan dira: merkataritza, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, garraioa eta biltegiatzea eta finantza- eta aseguru-jarduerak.

2.16. grafikoa Gizarte Segurantzaren afiliatutako zerbitzu-sektoreko biztanleriaren bilakaera EAEn (2009-2013)




Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

c) Industria-sektorean enplegua sortzen eta galtzen duten jarduera-adarrak

Manufaktura-industrian okupatutako biztanleria % 26 jaitsi da 2008 eta 2013 artean, eta 2014an enplegua galtzen du berriz ere. Erauzketa-industriek eta energiakoek, bestalde, 2013an berreskuratu egiten dituzte 2008ko mailak (+% 2,4), eta bilakaera hori indartu egiten da 2014an.

2.17. grafikoa EAEn industria-sektorean okupatutako biztanleriaren bilakaera adar handien arabera (2008-2014) (2008=100)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Manufaktura-industriaren sektorean sakonduta, 2013an Gizarte Segurantzaren afiliatutako biztanleriaren datuek adierazten dutenez, industria-adarren sailkapenaren lehen tokian produktu metalikoen fabrikazioa dago (39.242 afiliatu 2013an), eta ondoren metalurgia (20.327), makinak eta ekipamenduak (19.195), kautxua, plastikoak eta beste ez-metalikoak (16.261) eta elikagaiak, edariak eta tabakoa (12.165). Ibilgailu motordunen industriak gora egiten du sailkapenean (10.551 afiliazio) eta zuraren, paperaren eta arte grafikoaren sektoreak, aldiz, behera (10.049).

2009 eta 2013 artean Gizarte Segurantzako afiliazioei dagokienez enplegu-galera neurri handi batean jasan duten industria-jarduerak produktu metalikoen fabrikazioa, kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa, metalurgia, zura, papera eta arte grafikoak eta makinaren eta ekipamenduen konponketa eta instalazioa izan dira. Adar bakar batek ere ez du bilakaera positiboa erakutsi.

2.18. grafikoa Gizarte Segurantzaren afiliatutako manufaktura-industriaren sektoreko biztanleriaren bilakaera (2009-2013)



* EJSN-09 sailkapeneko jardura-adarren arabera datuak dituen aldia.


Iturria: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

d) Enpleguaren aldi baterako etendura, iraungitzearen aurrean, krisiari aurre egiteko tresna gisa

EAEn azken hamarkadan izan den enplegu-galera argitzen duen beste adierazle bat euskal administrazioak edo administrazio zentralak baimendutako eta/edo jakinarazitako enplegu-erregulazioko espedienteak dira⁴. 2008 eta 2013 artean 265.000 langilek baino gehiagok jasan dituzte enplegu-erregulazioko espedienteak: 201.000 industria-sektorekoak ziren (guztizkoaren % 76) eta 47.410 zerbitzu-sektorekoak (% 18). Aldi horretan bertan, bestalde, eraikuntzaren sektoreko 47.000 langilek baino gehiagok jasan zituzten enplegu-erregulazioko espedienteak.

⁴ Nabarmendu beharra dago 2012ko martxoan indarrean jarri zela 3/2012 Errege Lege Dekretua, enplegu-erregulazioko espedienteak indarra izateko alde aurretik Lan Agintaritzak onartu behar izateko eskakizuna ezabatu zuena. Arau hori indarrean jarri zenez geroztik, nahikoa da jakinaraztea.

2.19. grafikoa Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileak jarduera-sektorearen arabera (2008-2013) (kopuru metatua)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

2014an oso nabarmen jaisten da enplegu-erregulazioko espedienteak jasaten dituzten langileen kopurua, lehen sektorean izan ezik.


2.7. taula Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2008-2014)

	2014 (kopurua)	2008-2013		
		2013 (kopurua)	2008 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %
Nekazaritza	389	53	12	341,7
Industria	11.052	28.972	13.697	111,5
Eraikuntza	1.679	3.199	378	746,3
Zerbitzuak	4.736	10.095	1.808	458,4
Guztira	17.856	42.319	15.895	166,2

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urteko batez bestekoa.

Aldi baterako etendura da ondoriorik ohikoena jarduera-sektore guztietan. Alabaina, lan-harremana iraungitzeak garrantzi handiagoa du zerbitzu-sektorean, sektore horretako enpresen aldakortasun handiagoari loturik. Halaber, nabarmendu beharra dago lanaldiak laburtzea baliabide errepikaria izan dela zerbitzu-enpresetan lanpostuak galtzea saihesteko.

2.20. grafikoa Euskal administrazioak eta administrazio zentralak EAEn baimendutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten langileak jarduera-sektorearen eta espediente motaren arabera (2008-2013)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

e) *Ez-merkatuko zerbitzuen establezimenduak dira krisia hobekien jasaten dutenak*

Enpresa-ehunaren ikuspuntutik begiratuta, 2009 eta 2014 artean 25.000 establezimendu baino gehiago galdu dira EAEn: 2.462 industriaren sektorekoak ziren, 12.267 eraikuntzakoak eta 17.024 zerbitzuetakoak.


2.8. taula Establezimenduen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2009-2014)

	2009	2014	2009-2014ko aldakuntzaren %
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	--	6.494	--
Industria	14.405	11.943	-17,1
Eraikuntza	33.679	21.412	-36,4
Zerbitzuak	153.530	136.506	-11,1
Guztira	202.093	176.879	-12,5

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat

Eraikuntzaren eta industriaren jarduera-sektoreetako establezimenduak dira krisiaren ondorioak neurri handienez jasan dituztenak. Zehazki, 2009 eta 2014 artean eraikuntzako establezimenduen bolumena % 36 uzkurtu da, industriakoena % 17 eta merkatuko zerbitzukoena % 14. Ez-merkatuko zerbitzuen sektoreko establezimenduek % 10 egin dute gora. Bereziki nabarmentzekoa da jarduera-adar hauetako establezimenduen igoera: administrazio publikoa eta defentsa eta nahitaezko Gizarte Segurantzaren (+% 18,5), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (+% 10) eta hezkuntzaren sektorea (+% 8).

2.21. grafikoa EAEko establezimenduen hazkunde-ehunekoa jarduera-sektorearen arabera (2009-2014)



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat

2.9. taula Establezimenduen bilakaera jarduera-sektorearen arabera (2009-2014)

	2009	2014	2009-2014ko aldakuntzaren %
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	--	6.494	--
• Erauzketa-industriak	45	51	13,3
• Manufaktura-industria	14.360	11.892	-17,2
Industria	14.405	11.943	-17,1
Energia elektrikoaren hornidura, gasa, lurrina eta aire girotua	206	179	-13,1
Ur-hornidura; saneamendu-jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	273	345	26,4
Eraikuntza	33.679	21.412	-36,4
Zerbitzuak	153.530	136.506	-11,1
• Merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	49.268	42.519	-13,7
• Garraioa eta biltegiatzea	14.403	11.469	-20,4
• Ostalaritza	15.167	14.088	-7,1
• Informazioa eta komunikazioak	3.538	3.173	-10,3
• Finantza- eta aseguru-jarduerak	5.239	5.031	-4,0
• Higiezin jarduerak	6.134	2.960	-51,7
• Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	22.180	21.614	-2,6
• Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	8.339	6.384	-23,4
• Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza	986	1.168	18,5
• Hezkuntza	5.323	5.757	8,2
• Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	8.901	9.780	9,9
• Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	3.672	3.440	-6,3
• Bestelako zerbitzuak	10.380	9.123	-12,1
Guztira	202.093	176.879	-12,5

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat

EAEko establezimenduen datu demografikoek erakusten dutenez, 2009 eta 2014 artean alta kopurua (85.232 alta metatu) txikiago da baja egin duten establezimenduen baina (118.921 baja metatu). Saldo garbi negatiboa da horren emaitza. Zehazki, zenbatespenen arabera, 2009an zeuden 1.000 establezimendutik 167 galdu dira 2009 eta 2014 artean.

Jarduera-sektoreen arabera, saldo are handiagoak hauteman daitezke higiezin jardueren artean (-% 477,5), eraikuntzan (-% 397,5), garraioan eta biltegiatzean (-% 221,7), administrazio-jardueretan eta zerbitzu osagarrietan (-% 190,0) eta manufaktura-industrian (-% 181,3).


2.22. grafikoa 2009-2014 aldiko establezimenduen saldo garbia (1.000 establezimenduko) jarduera-sektorearen arabera



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerranda (JEGID), Eustat

Hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan, manufaktura-industrian eta eraikuntzan 2009 eta 2014 artean izan den establezimendu-galera batez besteko orokorra baino handiagoa da ia enplegu-tarte gutxietan.

2.23. grafikoa 2009-2014 aldiko establezimenduen saldo garbia enplegu-tamainaren arabera (establezimenduen %)



Iturria: Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.

2.4. Aldaketak enpleguaren ezaugarrietan

Krisi ekonomikoak aldatu egin ditu enpleguaren berezko ezaugarri batzuk ere. Ondoren aztertuko dira EAEko lanbide-egoera, enplegu publikoa eta pribatua, lanaren behin-behinekotasuna, lanaldi partzialeko lana eta soldata-sarreraren maila bezalako gaiak.

a) Krisiak bereziki eragin die autonomoei eta kooperatibistei

Krisiak lanbide-egoera guztiei eragin die, baina ez intentsitate berarekin. Norberaren konturako langileen artean, soldatako langilerik gabeko enpresaburuaren artean eta kooperatibetako kideen artean izan diren enplegu-galera handien ondorioz, handitu egin da termino erlatiboetan soldatako biztanleria. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, 2008 eta 2013 artean % 23 murriztu da enpresaburuaren, profesional autonomoen eta kooperatibisten kopurua. Soldatako biztanleria % 11 uzkurdu da aldi horretan bertan.


2.10. taula EAEko biztanleria okupatuaren lanbide-egoeraren bilakaera

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko hazkunde- tasa (%)	2007 (kopurua)	2002-2007ko hazkunde- tasa (%)
Enpresaburuak, autonomoak eta kooperatibistak	277.000	296.700	-23,0	391.100	12,5
Soldatakoak	726.300	724.100	-11,0	802.100	11,6
Enpresan edo familia-negozioan laguntzen	600	1.900	-71,6	6.400	-25,6
Beste egoera bat	200	200	-50,0	300	-61,3
GUZTIRA	865.300	873.600	-13,5	1.001.100	11,5

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Langile autonomoen eta kooperatibisten galeren ondorioz, 2014an soldatako biztanleriak 4 pertsona okupatutik 3 ordezkatzeko (% 72) EAEn: % 59 sektore pribatuko soldatako biztanleria da eta % 13 sektore publikokoa. Kopuru horietatik oso urrun geratzen dira norberaren konturako langileak (% 14). Bestalde, soldatako langilerik gabeko enpresaburuak eta enplegatzaileak biztanleria okupatu osoaren % 9 eta % 4 ordezkatzeko dute, hurrenez hurren.

2.24. grafikoa Biztanleria okupatuaren banaketa lanbide-egoeraren arabera (2007-2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

b) Sektore pribatua da, alde handiarekin, enplegu-galerarik handiena jasaten duena

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek erakusten dutenez, euskal sektore publikoko soldatako biztanleriak bakarrik lortu du 2008-2013 aldirian enplegua mantentzea, eta sektore pribatua da krisi ekonomikoaren eragin handiena jasan duena. Enplegu pribatuko soldatako biztanleria % 14 jaitsi da (-82.500 pertsona) eta sektore publikoan okupatutako biztanleria, aldiz, % 3 hazi da (+4.500 pertsona) 2008-2013 aldirian⁵. 2014an, alabaina, enplegu publikoak galera txikia izan du eta sektore pribatuko soldatako biztanleriak gora egin du.

⁵ Eustaten Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datuek jasotzen dute soldatako biztanleriaren -% 1,6ko uzkurdua sektore publikoan eta -% 15,5ekoa sektore pribatuan 2008 eta 2013 artean.

2.25. grafikoa Sektore publikoko eta pribatuko soldatako biztanleriaren bilakaera (2002-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

2.11. taula EAEko sektore publikoko eta sektore pribatuko soldatako biztanleriaren bilakaera

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
Sektore publikoa	135.500	139.000	2,9	134.500	8,5
Sektore pribatua	590.800	585.100	-13,8	667.600	12,2
Soldatakoak guztira	726.300	724.100	-11,0	802.100	11,6

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

c) Aldi baterako enpleguaren gainera krisiaren inpaktua eta lanaldi partzialeko lanaren goranzko joera

Euskal ekonomiak azken hamarkadan sortu duen enplegu mota ulertzeko orduan kontuan izan behar diren beste bi alderdi kontratuaren iraupen izendatuari eta lanaldi motari buruzkoak dira. Krisi ekonomikoak neurri handiagoan eragin die aldi baterako kontratuei eta lanaldi osoko enpleguari iraupen mugagabeko eta lanaldi partzialeko kontratuei baino.


2.12. taula EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera kontratu motaren eta lanaldi motaren arabera (2002-2014)

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
Kontratu mota					
▪ Iraupen mugagabekoa	569.700	573.300	-2,3	571.900	14,8
▪ Aldi baterakoa	156.600	150.800	-33,7	230.200	4,4
▪ Soldatakoak guztira	726.300	724.100	-11,0	802.100	11,6
Lanaldi mota					
▪ Lanaldi osoa	714.200	728.100	-16,8	858.400	6,2
▪ Lanaldi partziala	151.100	145.500	7,6	142.800	59,8
▪ Okupatuak guztira	865.300	873.600	-13,5	1.001.100	11,5

Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Aldi baterako kontratuak dituzten pertsona okupatuak dira enplegua neurri handienez galdu dutenak, %34ko beherakada izan baitute 2008 eta 2013 artean; kontratu mugagabeak dituen biztanleriak, aldiz, %2 egin du behera. Hala, izaera mugagabeko kontratazioak areagotu egin du bere nagusitasuna, soldatako biztanleriaren %78 hartzen baitu, eta aldi baterako kontratuak dituen biztanleria %22 besterik ez da (2007an %29).


2.26. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren aldi baterako enpleguaren bilakaera (2007-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Konparatze aldera, Espainian okupatutako lau pertsonatik batek aldi baterako kontratua du. Proporzio hori EAEkoa baino handixeagoa da eta oso urrun dago Europako herrialdeetako batez bestekotik, horien artean behin-behinekotasuna %14koa da-eta.


2.27. grafikoa Europako, Espainiako eta EAEko soldatako biztanleriaren banaketa kontratu motaren arabera (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta EUROSTAT.

Dena dela, behin-behinekotasunaren tasak (aldi baterako kontratua duen soldatako biztanleriaren %) portaera desberdina izan du sektore publikoan eta sektore pribatuan eta emakumeen eta gizonen artean. Behin-behinekotasuna handiagoa da, oraindik ere, sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta eragin handiagoa du soldatako emakumeen artean gizonen artean baino, nahiz eta azken urteotan tasek hurbiltzeko joera izan duten.


2.28. grafikoa Behin-behinekotasunaren tasaren bilakaera sektore publiko eta pribatuaren eta generoaren arabera (2002-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta


Lanaldi motari dagokionez, ikus daiteke lanaldi partzialeko enpleguak gora egin duela, lanaldi osoko kontratazioaren aldean. Biztanleria okupatuaren % 17k lanaldi partzialean lan egiten du; proportzio hori % 14koa zen 2007an. Lanaldi murriztuak askoz ere zabaldiago daude emakumeen artean (emakumeen hiru enplegutik bat, hots, % 31), eta joera goranzkoa da argi eta garbi. Gizonezkoen artean, aldiz, enpleguen % 6ra ere ez dira iristen.

2.29. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren lanaldi motaren bilakaera (2007-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta


2.30. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren lanaldi partzialaren bilakaera generoaren arabera (2002-2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta

EAE n dagoen lanaldi partziala Espainian dagoena baino handiagoa da (% 15,9), baina Europakotik oso urrun dago oraindik ere (% 20,5).


2.31. grafikoa Biztanleria okupatuaren banaketa kontratu motaren arabera Europan, Espainian eta EAEn (2014)



Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta EUROSTAT

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) jakinarazitako kontratuen analisiari esker, lan-merkatutarako sarreren fluxua azter daiteke, kontratu mota eta lanaldia ere kontuan hartuta. Hala, lehenik eta behin egiazta daiteke 2014. urtearen bereizgarri dela kontratu kopuruak izan duen gorakada, bai izaera mugagabeko kontratuena (+% 18 2013koen aldean) eta bai aldi baterako izaerakoena (+% 11). Dena dela, 2014ko kontratuen % 7 besterik ez dira izaera mugagabeak; horrek esan nahi du mantendu egiten direla egun dauden behin-behinekotasun maila handiak.

2.32. grafikoa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) jakinarazitako EAEko kontratuen banaketa kontratuaren iraupenaren arabera (2014)



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE).


Denbora-ikuspegi zabalago batek erakusten duenez, krisialdi ekonomikoak iraun duen bitartean kontratu mugagabe berriek nabarmen egin dute behera (-% 37), aldi baterakoek baino neurri handiagoan (-% 16). Eta atzerakada are nabarmenagoa izan dute egin diren lanaldi osoko kontratuek (beherakada % 50ekoa izan da kontratu mugagabeen kasuan eta % 25ekoa aldi baterako kontratuen kasuan). Aldi horretan bertan, lanaldi partzialeko kontratuen joera positiboa izan da, % 2,6 egin baitute gora izaera mugagabeko kontratazioen kasuan eta % 5 aldi baterako kontratuen kasuan.

2.13. taula Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) jakinarazitako EAEko kontratuen bilakaera kontratuaren iraupenaren arabera (2002-2014)

	2014 (kopurua)	2008-2013		2002-2007	
		2013 (kopurua)	2008-2013ko aldakuntzaren %	2007 (kopurua)	2002-2007ko aldakuntzaren %
Jakinarazitako kontratuak					
Mugagabeak guztira	52.443	44.594	-37,4	76.885	36,4
• Lanaldi osoa	31.168	25.878	-49,9	56.338	32,1
• Lanaldi partziala	19.478	16.843	2,6	17.462	27,2
• Aldizkako finkoa	1.797	1.873	-39,9	3.085	--
Aldi baterakoak guztira	706.706	634.351	-15,6	792.321	21,6
• Lanaldi osoa	420.881	380.761	-25,4	547.652	18,0
• Lanaldi partziala	283.608	252.100	5,3	242.668	36,8
Prestakuntzakoak	2.217	1.490	-14,7	2.001	-80,8
EAE GUZTIRA	759.149	678.945	-17,5	869.206	22,8

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE).

2.33. grafikoa Kontratuak jakinaraztean lanaldi partzialak izan duen garrantziaren bilakaera (2002-2014)




Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE).

d) Industriak soldata-maila handiagoa mantentzen du

Arreta soldata-baldintzetan jarrita, 2012ko Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkestaren arabera 26.536 eurokoa da Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko soldata, Espainiako batez bestekoa (22.726 euro batez beste) baino % 17 handiagoa. Izan ere, urteko batez besteko soldata handiena duen autonomia-erkidegoa izaten jarraitzen du EAEk. 2008 eta 2012 artean, langileko batez besteko irabaziaren igoera % 4 izendatua izan da EAEn, eta ez da alderik izan estatu osoan izandako batez besteko igoerarekin. Dena den, igoera hori kontu handiz interpretatu behar da, enplegu-galera handiko une batean gertatu baita, biztanleria okupatuaren osieran aldaketak izan direnean, eta aldaketa horiek eragin garrantzitsua dute batez besteko kopuruetan.

Aldi horretan bertan, soldata-igoera handiagoa izan da gizonen artean (+%6) emakumeen artean (+%2,5) baino. Horrenbestez, generoaren arabera soldata-aldea areagotu egin da. Dena dela, alde hori beste lan-aldagai batzuen arabera ñabartu edo argitu behar da, hala nola okupazioa, lanaldi mota edo kontratua kontuan hartuta, besteak beste.

2.34. grafikoa EAEko soldata-bilakaera (langileko urteko batez besteko irabazia) generoaren arabera (2008-2012)




Iturria: INE, Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta.

Soldataren ikuspuntutik, azpimarratu beharra dago industriak mantentzen duen soldata-maila (30.616 euro batez beste) handiagoa dela eraikuntzaren sektorean (25.875 euro) edo zerbitzu-jardueretan (25.128 euro) erregistratutakoa baino. Eta bilakaerari dagokionez, 2008 eta 2012 artean langileko batez besteko irabazia %6,8 igo da industriaren kasuan, %2 eraikuntzan eta %3,6 zerbitzuetan.

Datu nazionalen arabera, maila sektorialean urteko batez besteko soldatarik handiena duen jarduera ekonomikoa energia elektrikoaren hornidura, gasa, lurruna eta aire girotua da, eta finantza- eta aseguru-jarduerak dira hurrengoak. Aitzitik, ostalaritza eta administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak dira urteko batez besteko soldatarik txikiena lortzen dutenak.


Bestalde, komeni da gogoratzea Estatuko batz besteko sarrera garbien soldata (15.405 euro 2014an) Europako batz bestekoa baino baxuagoa dela (18.060 euro batez beste EB-18an, 21.357 euro garbi batez beste EB-15an). Gainera, iturri berak (Errenta eta Bizitza Baldintzei buruzko Inkesta, Eurostat) azaltzen du Espainian 2009 eta 2014 aldian dirusarrera maila gutxitu den bitartean, Europa osoan, berriz, epe berean bilakaera positiboa izan da.

2.35. grafikoa EAEko soldata-bilakaera (langileko urteko batez besteko irabazia) jarduera-sektorearen arabera (2008-2012)



Iturria: INE, Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta.

2.36. grafikoa EAEko industria-sektoreko eta zerbitzu-sektoreko emakumeen eta gizonen soldata-bilakaera (2008-2012)



Iturria: INE, Soldata Egiturari buruzko Urteko Inkesta.


e) Zuzendaritzako langileen, langile teknikoaren eta administrazio-langileen enpleguaren igoera

EAEko enplegu motaren bilakaera zer-nolako izan den ikertzeko, biztanleria okupatuak egiten dituen zereginak zuzenean erakusten dituzten okupazio motak analizatu dira azkenik. Lan Merkatuaren Zentsuaren datuen arabera, 2013an 16-64 urteko biztanleria okupatuaren % 33k zuzendaritzako langilearen, langile teknikoaren edo administrazio-langilearen lanpostua betetzen zuten. Krisiaren ondoren gora egin du proportzio horrek eta, gainera, 2007 eta 2013 artean goranzko joerari jarraitu dion okupazio-talde bakarra izan da (+43.000 pertsona, +% 10).

Bestalde, % 27 langile kualifikatuak edo makineta langileak dira. Kolektibo horrek antzeko pisua mantendu du 2007 eta 2013 artean, nahiz eta kide kopurua nabarmen murriztu den (-91.500

pertsona, -% 20). Nabarmentzekoa da, halaber, langile kualifikatu gabeen kopuruak izan duen beherakada handia (-% 29,8, -36.000 pertsona).

2.37. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera okupazio-mailaren arabera (2007-2013)



Iturria: Lan Merkatuaren Zentsua. Eustat.

2.14. taula 16-64 urteko biztanleria okupatuaren bilakaera okupazioaren arabera (2007-2013)

	2007	2013	2007-2013ko aldakuntzaren %
Zuzendaritzako langileak, langile teknikoak eta administrazio-langileak	400.423	443.541	10,8
Beste langile batzuk	570.534	442.715	-22,4
Langile kualifikatua eta makinetako langilea	448.934	357.365	-20,4
Langile kualifikatu gabea eta beste batzuk	121.600	85.350	-29,8
Guztira	970.957	886.256	-13,8

Iturria: Lan Merkatuaren Zentsua. Eustat

Genero ikuspegitik, nabaritzen da zuzendaritza eginkizunetan emakume kopurua gizonekoena baino baxuagoa izaten jarraitzen dela. Eustat-en lan merkatuaren erroldatik datorren informazioaren arabera, emakumeak zuzendaritza maila profesionalean enplegatutako langileriaren %33a dira bakarrik. Gainera, EAEn zuzendaritzan aritzen diren emakumeen kopuru absolutua oso urria dela ikus dezakegu, enplegatutako emakumeen %2a, ehuneko hori gizonen artean %4koa delarik (INERen 2014ko datuen arabera).

3. PRESTAKUNTZA ETA
KUALIFIKAZIOEN HOBEKUNTZA,
ENPLEGU IRAUNKORRERAKO
OINARRI

Kapitulu honen helburua da, oro har, euskal biztanleriaren eta, bereziki, biztanleria okupatuaren kualifikazio-maila handia argitzen ahalegintzea, etorkizun hurbilean enpleguaren iraunkortasuna ziurtatzeko oinarritzko elementuak baitira. Gero, Lanbide Heziketan matrikulatutako biztanleriaren bilakaerari buruzko informazioa ematen da eta lanbide-arlo nagusiei eta horien okupazio-mailari buruzko ikerketa egiten da. Ondoren, unibertsitate-ikasketetan jartzen da arreta, aukeratutako alor zientifikoa kontuan hartuta, eta bideratutako enplegu-maila onenak sortzen dituzten esparruak azaltzen dira. Blokea amaitzeko, labur-labur aipatzen da etengabeko prestakuntza, lehiakortasuna hobetzeko tresna saihetsezina da-eta.


3.1. Euskal biztanleriaren prestakuntza-maila handiak

a) Bilakaera positiboa biztanleriaren prestakuntza-mailetan

2013an EAEn gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak amaituta zituen 10 urtetik gorako biztanleria % 62 zen, gutxienez lanbide-ikasketak eginda zituztenak % 17 ziren eta unibertsitate-ikasketak egin zituztenen proportzioa % 24ra iristen zen.

Kopuru horiek euskal biztanleriaren kualifikazio-profilak azken hamarkadan izan duen bilakaera oso positiboaren emaitza dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.


3.1. grafikoa EAEn 10 urteko eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera eskolatzeko-mailaren arabera (2001-2013)



Iturria: Hezkuntzari buruzko udal-estatistika, Eustat.

2014an 20-24 urteko biztanleriaren % 87k gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu ditu. Biztanleria-tasa hori Espainian erregistratutakoa (% 66) baino askoz ere handiagoa da eta UE-28ko batez bestekoa (% 82) ere gainditzen du.


3.2. grafikoa EAEn, Espainian eta Europan gutxienez bigarren hezkuntzako ikasketak gainditu dituen 20-24 urteko biztanleriaren proportzioa (2014)



Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat eta Eurostat.

Arreta hirugarren hezkuntzako ikasketetan jarri gero, EAEk gainditu egiten du 2020 Estrategian ezarritako helburua, hots, gutxienez 30-34 urteko pertsonen % 40k ikasketa-maila hori amaitu izatekoa. Izan ere, 2013an hautemandako proportzioa % 44tik gorakoa zen jada.

3.3. grafikoa 30-34 urteko biztanleriaren artean hirugarren hezkuntzako ikasketak dituen biztanleria-tasaren bilakaera (2000-2013)




Iturria: Eustat eta Eurostat.

b) Bitarteko kualifikazio-mailen ordezkari-tza urria

Euskal Autonomia Erkidegoak, hortaz, hirugarren hezkuntzako ikasketen presentzia oso adierazgarria du, baina, aitzitik, bitarteko kualifikazioen ordezkari-tza urria da, eta elementu horrek argi eta garbi bereizten du Europatik.

Hain zuzen ere, kualifikazio-egiturak esparru geografikoen arabera konparatzen baditugu, egiazta daiteke euskal egitura deskonpentsatuta dagoela, biztanleria aktiboaren kontzentrazio handia baitu prestakuntza-ibilbidearen bi muturretan. 2010eko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 25-64 urteko bi pertsona okupatutik batek goi-mailako kualifikazioa du eta behe-mailako kualifikazioa duen biztanleria ugariagoa da erdi-mailako kualifikazioa duena baino.

3.4. grafikoa Europako (2020rako UE27 eredu) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (2010) kualifikazioen piramidearen konparazioa



INSNko mailak (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua):

- 0-2: Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBH
- 3-4: Batxilergoa, erdi-mailako heziketa-zikloa eta HLKPak
- 5-6: Goi-mailako irakaskuntza (lehen zikloa eta bigarren zikloa)

Iturria: Lanbide Heziketako III. Euskal Plana.

3.2. Biztanleria okupatu gero eta kualifikatuagoa

a) Biztanleria okupatuaren goi-mailako prestakuntza

Eustaten 2013ko Lan Merkatuaren Zentsuaren datuen arabera, egiazta daiteke biztanleria okupatuaren eskolatzeta-maila biztanleria orokorrarena baino handiagoa dela, eta unibertsitate-ikasketen eta lanbide-ikasketen presentzia handiagoa dutela. Izan ere, biztanleria okupatuaren % 65

eskolatze-maila horiei dagokie eta biztanleria langabearen artean hautemandako proportzioa % 52 da eta ez-aktiboarena % 40.

Azpimarratzeko moduko beste alderdi bat da emakume okupatuek gizon okupatuek baino kualifikazio-maila handiagoa dutela: emakumeen % 42k unibertsitate-ikasketak dituzte eta gizonen % 28k besterik ez; lanbide-ikasketek, alabaina, nagusitasun handiagoa dute gizonen artean, emakumeek baino ia hamar puntu gehiago dituzte-eta: % 35 eta % 26, hurrenez hurren.

Langabeen kolektiboan ere egiazta daiteke emakumeen artean kualifikazio-maila handiagoa dela, eta alde nabarmenarekin gainera. Kasu honetan lanbide-ikasketen presentzia parekatu egiten da. Emakumea berriki samar lan-merkaturatu izanak eta jarduera- eta enplegu-maila txikiagoak izateak argi litzakete datu horiek.

3.1. taula EAEko biztanleriaren eskolatze-maila adinaren, generoaren eta jarduerarekiko erlazioaren arabera (2013)

	Lehen hezkuntzako ikasketak edo gutxiago	Bigarren hezkuntzako ikasketak	Lanbide-ikasketak	Unibertsitate-ikasketak	Guztira
Biztanleria okupatua (16-64 urte)	20,9	14,5	30,5	34,1	100
▪ Gizonak	23,3	14,4	34,7	27,5	100
▪ Emakumeak	18,1	14,6	25,6	41,7	100
Biztanleria ez-aktiboa (16-64 urte)	32,5	27,4	18,9	21,1	100
▪ Gizonak	24,9	29,5	22,5	23,1	100
▪ Emakumeak	37,7	26,0	16,6	19,8	100
Biztanleria langabea (16-64 urte)	25,6	22,3	28,7	23,4	100
▪ Gizonak	30,5	23,1	28,6	17,8	100
▪ Emakumeak	20,2	21,4	28,8	29,7	100


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (eskaintza)

b) Biztanleria okupatuaren prestakuntza-maila nabarmen hazi da eta aukera handiagoak sortu ditu

Laurogeita hamarreko hamarkadan, prestakuntza-mailaren araberrako enpleguaren egitura funtsean aldatu zen EAEn kualifikazio-prozesu garrantzitsuen ondorioz.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasketarik ez duen edo lehen hezkuntzako ikasketak dituen biztanleria nabarmen uzkuritu da, batxilergoko ikasketak dituen biztanleria egonkortu egin da eta gora egin dute lanbide-heziketak eta unibertsitate-ikasketak.


3.5. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera amaitutako ikasketa-mailaren arabera (1996-2013)



Iturria: IVIE (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas), INEren datuak abiapuntu hartuta.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, EAEko bi pertsona okupatutik batek goi-mailako ikasketak ditu (% 55). Proporzio hori oso handia da lurralde nazionalarekin konparatzen badugu (% 42). Bestalde, % 21ek bigarren hezkuntzako bigarren etapa erdietsi dute (% 10ek orientazio orokorarekin eta % 11k lanbide-orientazioarekin). Kopuru horiek 2008az geroztik erregistratutakoen oso antzekoak dira.

3.6. grafikoa Espainiako eta EAEko biztanleria okupatuaren banaketa erdietsitako prestakuntza-mailaren arabera (2014)




Iturria: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

3.3. Alde handiak kualifikazioetan sektoreen arabera

Kualifikazio-maila oso desberdina da jarduera-sektorearen arabera. Nekazaritzan eta eraikuntzaren sektorean oinarrizko batxilerra duen biztanleria da ugariena; industrian, aldiz, goi-mailako lanbide-heziketa da nagusi. Merkatuko zerbitzuen sektorea da heterogeneoa, biztanle askok baitituzte oinarrizko batxilerreko ikasketak eta goi-mailako ikasketak, eta salmentara bideratuta ez dauden zerbitzuen jarduera-adarrean goi-mailako ikasketak dituzten biztanleak dira nagusi.


3.7. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren amaitutako ikasketa-maila eta jarduera-sektorea (1996-2013)



Iturria: IVIE (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas), INEren datuak abiapuntu hartuta.

Bilakaeraren ikuspuntutik begiratuta, nabarmendu beharra dago industria-sektorearen barruan lanbide-heziketak gero eta pisu handiagoa duela eta gaur egun bi lanpostutik bat bideratzera iritsi dela, azpimarragarria izanik goi-mailako lanbide-heziketaren ekarpena.


3.8. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren bilakaera sektoreen arabera eta amaitutako ikasketa-mailaren arabera (1996-2013)



Iturria: IVIE (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas), INEren datuak abiapuntu hartuta.

Nekazaritzaren eta eraikuntzaren sektoreetan okupatutako biztanleriak gutxi gorabehera 11 urtez egin ditu ikasketak batez beste. Industrian eta salmentara bideratutako zerbitzuen sektorean lanean ari den biztanleriaren kasuan batez bestekoa 13 urtekoa da. Ikasketen iraupena 15 urteraino igotzen da, batez beste, ez-merkatuko zerbitzuetan okupatutako biztanleriaren artean.

3.9. grafikoa EAEko biztanleria okupatuaren batez besteko ikasketa-urteen bilakaera jardueradarraren arabera (1977-2013)



Iturria: IVIE (Instituto Valenciano de Investigaciones Económicas), INEren datuak abiapuntu hartuta.

3.4. Lanbide Heziketaren hedapena


a) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketan matrikulatutako pertsona kopuruaren igoera garrantzitsua

Atal honen asmoa da Lanbide Heziketako matrikulazioen eta titulazioen bilakaera analizatzea, dauden lanbide-arloak kontuan hartuta eta lan-munduan txertatzea zenbateraino lortzen duten baloratuta.

Informazio hori garrantzi handikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen ari den trebetasuna (*expertise*) eta lanbide-profiletan ikus daitezkeen joerak baloratzeari begira. Hori guztia interesgarria da prestakuntza-eskaintzaren eta -eskariaren arteko egokitze-mailaren arazoari aurre egiterakoan, aldaketa teknologiko lasterrak eta ekonomiaren globalizazio gero eta handiagoa bereizgarri dituen testuinguru batean, izan ere bi faktore horiek baitira produkzio-antolakuntza eta eskatutako trebetasunak eta konpetentziak sakonki transformatzen ari direnak.

Estatu osoan gertatzen den bezalaxe, EAEn ere argi eta garbi nagusitzen da batxilergoaren aukera (% 68) lanbide-heziketaren gainetik (% 32) derrigorrezko irakaskuntzaren etapa amaitu ondoren ikasketak egiten jarraitzen duten ikasleen artean, nahiz eta ibilbideak erakusten duen joera pixkanaka baina etengabe nolabaiteko oreka berreskuratzekoa dela.


3.10. grafikoa Batxilergoan eta LHko erdi-mailetan matrikulatutako ikasle guztietatik LHko erdi-mailak aukeratzen dituzten ikasleen ehunekoaren bilakaera (2001/2002-2013/2014)



Iturria: Eustat

Arreta lanbide-heziketako matrikulazioen bilakaeran jarriz gero, egiazta daiteke 2013-2014 ikasturtean 33.399 pertsona matrikulatu zirela (% 40 erdi-mailako ikasketetan eta % 60 goi-mailako ikasketetan). Kopuru hori etengabe ari da gora egiten 2007-2008 ikasturteaz geroztik, eta hori bereziki adierazgarria da igoera eskola-adinean dauden taldeen tamaina murrizten ari den testuinguru demografikoan gertatzen dela kontuan hartzen badugu.


3.11. grafikoa EAEko lanbide-heziketako ikasleen bilakaera (2001/2002-2013/2014)



Iturria: Eustat

Lanbide-arlo garrantzitsuenak, erdi-mailako LHaren kasuan, honako hauek dira: Osasungintza, Fabrikazio mekanikoa, Elektrizitatea eta elektronika, Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak eta Administrazioa eta kudeaketa. Eta goi-mailako LHaren kasuan, lanbide-arlo hauek nabarmentzen dira: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak, Fabrikazio mekanikoa, Elektrizitatea eta elektronika eta Administrazioa eta kudeaketa.

3.12. grafikoa LHko lanbide-erlo nagusietan matrikulatutako ikasleak (2013-2014 ikasturtea)




Iturria: Eustat.

b) *Krisiak areagotu egin ditu lan-munduan txertatzeko zailtasunak LHko lanbide-arlo gehienentzat*

Lanbide-heziketatik datorren biztanleriaren okupazio-tasa ere uzkurtu egin da krisialdiaren urteetan: 2007an hiru urte lehenago titulua lortu zutenen okupazio-tasa % 88koa zen eta orain % 61ekoa besterik ez da. Lanbide-arlo batzuek, alabaina, erresistentzia handiagoa erakutsi dute.


3.13. grafikoa EAEko lanbide-heziketako tituludunen okupazio-tasaren bilakaera (2002-2012)



(*) Aipatutako urte bakoitza baino 3 urte lehenago titulua atera zutenen okupazio-tasa
Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.


Gaur egun (2012ko zifrak) lana errazago aurkitzeko aukera eskaintzen duten ikasketak lanbide-arlo hauei dagozkienak dira: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, Instalatze- eta mantentze-lanak, Nekazaritza eta Fabrikazio mekanikoa. Izan ere, 2008az geroztik okupazio-tasa hobetu duten lanbide-arlo bakarrak dira.

3.14. grafikoa Lanbide-arloen sailkapena okupazio-tasaren arabera (2012)



(*) 3 urte lehenago titulua atera zutenen okupazio-tasa
Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.

3.15. grafikoa LHko tituludunen okupazio-tasaren bilakaera lanbide-arloaren arabera (1999-2012)



(*) Aipatutako urte bakoitza baino 3 urte lehenago titulua atera zutenen okupazio-tasa
Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.

LHko tituludunen lanbide motari dagokionez, 2012ko zifren arabera % 32 jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzuetako langileak eta saltzaileak dira. Izan ere, lanbide horiek portaera hedakorra izan dute 2007az geroztik krisialdiak iraun duen urteetan. Bestalde, LHko ikasketak dituzten biztanleen % 17k teknikarien edo laguntza emateko profesionalen lanpostuak betetzen dituzte eta % 14 artisauen eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile kualifikatuen (instalazio eta makinaren operadoreak izan ezik) lanbideei dagozkie.


3.2. taula LHko promozioek izan dituzten lanbideen bilakaera (2003-2012)

Lanbideen Sailkapen Nazionala	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Enpresetako eta herri-administrazioetako zuzendaritza	0,2	0,5	0,3	0,5	0,9	0,9	1,3	1,4	2,3	1,6
2. Zientzia eta adimen arloetako teknikariak eta profesionalak	2,2	1,8	1,3	1,4	1,3	1,5	2	2	2	2,1
3. Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	18,9	19,2	17,2	21,7	23,6	23,4	24,7	22	18,4	17,2
4. Kontabilitateko eta administrazioetako langileak, eta bulegoko beste langile batzuk	13,8	14,4	14,2	15,6	13,2	15,4	14,2	13,9	13,4	12,3
5. Jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzuetako langileak eta saltzaileak	20,1	19,7	23,6	19,3	20,2	21,6	27,2	26,2	28	32,4
6. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sektoreetako langile kualifikatuak	0,4	0,7	0,6	0,7	0,6	0,6	0,5	0,4	0,3	0,7
7. Artisauak eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (instalazio eta makinaren operadoreak izan ezik)	21,1	20,9	20,2	22,3	21,3	20,5	17,3	16	13,5	14,1
8. Instalazio eta makinetako operadoreak eta muntatzaileak	19,4	15,4	18,2	14,2	15,5	11,6	6,5	10,7	14,8	12,2
9. Kualifikatu gabeko langileak	3,9	7,3	4,4	4,2	3,4	4,5	6,2	7,3	7,3	7,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

(*) Aipatutako urte bakoitza baino 3 urte lehenago titulua atera zutenei buruzko datuak

Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.

3.16. grafikoa Lanean ari diren LHko promozioek izan dituzten lanbideen bilakaera (Lanbideen Sailkapen Nazionala) (2003-2012)



(*) Aipatutako urte bakoitza baino 3 urte lehenago titulua atera zutenei buruzko batez besteko datuak

Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.

Erantsitako taulan zehazten den lanbide-taldeen eta lanbide-arloen araberako bilakaeran ikus daiteke bideratutako enplegu-indizea txikiagoa dela, hots, maila txikiagoko lanpostuetarantz (lanpostu tekniko gutxiago eta kualifikatu gabeko gehiago) edo jasotako prestakuntzarekin erlazionatuta ez dauden lanpostuetarantz mugitu dela enplegua. Horren adibide garbia dira Eraikuntza eta obra zibila, Zurgintza eta altzarigintza edo Komunikazioa, irudia eta soinua lanbide-arloetako titulua duten profesionalak, horien artean argi eta garbi ikus baitaiteke lan kualifikatuen pisuak behera egin duela, ostalaritzako enpleguen edo kualifikaziorik eskatzen ez duten lanen mesedetan. Nabarmentzekoa da, aitzitik, Itsasoko eta arrantzako jarduerak eta Kimika lanbide-arloetako tituludunen artean teknikarien eta laguntza emateko profesionalen lanpostuen pisuak izan duen gorakada.

3.3. taula LHko ikasleek lana aurkitu duten lanbide-taldeen pisua lanbide-arloen arabera (%) (2004-2012)

	1. Enpresetako eta herrizko administrazioetako zuzendaritza		2. Zientzia eta adimen arloetako teknikariak eta profesionalak		3. Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak		4. Kontabilitateko eta administrazioko langileak, eta bulegoko beste langile batzuk		5. Jabetzeetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzu etako langileak eta saltzaileak		6. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sektoreetako langile kualifikatuak		7. Artisauak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (instalazio eta makinaren operadoreak izanez)		8. Instalazio eta makinetako operadoreak eta muntatzaileak		9. Kualifikatu gabeko langileak	
	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012	2004	2012
1. Nekazaritza eta Abere Hazkuntza	3,0	1,7	1,5	6,8	1,5	6,8	4,5	8,5	16,7	18,6	48,5	27,1	6,1	3,4	4,5	5,1	13,6	22,0
2. Itsasoko eta Arrantzako Jarduerak	5,9	3,2		0,0	5,9	25,8		9,7		9,7	5,9	0,0	29,4	32,3	47,1	16,1	5,9	3,2
3. Jarduera Fisikoak eta Kirolak	1,1	0,0	4,3	1,1	54,3	55,6	4,3	2,2	20,7	25,6		0,0	2,2	3,3	4,3	5,6	8,7	6,7
4. Administrazioa	0,5	1,2	0,6	2,7	8,5	4,6	64,6	55,9	14,9	28,0		0,0	1,7	1,0	2,8	1,7	6,4	4,9
5. Arte Grafikoak	1,8	0,0	3,6	0,0	32,4	33,3	4,5	9,3	23,4	33,3		0,0	17,1	11,1	9,0	7,4	8,1	5,6
6. Merkataritza eta Marketina	0,6	3,6	1,3	2,9	15,1	13,7	34,7	34,5	33,1	30,9	0,3	0,0	1,3	0,7	4,2	4,3	9,3	9,4
7. Komunikazioa, Irdia eta Soinua		0,0	10,3	5,7	39,1	28,3	9,2	3,8	21,8	41,5		0,0	6,9	5,7	2,3	5,7	10,3	9,4
8. Eraikuntza eta Obra Zibila		2,8	1,3	1,4	46,2	25,4	4,5	8,5	5,8	22,5		0,0	28,8	12,7	5,8	1,4	7,7	25,4
9. Elektrizitatea eta Elektronika	0,2	0,3	0,7	1,8	13,1	14,8	4,5	4,0	3,3	8,3	0,1	0,5	52,5	38,8	17,5	20,8	8,0	11,0
10. Fabrikazio Mekanikoa	0,3	0,5	0,8	0,7	16,7	16,3	1,3	4,5	2,2	8,1	0,3	0,7	22,9	14,1	47,2	44,5	8,2	10,5
11. Ostalaritza		3,0	3,1	0,7	0,6	0,7	2,5	2,2	79,4	86,7		0,0	7,5	0,0	1,9	3,0	5,0	3,7
12. Turismoa	1,7	0,0	2,5	3,2	28,0	6,5	20,3	48,4	39,8	38,7		0,0	0,8	0,0	2,5	0,0	4,2	3,2
13. Elikagaien Industriak		0,0		0,0	27,3	18,8		6,3	9,1	43,8		0,0	9,1	6,3	27,3	0,0	27,3	25,0
14. Informatika	1,3	1,4	3,8	4,7	40,0	43,9	16,0	9,5	12,2	15,5		0,0	11,6	7,4	5,8	8,8	9,2	8,8
15. Zurgintza eta Altzarigintza	1,3	0,0	2,5	5,9	3,8	0,0	6,3	0,0	2,5	17,6		0,0	46,3	17,6	30,0	35,3	7,5	23,5
16. Ibilgailuen Mantentzea		2,1		1,0	3,7	5,2	3,3	4,7	2,2	11,0	0,4	1,0	72,8	50,8	8,1	12,0	9,6	12,0
17. Produkzio Zerbitzua eta Mantentzea		1,0		1,0	4,4	7,9	1,5	2,7	2,7	13,1	0,3	0,3	52,7	37,8	28,7	22,7	9,5	13,4
18. Kimika		0,0	2,0	2,9	35,1	55,9	12,7	5,9	22,4	19,1	0,5	1,5	6,3	1,5	9,3	8,8	11,7	4,4
19. Osasungintza		1,5	1,5	1,1	21,2	17,5	9,9	6,0	55,7	63,8	0,6	0,0	1,1	1,3	1,9	1,1	8,0	7,8
20. Gizarte eta Kultura Zerbitzuak	0,3	0,9	6,8	6,2	37,3	28,4	4,8	8,8	43,5	45,9		0,0	1,0	0,6	1,7	2,3	4,5	7,0
21. Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza		9,1	9,1	9,1	18,2	9,1	9,1	18,2	27,3	18,2		0,0	27,3	18,2		9,1	9,1	9,1
22. Energia eta Ura		0,0		3,4		24,1		0,0		13,8		0,0		27,6		17,2		13,8
GUZTIRA	0,5	1,6	1,8	2,1	19,2	17,2	14,4	12,3	19,7	32,4	0,7	0,7	20,5	14,1	15,4	12,2	7,3	7,6

(*) Aipatutako urte bakoitza baino 3 urte lehenago lanbide-arlo bakoitzean titulua atera zutenen lanbideen ehunekoen banaketa (ehuneko horizontalak)


Iturria: Lanbide, Lanbide-heziketako tituludunak lan-munduan txertatzea.

3.5. Unibertsitate-hezkuntza aldatzen ari da

a) *Unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleen bolumena mantendu egiten da*

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Unibertsitate Estatistikaren datuen arabera, 2014-15 ikasturtean gutxi gorabehera 55.000 pertsona matrikulatu ziren graduiko ikasketetan (49.480 matrikulazio) eta masterretan (5.090 matrikulazio) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan. Unibertsitateko ikasleen zifra globalek egonkor samar jarraitzen dute azken urteetan, graduiko ikasketetako matrikulazioen beherakada txikiaren eta masterretako eta graduondoko ikasketetako matrikulazioen etengabeko gorakadaren ondorioz. Graduiko ikasketetan izan den beherakada bilakaera demografikoarekin berarekin erlaziona daiteke. Masterretan izandako igoera, aitzitik, unibertsitate-ikasketen erreformaren zein gazteak lan-munduan txertatzeko zailtasunen eta kualifikazio-maila handiagoak izateko beharraren ondorio dela dirudi.

3.17. grafikoa EAEko unibertsitateko ikasle matrikulatu eta egresatuen bilakaera (2008-2014)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Adierazi beharra dago, halaber, urtean gutxi gorabehera 10.000 pertsonak lortzen dutela unibertsitate-titulua EAEn, eta biztanleria hori lan-merkatuan sartzen dela.

b) Gizarte eta Lege Zientzietan egiten da bi matrikulaziotik bat

Jakintza-arloen arabera, 2013/2014an graduiko ikasketak egiten ari diren unibertsitateko ikasleen % 47,5 Gizarte eta Lege Zientzietan dagozkie eta % 27 Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasketetan matrikulatu dira. Osasun Zientzietan unibertsitateko ikasleen % 12 hartzen dituzte eta Arte eta Giza Zientziak adarrak % 8.

Espainia osoko ikasleekin konparatuz gero, egiazta daiteke ingeniaritzako karrera teknikoek garrantzi handiagoa dutela. Izan ere, ia 14.000 ikasleekin, euskal unibertsitateetan egiten diren lau ikasketatik bat hartzen dute, eta Espainian proportzio hori bostetik batekoa da.

3.4. taula Matrikulatutako ikasleen banaketa jakintza-adarraren arabera (2013-2014)


	Espainia	EAE
Gizarte eta Lege Zientziak	47,0	47,5
Ingeniaritza eta Arkitektura	20,7	27,1
Arte eta Giza Zientziak	9,9	7,8
Osasun Zientziak	16,5	12,3
Zientziak	5,8	5,3
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeria

Bilakaeraren ikuspegitik, Osasun Zientzietako ikasle kopuruak nabarmen gora egin duela ikus daiteke. Behera egin du, aitzitik, Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasketen aldeko hautua egiten duten ikasleen kopuruak. Bestalde, nabarmentzekoa da, halaber, Gizarte eta Lege Zientzien alorreko eta Ingeniaritza eta Arkitekturaren alorreko masterrak egiten dituen biztanleriak izan duen igoera garrantzitsua.

Zehazkiago, 2008-2009 ikasturtetik 2013-2014 ikasturtea arte Euskal Autonomia Erkidegoan matrikulatutako ikasleen kopurua % 1,3 murriztu da. Irakaskuntza-adarren arabera, alabaina, Osasun Zientzietako ikasle kopuruak nabarmen egin du gora (+% 81,5) eta Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasleen bolumena, aldiz, murriztu egin da (-% 16). Gizarte eta Lege Zientzietako (-% 3) eta Zientzietako (-% 2,8) ikasle kopuruak beherakada txikixeagoa izan du eta Arte eta Giza Zientzietako ikasle kopurua antzeko mailetan mantentzen da (-% 0,4).


3.18. grafikoa EAEn matrikulatutako ikasleen bilakaera jakintza-arloen arabera (2008-2014)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Urtero gutxi gorabehera Gizarte eta Lege Zientzien esparruko 4.700 profesional eta 2.700 bat ingeniari eta arkitekto sartzen dira lan-merkatuan. Biztanleria egresatuaren joerak islatzen duenez, beharokada garrantzitsua izan da Zientzien eta Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarretan eta gora egin dute Arte eta Giza Zientzietako eta Osasun Zientzietako irteerek. Master ikasketen kasuan, gero eta gehiago dira Gizarte eta Lege Zientzietako eta Ingeniaritza eta Arkitekturako ikasketak amaitzen dituzten biztanleak.

3.19. grafikoa EAEko ikasle egresatuen bilakaera jakintza-arloaren arabera (2008-2013)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

EAEko jakintza-adarraren araberako unibertsitate-hezkuntzaren adierazleek azaltzen dutenez, gehikuntza izan da termino absolutu eta erlatiboetan Osasun Zientzien adarrean, gainerako jakintza-adarren kalterako, eta karrera teknikoek beherakada berezia izan dute. Eta Osasun Zientzien jakintza-alorrean lortzen dira, hain zuzen ere, enplegu-tasarik handiena eta azken urteetan bideratutako enpleguaren daturik onenak, ondoren ikus daitekeen moduan.

3.5. taula EAEko unibertsitate-hezkuntzaren adierazle nagusien joerak jakintza-adarraren arabera (1)

	Ikasle matrikulatuen bilakaera 2008/2009-2013-2014 (gehikuntzaren %)		Ikasle egresatuen bilakaera 2008/2009-2012/2013 (gehikuntzaren %)		Enplegu-tasa (2) (2013)		Bideratutako enplegua (3) (2007-2013)		Matrikula/ eskaintza ratioa (2009-2010)(4)	
Gizarte eta Lege Zientziak	-2,9	↓	-6,0	↓	66,7-66,0	↓	% 77 - % 55	↓	% 97	--
Ingeniaritza eta Arkitektura (teknikoa)	-16,2	↓↓	-9,3	↓	74,5	↓	% 90	↓	% 73	--
Artea eta Giza Zientziak	-0,4	=	25,2	↑↑	63,3	↓	% 75	↓	% 81	--
Osasun Zientziak	81,5	↑↑↑	24,0	↑↑	81,7	↓	% 97	↓	% 109	--
Zientziak (esperimentalak)	-2,8	↓	-15,7	↓↓	60,0	↓	% 83	↓	% 85	--
GUZTIRA	-1,3	↓	-3,3	↓	70,5	↓	% 81	↓	% 88	↑↑

(1) Jakintza-arloen araberako enplegu-tasaren eta bideratutako enpleguaren datuak UPV/EHUKo ikasleei besterik ez dagozkie.

(2) Enplegu-tasa: enplegu ordaindua duten eta jarduera independentean aritzen diren pertsonen ehunekoa, guztizkoaren gainean (biztanleria egresatua lan-munduan txertatzeari buruzko 2013ko inkestaren erantzunak)

(3) Bideratutako enplegu-tasa: hirugarren mailako prestakuntzarekin (unibertsitate-hezkuntza edo goi-mailako lanbide-heziketa) lotutako enplegu duten pertsonen ehunekoa. Lanbideen Saillapen Nazionalako (LSN-94) epigrafe hauetan sailkatutako lanpostuak hartzen ditu barnean: 1. Enpresen zuzendaritza eta kudeatzailetza; 2. Unibertsitateko titulazioei lotutako teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak; eta 3. Laguntzako teknikariak eta profesionalak.

(4) Ez dago jakintza-adarraren araberako matrikula/eskaintza ratioari buruzko datu berriagorik.

Iturria: Lanbide eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Erantsitako taulan titulazio nagusiak aipatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan 2013-2014 ikasturtean matrikulatutako ikasle bolumenaren arabera.

3.6. taula Titulazio nagusiak 1. eta 2. graduiko ikasle bolumenaren eta jakintza-alorraren arabera (2013/2014 ikasturtea)

Jakintza-alorra	Graduak
Gizarte eta Lege Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ✓ Lehen Hezkuntza ✓ Haur Hezkuntza ✓ Negozioen Kudeaketa ✓ Zuzenbidea
Ingeniaritza eta Arkitektura	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ingeniaritza Mekanikoa ✓ Industria Teknologiaren Ingeniaritza ✓ Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza ✓ Ingeniaritza Zibila ✓ Arkitekturaren Oinarriak ✓ Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
Artea eta Giza Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Artea ✓ Historia ✓ Sorkuntza eta Diseinua ✓ Ingeles Ikasketak ✓ Euskal Ikasketak
Osasun Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Erizaintza ✓ Medikuntza ✓ Psikologia ✓ Farmazia
Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kimika ✓ Biologia ✓ Fisika ✓ Matematika ✓ Ingurumen Zientziak

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

Bestalde, nabarmendu beharra dago azken urteetan titulazio berriak agertu direla, batez ere Ingeniaritza eta Arkitekturaren adarrean.

3.7. taula EAEko unibertsitate-titulazio berriak jakintza-alorraren arabera


Jakintza-alorra	Graduak
Gizarte eta Lege Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Nazioarteko Harremanak ✓ Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak
Ingeniaritza eta Arkitektura	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ingeniaritza eta Arkitektura: ✓ Ingeniaritza Biomedikoa ✓ Energiaren Ingeniaritza ✓ Industria Prozesuetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza ✓ Arkitekturaren Oinarriak ✓ Energia Berriztagarrien Ingeniaritza ✓ Prozesu eta Produktuen Berrikuntzako Ingeniaritza ✓ Kudeaketaren Informatikako Ingeniaritza Teknikoa ✓ Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
Osasun Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Fisioterapia

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

c) Behera egin du unibertsitate-biztanleriaren enplegu bideratuak

Krisiak eragin bizia izan du unibertsitate-biztanleria lan-munduan txertatzerakoan ere. Izan ere, Lanbidek egindako *EAEko unibertsitate-promozioak bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlanaren* emaitzak kontuan hartuta, egiazta daiteke unibertsitate-biztanleriaren enplegu-tasak atzera egin duela azken urteetan. Hain zuzen ere, tasa % 70,5 zen 2013. urtean (2010ean egresatutako promozioa) eta 2009an (2006an egresatutako promozioa) % 80,2 zen.

3.20. grafikoa EAEko unibertsitate-promozioen jarduera-tasa, enplegu-tasa eta langabezia-tasa. Batez bestekoa




*: X ardatzean agertzen da hiru urte lehenago titulua lortu zutenen promozioei elkarrizketa egin zitzaizen unea.

Iturria: Lanbide. EAEko unibertsitate-promozioak bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlana.

Egoerak okerrera egin badu ere, esan beharra dago goi-mailako ikasketak dituen biztanleriak portaera hobea duela biztanleriaren osotasunak baino (16 urtetik gorako biztanleriaren osotasunerako enplegu-tasa % 48,8 izan zen 2013ko laugarren hiruhilekoan, Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datuen arabera).

Enplegu-tasak, alabaina, oso desberdintasun handiak erakusten ditu jakintza-alor batetik bestera (2013an osasunaren alorrean erregistratutako % 82 eta zientzia esperimentalen alorreko % 60 artean mugitzen da), baina alor guztietan ikus daiteke krisiak eragindako joera negatiboa. Zientzia Esperimentalek erregistratu dute enplegu-tasaren beherakadarik handiena 2005 eta 2013 artean (24 puntu gutxiago ehunekoetan), eta Osasun Zientziak izan dira atzerakada txikiena izan dutenak (11 puntu gutxiago).

3.21. grafikoa Enplegu-tasaren bilakaera jakintza-alorraren arabera (2005-2013)



Iturria: Unibertsitateko ikasleak 2013an lan-munduan txertatzea. 2010eko promozioa. Lanbide.

Unibertsitate-biztanleriaren lan-baldintzei loturiko gai garrantzitsua da haien prestakuntza-mailaren eta garatzen duten lanbidearen arteko desoreka. Nazioarteko testuinguruan, eta CyD 2013 txostenaren datuen arabera, 2013an goi-mailako kualifikazioko lanpostuetan enplegatutako goi-mailako gradudunen proportziorik txikiena zuen UE-28ko herrialdea zen Espainia. Urte horretan, kontratatu zituzten unibertsitateko gradudunen % 32k (EBn % 20) goi-kualifikaziokoa ez zen lanen bat egin zuten; ia laurdenak kontabilitateko eta administrazioko langileen edo jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako eta babes zerbitzuetako langileen eta saltzaileen zereginak egiteko hartu zituzten; eta % 6 inolako ikasketarik izatea eskatzen ez duten oinarrizko lanbideetan aritzeko kontratatu zituzten.

Aipatutako txostenak jasotzen duen moduan, gehiegizko hezkuntza konparatuaren arazo horren bere horretan jarraitzen du Espainiak ez duelako goi-kualifikazioko behar adina lanbide sortzen EBrekin konparatuta, eta, orobat, Espainian goi-mailako tituludun gehiago sortzen direlako. Autonomia-erkidegoen araberrako analitik ondoriozta daitekeenez, goi-kualifikazioko enpleguaren eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka erlatiboaren indizea handiagoa zen 2013an EAEn Espainiaren osotasunean baino.

Bestalde, Lanbideren datuak kontuan hartuta, ikus daiteke EAEn unibertsitate-biztanleriaren enplegu bideratuaren tasa⁶ ere murriztu egin dela azken urteetan, eta jakintza-arlo guztietan murriztu da gainera. UPV/EHUrentzat erabilgarri dauden datuek erakusten dutenez, bideratze-mailarik handiena osasunaren esparruko tituludunei dagokie, eta ikasketa teknikoetako eta zientzia esperimentaletako gradudunak dira hurrengoak (horien enplegu bideratuaren ehunekoak % 97, % 90 eta % 83 dira, hurrenez hurren⁷). Gizarte-zientzien esparruko unibertsitate-ikasketak dituzten profesionalak % 77ko bideratze-maila lortzen dute eta giza zientzietakoek % 75ekoa. Ekonomia- eta lege-zientzien alorreko unibertsitate-ikasketak dituzten bitik batek (% 55) besterik ez du aurkitzen bere jakintzarekin erlazioatutako enplegua.

⁶ Bideratutako enplegua: hirugarren mailako prestakuntzarekin (unibertsitate-hezkuntza edo goi-mailako lanbide-heziketa) lotutako enplegua duten pertsonen ehunekoak. Lanbideen Sailkapen Nazionalako (LSN-94) epigrafe hauetan sailkatutako lanpostuak hartzen ditu barnean: 1. Enpresen zuzendaritza eta kudeatzailetza; 2. Unibertsitateko titulazioei lotutako teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak; eta 3. Laguntzako teknikariak eta profesionalak.

⁷ Unibertsitateko tituludunen lan-egoerari buruzko datua, egresatu eta 3 urtera.

3.8. taula Unibertsitate-biztanleriaren enplegu bideratuaren bilakaera (2002-2010eko ikasleak)

Promozioaren urtea	Egoeraren urtea	Jakintza-alorra							Unibertsitate guztiak
		Ekonomia eta Lege Zientziak	Zientzia Esperimentalak	Giza Zientziak	Osasun Zientziak	Gizarte Zientziak	Teknikoa	UPV/EHU guztira	
2002	2005-IV	% 69	% 79	% 75	% 99	% 76	% 95	--	-
2003	2006	% 73	% 84	% 77	% 99	% 77	% 95	--	-
2004	2007	% 69	% 82	% 81	% 100	% 81	% 96	--	-
2005	2008	% 68	% 87	% 80	% 100	% 88	% 96	% 89	-
2006	2009	% 73	% 89	% 86	% 100	% 90	% 97	% 87	89
2007	2010	% 66	% 88	% 80	% 100	% 89	% 95	% 87	88
2008	2011	% 68	% 85	% 82	% 100	% 89	% 96	% 84	89
2009	2013-II	% 63	% 86	% 77	% 100	% 85	% 92	% 79	85
2010	2013-IV	% 55	% 83	% 75	% 97	% 77	% 90	% 81	% 81

Iturria: Unibertsitateko ikasleak 2013an lan-munduan txertatzea. 2010eko promozioa. Lanbide.

3.6. Etengabeko Prestakuntzaren erronka


Prestakuntzaren eta hura produkzio-sektorearen beharretara egokitzearen ikuspuntutik, biztanleria eta enpresak etengabeko prestakuntzako eta bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzetan inplikatzeko datza erronka.

Euskal Autonomia Erkidegoak estatuko prestakuntzaren estaldura-tasa handienetakoa du, baina oso urrun dago, oraindik ere, Europako iparraldeko erreferentziako herrialdeetatik.

Hiruko Fundazioaren hoberia duen eskari-prestakuntzari⁸ buruzko lurralde-konparazioari esker ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak estatuko prestakuntzaren estaldura-tasa handienetakoa duela. 2012an guztizko nazionala % 28koa zen, eta bost autonomia-erkidegok gainditzen zuten batez besteko hori, EAE tartean zela (% 29).

⁸ Eskari-prestakuntza hau lanean ari diren langileei zuzentzen zaie, Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean alta emana dutenei; Gizarte Segurantzako kuotetan aplikatzen den hobari-sistema baten bitartez finantzatzen da.

3.22. grafikoa Hiruko Fundazioaren hobia duen eskari-prestakuntzako parte-hartzaileen estaldura-tasa autonomia-erkidegoen arabera (2012)



Eskari-prestakuntzak enpresa eta langileen behar espezifikoak erantzuten ditu. Lanean ari diren langileei zuzentzen zaie, Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean alta emana dutenei; Gizarte Segurantzako kuotetan aplikatzen den hobia-sistema baten bitartez finantzatzen da.

¹ Eskari-ekimeneko parte-hartzaileen %, sektore pribatuko soldatuen kolektiboaren aldean, 2012ko II. hiruhilekoari dagokion Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera.

Iturria: Hiruko Fundazioa

3.9. taula Etengabeko prestakuntzan parte hartzen duen 25-64 urteko biztanleriaren bilakaera EBko herrialdeen arabera (2003-2013)


HERRIALDEAK	2003	2008	2013
Alemania	6	7,9	7,8
Austria	8,6	13,2	13,9
Belgika	7	6,8	6,7
Bulgaria	1,3	1,4	1,7
Kroazia	7,9	8,5	6,9
Zipre	1,8	2,2	2,4
Danimarka	24,2	29,9	31,4
Eslovenia	13,3	13,9	12,4
Espainia	4,8	10,6	11,1
Estonia	6,8	9,7	12,6
Finlandia	22,4	23,1	24,9
Frantzia	6,8	6	17,7
Grezia	2,6	2,9	2,9
Hungaria	4,5	3,1	3
Irlanda	5,9	7	7,3
Italia	4,5	6,3	6,2
Letonia	7,8	6,6	6,5
Lituania	3,8	4,8	5,7
Luxenburgo	6,5	8,5	14,4
Malta	4,2	6,2	7,5
Herbehereak	16,4	17	17,4
Polonia	4,4	4,7	4,3
Portugal	3,2	5,3	9,8
Txekiar Errepublika	5,1	7,8	9,7
Eslovakiar Errepublika	3,7	3,3	2,9
Erresuma Batua	27,2	19,9	16,1
Errumania	1,1	1,5	2
Suedia	..	22,2	28,1
Europar Batasuna (28 herrialde)	8,4	9,3	10,5

Iturria: Europako Biztanleria Aktiboaren Inkesta - Urteko batez bestekoa. Eurostat.

Euskal enpresek egindako etengabeko prestakuntzako jardueren gauzatze-mailak ez dirudi krisiaren ondorioz behera egin duenik. Izan ere, erabilgarri dauden datuen analisiak nabarmentzen du azken urteetan igoera garrantzitsua izan duela diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten enpresa eta pertsonen bolumenak.

Zehazki, Hiruko Fundazioaren eskari-prestakuntzako jardueren programetan 8.336 enpresak parte hartu zuten 2008an eta 22.196 enpresak 2012an. Aldi horretan bertan, ekintza horietan parte hartu zuten langileen kopuruak gora egin zuen: 120.000 baino gutxiago izatetik ia 175.000 izatera iritsi ziren. Bestalde, Hobetuzek lagundutako etengabeko prestakuntza-ekintzetako parte-hartzeak ere gora egin zuen: 452 enpresa 2008an eta 654 enpresa 2012an.

3.23. grafikoa EAEn eskari-prestakuntzako jardueretan parte hartu duten enpresen eta pertsonen kopuruaren bilakaera (2004-2012)



Iturria: Hiruko Fundazioa

4. JARDUERA EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN EPE ERTAIN ETA LUZERA KO PERSPEKTIBAK

4.1. Gogoetaren esparrua: ekonomiaren eta enpleguaren bilakaera baldintzatzen duten faktoreak


Txosten honen lehen zatian enpleguak iragan hurbilean izan duen bilakaera analizatu da eta ondorioak atera dira krisia hobekien jasan duten sektoreei eta haren eraginak gehien nabaritu dituztenei buruz. Aztertu da, halaber, biztanleria okupatuaren kualifikazio-mailek zer-nolako bilakaera izan duten. Bloke honetan etorkizunean jartzen da begirada, eta hurrengo hamarkadan enplegua sortzeko perspektibak kontuan hartzen dira.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren perspektiben azterketari ekiterakoan, elkarri eragiten dioten lau azpisistema kontuan hartu behar dira:

- Demografia
- Produkzio-sistema
- Lan-merkatua
- Sektore publikoa

Azpisistema horien arteko interrelazioak ugariak eta korapilatsuak dira; aski da, adibide gisa besterik ez bada ere, honako hauek kontuan hartzea: demografiak langile-eskaintza zehazten du, baina baita haren produktibitatea eta aurrerabide teknikorako eta berrikuntzarako ahalmena ere; produktibitateak, aldi berean, eragina du produkzio-sistemaren kostuetan eta enpresa-emaitzetan; langabeziak eta soldata-mailak eragina dute immigrazioan; politika publikoek eragina dute errentan eta kontsumoan, produkzio-sistemaren aldagai erabakigarriak baitira, baina baldintzapean jar dezakete, halaber, biztanleria okupatuaren kualifikazio-maila eta, hortaz, ekonomiaren lehiakortasuna eta abar. Lau azpisistema horiek konfiguratzeko dituzten aldagaiek hartzen duten ibilbideak zehaztuko du, horrenbestez, enpleguaren bilakaera.

4.1. grafikoa Ekonomiaren eta enpleguaren bilakaera baldintzatzen duten azpisistemak



Iturria: Bertan landutakoa.

Txosten honen helburua ez da, alabaina, aipatutako sistemen arteko interrelazioak modelizatzea, ezta prospektiba-ariketa espezifikoa egitea ere, hurrengo urteetan Euskal Autonomia Erkidegoko jardura ekonomikoari eta enpleguari buruzko panorama sumatzea ahalbidetuko duen informazio garrantzitsua identifikatzea baizik. Horretarako, osagarritasunak bilatu dira lehendik dauden informazioan eta lanetan, ondorio operatiboak ateratzeko.

Oinarrizko galdera hauei erantzutea da asmoa:

- Zenbateraino da erabakigarria *demografia* etorkizuneko enplegu-aukeren ikuspegitik begiratuta? Zer-nolako bilakaera izango du enplegu-eskaintza potentzialak, hots, lan egiteko adinean dagoen biztanleriak?
- Zer-nolako bilakaera izango du *lan-merkatuak*? Zer ibilbide espero da jardura-tasarentzat eta okupazio-tasarentzat? Zein kualifikazio-profil nagusitzen dira eta zein dira joerak? Zein arlotan ari dira prestatzen profesional kualifikatuak? Zein dira lan-baldintza nagusiak?
- Zer-nolako portaera izango du *produktzio-sistemak*? Zein sektore daude hobekien posizionatuta? Zein dira sektore estrategikoak?
- Zein dira *politika publikoetatik* ezarritako lehentasunak?

Galdera horien analisiak argitu egingo ditu honako gai hauek:

- Hurrengo 10-15 urteetan espero daitezkeen enplegu-aukeren kuantifikazioa.
- Ziur aski enplegu-aukera horiek kontzentratuko dituzten sektoreak.
- Hedapen handiena izango duten lanpostuak eta atzera egiteko arrisku handiena duten lanbideak.
- Mailaren eta espezializazio-arloaren terminoetan zehaztuko diren kualifikazio-profilak. EAEko lehiakortasuna lan-merkatuan gabeziak aurreikusteko ahalmenaren eraginpean dago. Kualifikazio-beharrak identifikatzeko sistema eraginkorra funtsezkoa izango da ekonomia suspertzeko eta krisia behin betiko atzean uzteko.
- Apustu estrategiko sektorialen arteko koherentzia-maila edo desoreka, etorkizuneko profesionalen kualifikazio-profiletan hautemandako joerak, enpresek langileak bertan atxikitzekeko estrategiak...


4.2. European eta Espainian enplegua sortzeko perspektibak

4.2.1. Biztanleria aktiboaren bilakaerari buruzko perspektibak

Atal honetan laburbilduta irudikatzen dira hurrengo hamarkadarako aurreikusitako joerak, European zein Espainian enplegua sortzeari dagokionez, sektoreak, lanbideak eta kualifikazio-mailak kontuan hartuta.

Enplegua sortzeko perspektiben azterketari ekiterakoan, Espainian eta Europako herrialde ugartan aurreikusitako biztanleria aktiboaren uzkurdua da abiapuntua eta nabarmendu beharreko lehen alderdia. Izan ere, CEDEFOP⁹ zentroaren arabera, hurrengo grafikoan jaso den moduan, Espainia seigarren postuan egongo litzateke biztanleria aktiboaren beherakadari dagokionez, Lituania, Letonia, Estonia, Bulgaria eta Greziaren atzetik. Herrialde horiek buruan daude aldakuntza-tasa negatiboen sailkapenean (Lituaniako -20% eta Espainiako -6% artean mugitzen dira). Beste muturrean, Belgika, Danimarka eta Luxenburgok igoera adierazgarriak izango lituzkete eta $+9\%$ eta $+23\%$ arteko tartean kokatuko lirateke.

4.2. grafikoa Biztanleria aktiboaren aldakuntza-tasa herrialdeen arabera (UE-28) (2015-2025)




Iturria: CEDEFOP

⁹ Lanbide Heziketa garatzeko Europako Zentroa (<http://www.cedefop.europa.eu/>)

Biztanleria aktiboaren bolumenaren beherazko joeraz gain, haren zahartzea da azpimarratzeko moduko beste ezaugarri bat, oso fenomeno nabarmena baita Espainian, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

4.3. grafikoa 2013-2025 aldiko biztanleria aktiboaren aldakuntza-tasa adin-talde handien arabera. EB-28 eta Espainia



Iturria: CEDEFOP

4.2.2. Enplegu-aukeren kuantifikazioa

Enplegu-aukerak bi faktore hauen ondorioz sortzen dira:

1. Hedatzeko eskaria, edo hazkunde ekonomikoak sortzen dituen enplegu berriak. Emandako produktibitate-maila baterako produkzio-bolumen jakin bat erdiesteko behar den beharrezko enplegu edo langile kopuru gisa interpreta daiteke.
2. Ordezkatzeko eskaria, edo bete behar diren lanpostu hutsak, biztanleria aktiboaren erretiroarekin, heriotza-tasarekin edo emigrazioarekin lotua.

CEDEFOPek UE-28n 2013-2025 aldian izango diren enplegu-aukerari buruz egiten dituen aurreikuspenak 107 milioi enpleguak dira. Enplegu horien guztien % 91 lan-merkatua batez ere erretiroa hartuko dutelako utziko duten langileak ordezkatzeko premiaren ondorio izango dira. Ordezkatzeko premiak zenbaterainokoak diren bistartzeko, adieraz daiteke 2013an EB-28n dagoen guztizko enpleguaren % 40 baino gehixeago direla. Europako biztanleriaren egitura zahartuak azaltzen du ordezkatzeko premien kopuru handi horren zergatikoa.

Espainian zenbatetsitako enplegu-aukerak 8,8 milioi ingurukoak dira. Kasu honetan ere, bete beharrek hamar lanpostutik 9 inguru ordezkatzeko eskariarekin lotuta daude, Europako batez bestekoaren antzeko proportzioa beraz.

4.1. taula Enplegu-aukerak eskari motaren arabera. EB eta Espainia (2013-2025)

	EB 28		Espainia	
	Absolutua (milioiak)	%	Absolutua (milioiak)	%
Hedatzeko eskaria	9,49	8,8	0,88	9,9
Ordezkatzeko eskaria	98,03	91,2	7,97	90,0
GUZTIRA	107,52	100,0	8,85	100,0

Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta. Employment Opportunities

4.2.3. Sektoreen arabeko enpleguaren bilakaerari buruzko perspektibak


CEDEFOPen aurreikuspenen arabera, sektoreen arabeko enpleguaren banaketa aldatzeko Europako herrialde guztiek komun dituzten joerak markatzen ditu, nahiz eta pisu erlatibo sektoriala nabarmen aldatzen den kasuak kasu.

EB osoan 2015 eta 2025 artean izango den enpleguaren gehikuntzarik handiena merkataritza-zerbitzuen eta enpresentzako zerbitzuen sektorean gertatuko da (5,9 milioi enplegu gehiago), eta neurri txikiagoan banaketa eta garraioaren sektorean (2,4 milioi) eta merkataritza besteko zerbitzuen sektorean (1,5 milioi). Merkataritza besteko zerbitzuetan, aurreikuspenen arabera administrazio publikoan behera egingo du enpleguak, nahiz eta hezkuntzan, osasun-arloan eta gizarte-zerbitzuetan gora egingo duen.

Oro har, lehen sektoreak eta manufaktura-sektoreak sortutako enplegu-bolumenaren gainbehera aurreikusten da (-1,8 eta -1,3 milioi enplegu, hurrenez hurren, 2015-2025 aldian). Manufaktura-sektorean galerak orokorrak izango dira sektore guztietan, ibilgailu motordunen eta tresneria optiko eta elektronikoen fabrikazioaren sektoreetan izan ezik, horiek gora egingo dutela aurreikusten baita.

Eraikuntzaren sektorean ia aldaketarik gabe jarraituko du enpleguak hurrengo hamarkadan, krisialdiak iraun duen urteetan murrizketa drastikoa jasan ondoren.

4.4. grafikoa Enpleguaren bilakaera eta etorkizuneko joerak sektorearen arabera. EB-28




Iturria: CEDEFOP.

Europar Batasuneko 28 herrialdeen osotasunaren emaitzak eta Espainiari dagozkionak konparatuz gero, Espainian aurreikusitako merkataritzaz besteko zerbitzuetako enpleguaren uzkurdua da elementu bereizle nagusia, Europan gora egingo baitu. "Banaketa eta garraioaren" sektoreko enpleguaren joera hedakorra, aitzitik, bi esparruetan aurreikusten da, nahiz eta askoz ere gehikuntza handiagoa aurreikusten den Espainiaren kasuan.

Emaitzak eratzeko lan honetan azpimarra daiteke, bestalde, manufaktura-sektoreak askoz ere beherakada handiagoa duela Espainian. Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, CEDEFOPen zenbatespenek joera dibergenteak erakusten dituzte: igoera arina Europan eta geldialdia Espainian.


4.5. grafikoa EB-28ko eta Espainiako enpleguaren hazkunde-tasa jarduera-sektore handien arabera (%) (2015-2025)



Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta. Employment Trends

Dena dela, atzerantz begiratu eta Espainiako 2004-2014 aldiko enplegu sektorialaren ibilbidea hurrengo hamarkadarako proiektzioekin konparatzen badugu, egiazta daiteke, hain zuzen ere, eraikuntzaren sektorean aurreikusitako geldialdi hori, berez, 2008-2014ko krisialdian jasandako "hondamenarekiko" egonkortzea dela. Nabarmenezkoa da, halaber, manufaktura-sektorearen beherakada moteldu egiten dela eta banaketa eta garraioaren sektorea dela -tasa positiboekin gaintu du krisialdia- bere hazkundera azelerazio berezia izango duena. Azkenik, merkatuko zerbitzuen sektoreak mantsotu egingo du hazkundera aurreko hamarkadaren aldean.

4.6. grafikoa Espainiako enpleguaren aldakuntza-tasa sektorearen arabera (2004-2014 eta 2015-2025)



Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta.

Enplegu sektorialaren estatu-mailako bilakaerak haren egituraren transformazioa islatzen du, industriari pisua galtzen baitu, batez ere banaketa eta garraioaren sektorearen¹⁰ eta merkatuko zerbitzuaren mesederako. Izan ere, enplegua sektore horietarantz mugitzen da, zeren 2000. urtean enpleguaren % 47 xurgatzen baitzuten eta 2025ean % 62 bilduko dutela espero baita.

4.2. taula Espainiako enplegu sektorialaren egituraren bilakaera (2000, 2015, 2025)


	2000	2015	2025
Lehen sektorea, energiarena eta beste batzuk	6,9	5,5	5,0
Manufaktura-sektorea	17,4	10,8	9,4
Eraikuntza	11,1	5,4	5,2
Banaketa eta garraioa	27,5	31,6	34,4
Merkatuko zerbitzuak	19,1	25,9	27,5
Ez-merkatuko zerbitzuak	17,9	20,9	18,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta.

Jardueraren xehetasunean areago sakonduta, ikus daiteke Espainian administrazio publikoaren enpleguaren uzkurdua handia aurreikusten dela (EB-28n baino askoz ere nabarmenagoa), baita hezkuntzan eta osasun- eta gizarte-zerbitzuetan ere, Europan ez bezala. Aitzitik, enpleguaren igoera adierazgarria aurreikusten da merkataritzaren, ostalaritzaren, komunikazioaren eta artisau- eta arte-jardueren esparruetan. EB-28rako aurreikusitakoa ez bezala, Espainian energiari, urari eta hondakinei lotutako enpleguak ere gora egingo duela espero da.

¹⁰ Hezkuntza Ministeriotik lanbide-arlo bakoitzerako doikuntza-beharrei buruz egindako analisiaren emaitza nagusia da Lanbide Heziketako plazen gehikuntza bereziki beharrezkoa dela banaketaren eta garraioaren sektorean, bere hazkunde-aurreikuspenengatik, eta eraikuntzaren sektorean, ez sektorearen hedapenarengatik, uzkurto egiten baita, duen prestakuntza ez oso kualifikatuarengatik baizik.

4.7. grafikoa 2015-2025 aldiko enpleguaren aldakuntza-tasa jarduera-adarraren arabera. EU-28 eta Espainia.



Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta.

Interesgarria da, halaber, 4.3. taulan bildutako informazioa. Bertan zehazten dira Europan hurrengo bosturtekoan hazteko ahalmen handiena eta txikiena duten jarduerak, egun dagoen ziurgabetasun-maila ere kontuan hartuta sailkatuak. Taularen edukia ikusirik egiazta daitekeenez, zerbitzu-sektorearen barruan barne-eskariarekiko lotura handiena duten jarduerak (txikizkako merkataritza, ur-hornidura, banku- eta finantza-jarduerak...) dira ziurgabetasun txikienerako hazkunde-zerrendan agertzen direnak. Alabaina, hezkuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuak bezalako hirugarren

sektorekoek, hazkunde positiboekin loturik baina aurrekontu-esleipen publikoen gorabeherekiko mendetasun handiagoarekin, ziurgabetasun-maila handia erakusten dute.

Industria-sektoreetan antzematen da ziurgabetasuna handiagoa dela esportatzaileenetan, kanpoko lehiaren mendekotasun handiagoa dutenetan, hala nola ibilgailu motordunetan, farmazia-produktuetan, garraioan eta abar. Hala eta guztiz ere, enpleguaren hazkunde-tasa handiak dituen koadrantean kokatzen dira. Beste muturrean, hots, aurreikuspenen arabera enpleguaren uzkurdura ia ziurtzat jotzen den sektoreen artean, lehen sektorea, produktu metalikoak, erazketa-industriak eta ehungintzaren, larrugintzaren eta jantzigintzaren sektorea daude.

4.3. taula Europar hurrengo hamarkadan hazteko potentzial handiena duten sektoreak

		Ziurgabetasuna	
		Handia	Txikia
Hemendik 2020 arteko hazkunde-tasa	Handia	<ul style="list-style-type: none"> Farmazia-produktuak Ingeniaritza mekanikoa Ibilgailu motordunak Eraikuntza Banaketa Ostalaritza eta cateringa Lehorreko garraioa Aireko garraioa Aseguruak Hezkuntza Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak 	<ul style="list-style-type: none"> Manufaktura-industriak (beste inon sailkatu gabeak) Ur-hornidura Txikizkako merkataritza Itsasoko eta barrualdeko bide nabigagarrietako garraioa Informazioa eta komunikazioak Banku- eta finantza-jarduerak Informatika-zerbitzuak Jardura profesionalak Beste jardura profesional batzuk Beste hainbat zerbitzu
	Txikia	<ul style="list-style-type: none"> Petrolio eta gas naturala Elikagaiak, edariak eta tabakoa Zura eta papera Arte grafikoak eta edizioa Produktu kimikoak (beste inon sailkatu gabeak) Kautxuzko produktuak eta plastikoak Produktu mineral ez-metalikoak Burdinazko eta altzairuzko produktuak eta ferroaleazioak Material eta tresneria elektrikoa Energia elektrikoa 	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza Harrikatz-erazketa Beste zenbait erazketa-industria Ehun-produktuak, jantziak eta larruzko artikulua Erregai manufakturatua Produktu metalikoak Produktu elektronikoak Beste zenbait garraio-material Gas-hornidura Administrazio publikoa eta defentsa

* Sektoreen zerrenda lehenetsun-ordena espezifikorik gabe aurkeztu da.

Iturria: CEDEFOP, Europa lehen erronkaren aurrean. 2012ko martxoa.

Sektoreetan eragina izan dezaketen arriskuak modu eskematikoan adierazi dira ondorengo grafikoan.

4.4. taula Sektoreetan eragina izan dezaketen arrisku motak



4.2.4. Enpleguaren bilakaera-perspektibak kualifikazio-mailen eta sektoreen arabera

CEDEFOPek Europako epe ertainerako kualifikazio-eskaintzari buruz egindako aurreikuspenek aditzera ematen dutenez, goi- eta erdi-mailako kualifikazioak dituen biztanleria aktibo helduaren proportzioak modu esanguratsuan hazten jarraituko du 2025 arte. Gehikuntza hori behe-mailako kualifikazioaren kontura gertatuko da.

Joera orokor horiek, agertoki guztietan berretsiak, bat datoz Europa jakintzan oinarritutako ekonomiarik lehiakorrena bihurtzeko Lisboako helburuarekin, eta hurrengo hamarkadako bilakaeraren bereizgarri izaten jarraituko dute.


Hurrengo grafikoek erakusten dute, hain zuzen ere, biztanleria aktiboaren kualifikazio-mailaren arabera egituraren izango bide den aldaketa. 2013an Europako guztizkoaren % 31 ordezkatzeko duen goi-kualifikazioko enpleguak % 36ko pisua lortzera iritsiko da 2025ean. Haren bolumena, termino absolutuetan, % 21 haziko da aldi horretan.

Hemendik 2025era EBko enplegu-aukera gehienek goi-mailako kualifikazioa eskatuko dute. Ordezkatzeko eskari handiaren ondorioz, halaber, enpleguen proportzio adierazgarri batek erdi-

mailako kualifikazioa eskatuko du eta EBko pertsona gehienek erdi-maila horretako lanpostuak betetzen jarraituko dute.

Espanian ere gora egingo du goi-mailako kualifikazioaren pisua, baina fenomeno hori are nabarmenagoa izango da, 2025ean guztizkoaren % 48ra iristea aurreikusten baita, 2013an maila handi samarretik abiatuta (% 39). Goi-mailako kualifikazioko enpleguaren aldakuntza-tasa +% 29an kokatzen da 2013 eta 2025 artean (+% 21 EBn).

4.8. grafikoa Enpleguaren bilakaera kualifikazio-mailaren eta etorkizuneko joeren arabera. EB-28 eta Espainia




Iturria: Bertan landutakoa, CEDEFOPen datuak abiapuntu hartuta. Kualifikazioei buruzko aurreikuspenak

Goi-mailako kualifikazioak Espainian Europan baino presentzia handiagoa izatearekin batera, behe-mailako kualifikazioak ere pisu handiagoa du, enpleguaren % 21 xurgatzen baitu Europan eta % 34 Espainian. Muturretako profilek (goikoa eta behekoa) Europan Espainian baino nagusitasun txikiagoa izatea erdi-mailaren protagonismo askoz ere handiagoak konpentsatzen du, % 48ra iristen baita EBn eta Espainian ez baita iristen % 27ra. Azken batean, Espainiak oso kualifikazio-egitura polarizatua erakusten du, aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan.

Arreta Espainian 2013-2025 aldian kualifikazio-mailaren arabera sortuko diren enplegu-aukeretan jarrita, sortuko diren ia enplegu gehienak erdi- edo goi-mailako kualifikazioekin lotuta egongo direla (% 42 eta % 56 hurrenez hurren) ondoriozta daiteke.

Enplegu-aukera gehienak ordezkatzeko eskariari lotuta daude kualifikazio-maila guztietan. Hurrengo taulan islatzen den moduan, enplegu-suntsiketa oso garrantzitsua izango da behe-mailako kualifikazioetan.

4.9. grafikoa 2013-2025 aldiko enplegu-aukerak kualifikazio-mailaren eta eskari motaren arabera. Espainia (milaka)



Iturria: CEDEFOP.

Sektoreen arabera, zerbitzu-sektorea da kualifikazio-profil handiena duena, bereziki nabarmena izaera publikoetan, eta alderdi hori komun dute Europak eta Espainiak, baina nabariagoa bigarren kasuan. Beste muturrean, eraikuntzaren sektorea da goi-kualifikazioko enpleguaren presentzia txikiena duena.

Hurrengo urteetan aurreikusten den bilakaera kontuan hartuta, termino absolutu zein erlatiboetan, goi-kualifikazioak garrantzia irabazten du sektore guztietan bai Europan eta bai Espainian. Bereziki deigarria da banaketa eta garraioaren sektorearekin lotutako gehikuntza handia.


Espainian ikus daiteke, gainera, erdi-mailako kualifikazioaren pisu erlatiboak gora egingo duela. Hala eta guztiz ere, bilakaera positiboa izan arren, 2025ean Europar Batasunaren osotasunean erdietsitakoa baino ehunekoetako kuota txikiagoa lortzen jarraituko luke kontuan hartutako sektore guztietan. Erdi-mailako kualifikazioaren adierazgarritasun txikiago hori bereziki esanguratsua da Espainiako manufaktura-sektorean eta eraikuntzaren sektorean Europako aldean.

Termino absolutuetako bilakaera kontuan hartuta, Espainian espero da erdi-mailako kualifikazioko enpleguak gora egingo duela analizatutako sektore guztietan, zerbitzu publikoen sektorean izan ezik, hor uzkurto egingo bailizateke hurrengo urteetan. Lehen sektorean eta eraikuntzaren sektorean izango litzateke handiena igoera hori.

Behe-mailako kualifikazioak, aitzitik, presentzia galtzen du termino absolutu eta erlatiboetan sektore guztietan. Fenomeno hori komun dute Europak eta Espainiak, baina nabarmenagoa da bigarren kasuan (behe-mailako kualifikazioko enplegua % 39 jaitsiko da Espainian eta % 22 Europan 2025 arte).

Sektorea gorabehera, egiazta daitekeen beste fenomeno bat da emakumeek gizonek baino maila handiagoko kualifikazioak izango dituztela etorkizunean. Adin-taldee dagokienez, 25-29 urteko taldean argi eta garbi ikus daiteke goi-mailako kualifikazioak dituzten pertsonen kopuruak nabarmen egiten duela gora (emakumeen kolektiboan batik bat).

4.10. grafikoa Enpleguaren banaketa kualifikazio-mailaren eta jardura-sektore handien arabera. Europa eta Espainia (2013-2025)




Iturria: European Commission, EU Skills Panorama.

4.2.5. Lanbidearen araberako enpleguaren bilakaerari buruzko perspektibak

CEDEFOPek emandako informazioa kontuan hartuta, ikus daiteke hemendik 2025 arte EB-28n bete beharreko lanpostu huts gehienak profesional zientifikoei eta goi-mailako teknikariei (% 24) zuzenduta egongo direla. Horien ondoren egongo dira zerbitzuetako langileentzako eta saltzaileentzako lanpostuak (% 16) eta erdi-mailako teknikari eta profesionalentzako lanpostuak (% 13).

4.11. grafikoa Enpleguaren banaketa kualifikazio-mailaren eta jarduera-sektore handien arabera. Europa eta Espainia (2013-2025)




Iturria: European Commission, EU Skills Panorama.

Espainian enplegu-aukerak funtsean zerbitzuetako langileei eta saltzaileei loturik egongo dira (sortutako enpleguen guztizko bolumenaren % 27). Garrantziz hurrengoak dira erdi-mailako teknikari eta profesionalentzako lanpostuak (% 15) eta zientzietako, ingeniarietako, osasungintzako, enpresetako eta hezkuntzako goi-mailako profesionalentzako lanpostuak (% 13).

Lehen bi kasuetan, sortutako lanpostu hutsak lan-merkatua uzten duten langileak ordezkatzeko beharrak sortzen ditu eta goi-mailako profesionali lotutako aukeretan, aldiz, bi faktoreak bilduko dira, hots, sortuko diren lanpostu berriak (hedatzeko eskaria) eta, batez ere, ordezkatu beharreko lanpostuak, nagusiki langileek erretiroa hartzearen ondorio direnak (ordezkatzeko eskaria).


4.12. grafikoa Espainiako enplegu-aukerak lanbidearen arabera (milaka) (2015-2025)



Iturria: CEDEFOP, Skills Panorama.

2015-2025 aldiko lanbidearen araberako enpleguaren aldakuntza-tasak kontuan hartuta eta Espainiako eta Europar Batasuneko emaitzak konparatuta, bereziki nabarmentzen da laguntzako erdi-mailako teknikari eta profesionalen kategorian espero den igoera, European baino askoz ere nabarmenagoa. Nabarmentzekoa da, halaber, lehen sektoreko langile kualifikatuen murrizketa esanguratsua, askoz ere handiagoa Espainian.

4.13. grafikoa. EB-28ko eta Espainiako enpleguaren hazkunde-tasa lanbidearen arabera (%) (2015-2025)




Iturria: CEDEFOP

4.3. EAE enplegua sortzeko perspektibak

4.3.1. Lan egiteko adina duen biztanleriaren bilakaera

EAEk egitura-desoreka erakusten du bere piramide demografikoan epe ertain eta luzean. Eustatek egindako proiektzioen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria % 4 murriztuko da 2014 eta 2025 artean, eta 65 urte edo gehiago dituzten pertsonen kopurua % 20 inguru handituko da. Lan egiteko adina duen biztanleria, aldiz, % 12 inguru gutxituko da. Horrek esan nahi du 65 urte edo gehiago dituzten pertsona bakoitzeko 15-64 urteko egungo 3,2 biztanle izatetik 2,3 biztanle izatera igaroko dela.

4.14. grafikoa EAEko biztanleriaren piramidearen bilakaera aurreikusia (2014-2025)




Iturria: Eustat. Proiekzio Demografikoak

Eustatek egindako EAEko biztanleriaren proiektzioaren arabera, saldo negatiboak izango dira 2025 arte hazkunde demografikoaren bi osagaietan, naturalean eta migrazioan. Goraldi ekonomikoaren urteetan ere beste autonomia-erkidego batzuen aldean eragin mugatua samarra izan duen immigrazioak uzkurdua adierazgarria izango du epe laburrean, eta bere onera etorriko da berriaz epe ertainean, nahiz eta azken urteetan erregistratu diren balioak erdietsiko ez diren.

Biztanleriaren mugikortasuna beti oso gauza ezezaguna bada ere, hurrengo hamarkadarako agertoki probableenak kontuan hartuz gero, migrazio-mugimenduek ez lukete rol erabakigarria jokatuiko aldi horretan "lasaigarri" demografikoa lortzeko orduan, non eta ez diren immigranteak erakartzeko politiketan aldaketa drastikoak egingen.


4.15. grafikoa EAEko guztizko biztanleriaren aldakuntza adin-taldearen arabera (2014-2025)



Iturria: Eustat. Proiekzio Demografikoak

Eustatek 2025erako planteatutako agertoki guztiek, are baikorrenak eta ezkorrenak ere, lan egiteko adina duen biztanleriaren uzkurdua azaltzen dute. Agertokirik ezkorrenaren kasuan, murrizketa 15-64 urteko 295.000 pertsona baino gehiagokoa izango litzateke, eta agertokirik baikorrenean lan-indarrak ia 93.000 pertsona galduko litzuzke hemendik 2025era. INEren 2023rako biztanleriaren proiektzioek ere biztanleria potentzialki aktiboaren murrizketa adierazten dute eta gutxi gorabehera 1.124.000 pertsonakoa izango da.


4.16. grafikoa EAEko 15-64 urteko biztanleriaren bilakaera agertokirik baikorrenaren eta ezkorrenaren arabera (2014 eta 2025)



Iturria: Eustat. Proiekzio Demografikoak

Arazo demografikoa, horrenbestez, funtsezkoa da EAEko lan-merkatua analizatzerakoan, lan egiteko adina duten biztanleak hartzen baititu eraginpean, adinez nagusiagoak diren belaunaldiak, gero eta ugariagoak, gazte talde ez hain ugariak ordezkatzeko dituzte-eta. 4.17. grafikoa argi eta garbi irudikatzen du fenomeno hori.


4.17. grafikoa EAEko 15-24 urteko eta 55-64 urteko biztanleriaren bilakaera aurreikusia (2014-2025)



Iturria: Eustat eta Udal Errolda, INE

Erretiroen goranzko joera, hurrengo urteetan areagotu egingo dena, begien bistakoa da kontuan hartzen badugu 2013an 65 urte bete zituztenen kopurua 25.289 pertsonakoa izan zela eta, Eustaten proiektzioen arabera, 2025ean adin hori beteko duen biztanleria (1960an jaiotakoa) 30.260 pertsonatik gorakoa izango dela. Bilakaera hori berehala islatzen da erretiro-pentsioen alden ibilbidean, izan ere joera argi eta garbi goranzkoa erakusten baitute, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

4.18. grafikoa EAEko erretiroaren ondoriozko alden bilakaera (2006-2014)



Iturria: Gizarte Segurantza. Pentsioen Estatistikak

4.3.2. Enplegu-aukeren kuantifikazioa

Lanbide lanean aritu da 2024rako EAEko enplegu-aukerak zenbatesteko, horretarako Eustaten proiektzio demografikoak eta ekonomiaren eta lan-merkatuaren bilakaerari buruzko hipotesiak abiapuntu hartuta.

Aipatutako proiektzio demografikoak abiapuntu hartuta, eta hazkunde ekonomiko apala eta jarduera-tasaren eta okupazio-tasaren hobekuntza (% 78,8 eta % 74 hurrenez hurren 2024an) iragartzen duten aurreikuspenak kontuan harturik, Lanbidek zenbatesten du 2014-2024 aldian sortuko liratekeen enplegu berriak 35.700 inguru izango liratekeela.

Dena dela, hurrengo hamarkadan sortuko diren enplegu-aukerak hazkunde ekonomikoaren ondorioz (hedatzeko eskaria) sortuko diren enplegu berriek ez ezik, funtsean erretiroa hartuko duten langile ugari lan-merkatua uztearen ondoriozko ordezkatzeko eskariarekin lotutako enpleguek ere ekarriko dituzte. Lanbideren zenbatespenen arabera, bigarren faktore horrek 266.400 lanpostu inguruko enplegu-aukerak ekarriko lituzke. Bi eskarien ondorioz (hedatzekoa eta ordezkatzekoa), guztira gutxi gorabehera 302.000 lanpostuko enplegu-aukerak sortuko lirateke 2014-2024 hamarkadan.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da, alde batetik, erretiroa hartuko duten pertsonen garatutako lanbide guztiak ez direla ordezkatu, eta, bestetik, ordezkatzeko eskariak hitz egiten bada ere, langile berriari egokituko zaion lanpostuaren edukia kasu askotan ez dela izango ordezkatu den pertsonaren lanpostuaren berdina.

4.5. taula EAEko lan-merkatuaren aldagai nagusien 2014-2024 aldiko bilakaera

	2014	2024
Guztizko biztanleria	2.172.877	2.090.000
16 urteko eta gehiagoko biztanleria	1.827.800	1.792.267
16-64 urteko biztanleria potentzialki aktiboa	1.377.600	1.261.767
16 urteko eta gehiagoko biztanleria aktiboa	1.050.300	994.000
16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatua	898.000	934.000
16 urteko eta gehiagoko biztanleria langabea	152.300	60.000
16 urteko eta gehiagoko biztanleria ez-aktiboa	777.500	798.267
16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa	332.500	267.767
Biztanleria ez-aktiboa (16-24 urteko ikasleak)	120.000	130.000
Jarduera-tasa	75,9	78,8
Okupazio-tasa	65,2	74,0
Langabezia-tasa	14,5	6,0

Iturria: Lanbideko kabinete teknikoa

4.6. taula EAEko 2014-2024 aldiko enplegu-aukeren zenbatespena

	Enplegu-aukeren zenbatespena (kopurua)
Hedatzeko eskaria	35.686
Ordezkatzeko eskaria	266.398
Enplegu-aukerak guztira	302.084

Iturria: Lanbide

Hortaz, 35.700 bat lanpostu berri sortzea aurreikusten bada ere, ia 8 bider lan-eskaintza gehiago sortuko dira erretiroa hartuko duten langileak ordezkatu beharraren ondorioz. Azken batean, hurrengo hamarkadan bete beharreko lanpostuen % 80 baino gehiago lan-merkatua adinagatik utzi beharraren ondorioz sortuko diren lanpostu hutsak betetzearen ondorio izango dira.

Urteko kopuruei dagokienez, Lanbideren zenbatespenek guztira urteko 30.200 lanpostuko batez besteko zifra dakarte bi kontzeptuak bilduta, hots, hedatzeko eskaria eta ordezkatzeko eskaria, analizatutako aldiko batez besteko okupazioaren % 3,2 beraz.

Ondorio gisa, hurrengo hamarkadan enplegu-aukera garrantzitsuak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan, zeren aurreikusitako dinamismo ekonomikoaren ondoriozko enplegu-gehikuntza arinari gaur egun lanean ari diren langileek erretiroa hartuko dutelako ordezkatu beharko diren lanpostu ugari gehituko baitzaizkio.

4.3.3. Hurrengo urteetan langileen erretiroaren ondorioz hutsik geratuko diren lanpostuen ezaugarriak

Ordezkatzeko eskaria enplegua sortzeko faktore nagusia izango dela ikusienez, interesgarritzat jo da hurrengo 10-15 urteetan erretiroa hartuko duten langileek betetzen dituzten lanpostuen ezaugarriei buruzko analisia egitea. Lan egiten duten sektorea eta garatzen duten lanbidea ezagutzeak balio handiko informazioa eskaintzen du etorkizunean izan litezkeen defizitei buruz.

Lan horri ekiteko Lan Merkatuaren Zentsuaren datuen ustiapen espezifikoa eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta 2013. eta 2014. urteei dagokien informazioa analizatu da.


Informazio-iturri horretatik ondorioztatzen den lehen emaitzak berresten du hurrengo hamarkadan erretiroa hartzearen ondorioz lan-merkatua utziko duten langile asko egongo direla. Izan ere, 2014an lana duen biztanleriaren % 17k 55 urte baino gehiago ditu. Proporzio hori % 32raino igotzen da 50 urtetik gorako pertsonak kontuan hartzen baditugu (284.000 pertsona inguru); horrek esan nahi du gaur egun enplegua duten hiru pertsonatik batek, gutxi gorabehera, erretiroa hartzeko adina izango duela hurrengo 15 urteetan.

Sektoreei dagokienez, lehen sektorea da profil zahartuena islatzen duena, 55 urtetik gorakoek okupazioaren % 30 hartzen baitu (% 17 guztizko agregatuan); proporzio hori % 50eraino igotzen da (% 32 guztira) 50 urtetik gorakoek kolektiboa kontuan hartzen bada.

Manufaktura-industriak eta zerbitzu osagarrien sektoreak oso zahartze-indize handiak erakusten dituzte (% 20 inguru 55 urtetik gorakoak eta % 33 - % 37 50 urtetik gorakoak, hurrenez hurren). Industria metalikoak eta, batez ere, beste industria ez hain tradizional batzuek, aitzitik, profil gazteagoa erakusten dute.

Administrazio publikoak, bestalde, langile seniorren proporzio handia du bere plantillan (% 20 55 urtetik gorakoak, baina % 43 50 urtetik gorakoak). Aitzitik, finantza-erakundeak, aseguruak eta zerbitzu profesionalen adarrek eta merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreek duten 55 urtetik gorako pertsonen pisua batez besteko globala baino txikiagoa da.

4.19. grafikoa EAEko 55 urtetik gorako pertsona okupatuaren proportzioa jarduera-adarraren arabera (2014)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (Eskaintza), 2014

55 urtetik gorako biztanleria okupatuaren lanbide-taldearen arabera banaketak islatzen duenez, % 45ek zuzendaritzako lanpostua, lanpostu teknikoa edo administratiboa dute, % 42 langile kualifikatu eta makinetako langileen taldean sartzen dira, eta gainerako % 13 langile kualifikatu gabeen kategoriakoak dira.

4.7. taula Biztanleria okupatu osoaren eta 55 urtetik gorako biztanleria okupatuaren banaketa lanbidearen arabera (EAE, 2014)

	Langile okupatu guztien banaketa (%)	55 urtetik gorako langileen banaketa lanbidearen arabera (%)	55 urtetik gorako % biztanleria okupatu osoaren gainean
Zuzendaritzako langileak, langile teknikoak eta administrazio-langileak	46,9	45,0	16,2
Langile kualifikatuak eta makinetako langileak	42,6	42,1	16,7
Langile kualifikatu gabeak eta bestelakoak	10,5	12,9	20,7
GUZTIRA	100,0	100,0	16,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (Eskaintza), 2014

Banaketa hori pertsona okupatuaren kolektibo osorako emaitzazko banaketarekin konparatuz gero (haien adina kontuan hartu gabe), langile kualifikatu gabeen nagusitasuna biztanleria seniorragoaren artean handixeagoa dela ikus daiteke (% 13 eta % 10).


Adinaren eta kualifikazio-mailaren artean dagoen alderantzizko korrelazioa aditzera ematen du emaitza horrek. Erraz aurreikus daiteke etorkizunean erdi- eta goi-mailako prestakuntza duen biztanleriak gora egingo duela enplegatutako pertsonen kolektiboan, zeren, oro har, biztanleria

gazteak kualifikazio-maila handiagoa izango baitu lan-merkatua behin betiko utziko duen biztanleria langileak baino. Bilakaera-aurreikuspenek adierazten dute, gainera, emakumeek aurrera egiteko aukera handiagoak dituztela gizonek baino.

Gizonen pisua, biztanleria okupatu osoan nagusi, larriagotu egiten da adinez zaharragoak diren biztanleen artean: 55 urtetik gorako kolektiboaren % 58 dira eta enplegu osoan duten pisua % 53 da. Horrek egiaztatu den enpleguen feminizazio progresiboa aditzera ematen du: 1996an emakumeek EAEko produkzio-enpleguaren % 33 hartzen zuten eta 2014an enpleguen % 46 kontzentratzen dute. Emakumeek enpleguan duten parte-hartzearen aurrerakada zerbitzu-sektoreari dagokio batez ere; emakumeek hirugarren sektoreko enpleguaren % 58 bereganatzen dute 2014an (1996an % 45) eta haien pisua izugarrikoa da hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan, gaur egun lau enplegutik hiru xurgatzen dituzte-eta.

Kategoria profesionalari dagokionez ere, esanguratsua da lan kualifikatu gabeak 55 urtetik gorako emakume okupatuaren artean duen pisua, batez ere emakumeen enplegu osoan duen garrantziarekin konparatzen badugu: % 23 eta % 15. Horrenbestez, emakume okupatu helduagoen kualifikazio-profil txikiagoa nabarmentzen da.

4.20. grafikoa Emakumeen pisua biztanleria okupatu osoaren gainean eta 55 urtetik gorako biztanleria okupatuaren gainean, kategoria profesionalaren arabera (2014)




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (Eskaintza), 2014

Sektorearen eta talde profesionalaren araberako zahartze-indizea kontuan hartuz gero, ikus daiteke langile kualifikatu gabeen kategoria dela adinaren ondoriozko presiorik handiena duena, merkataritza eta ostalaritza, eraikuntza eta bestelako industriaren sektoreetan ez beste guztietan.

Manufaktura-industrian 55 urtetik gorako langileen proportzioa bereziki nabarmena da langile kualifikatuak eta makinetako langileen taldean: % 22 dira, nahiz eta kategoria horiek sektorean duten pisua % 17koa den.

4.21. grafikoa EAEko 55 urtetik gorako biztanleria okupatua (%) sektorearen eta lanbidearen arabera (2014)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (Eskaintza), 2014

Langile kualifikatu gabeen presentzia bereziki garrantzitsua da zerbitzu osagarrien sektorean eta bestelako zerbitzuetan (etxekoa, esate baterako). Lehen sektorea alde batera utzita, egiazta daiteke zerbitzu osagarrien sektorea dela langile kualifikatu gabeen pisu handiena duena (% 32, % 10eko batez besteko globalaren parean). Gainera, ikus daiteke sektore horretan eta industria metalikoan kontzentratzen direla zahartze-ratiorik handienak.

4.8. taula EAEko langile kualifikatu gabe guztien eta 55 urtetik gorakoen kolektiboaren proportzioa jarduera-adarraren arabera (2014)

	Langile kualifikatu gabeak eta bestelakoak biztanleria okupatu osoaren gainean (%)	55 urtetik gorako langile kualifikatu gabeak eta bestelakoak (%)
Nekazaritza eta arrantza	12,4	30,9
Manufaktura-industria	7,7	20,0
Industria metalikoa	6,8	23,9
Bestelako industria	9,2	11,8
Eraikuntza	4,3	2,4
Merkataritza eta ostalaritza	7,8	11,8
Finantza-erakundeak, aseguruak eta zerbitzu profesionalak	1,1	20,8
Zerbitzu osagarriak	31,7	24,5
Administrazio publikoa	5,7	22,1
Hezkuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuak	4,5	20,5
Bestelako zerbitzuak	36,8	22,7
Guztira	10,5	20,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Zentsua (Eskaintza), 2014

4.3.4. Enplegu-aukerak lanbide-arloaren eta sektorearen arabera

Lanbidek egin dituen 2024rako enplegu-aukerari buruzko proiektioek lanbide-arloak hartu dituzte ardatz. Ildo horretan, aztertu dute horietako zein dauden belaunaldi-erleleboko indize handiekin lotuta eta/edo zeinetan espero den enplegu berrien sorkuntza garbia. Gai horretan sakontzeak aukera ematen du eskaintzaren eta eskariaren artean izan litezkeen tentsioei aurrea hartzeko eta, halaber, gazteei lanbide bat edo beste hautatzeko eskaintzen zaizkien orientabideak hobetzeko.

Lan horren¹¹ emaitzak ikusita egiazta daiteke enplegu garbiaren sorrera eta lan-merkatua behin betiko utziko duten langileak ordezkatzeko premiak oso modu desberdinetan konbinatzen direla lanbide-arloaren arabera.

Enplegu-sorkuntza garbia izango duten lanbide-arloetan zentratuta eta sortutako aukeren bolumena (termino absolutuetan) kontuan harturik, nabarmentzekoak dira, hirugarren sektorearen barruan, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak eta Merkataritza eta Marketina lanbide-arloen esparruan sortuko diren lanpostuak eta, industriaren barruan, Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloaren esferan sortuko direnak. Hiruren artean lanpostuak sortzeko itxaropenak dituzten lanbide-arloekin lotutako enplegu berrien % 60 xurgatuko lituzkete. Horiei Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arloaren sektorean espero diren enpleguak gehitzen badizkiogu, proportzioa % 70eraino hazten da.


Dena dela, enplegua sortzeko batez besteko globala baino indize handiagoak erretiroaren ondoriozko "lanpostu hutsen" batez bestekoa baino ratio handiagorekin konbinatzen dituzten lanbide-arloak kontuan hartuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: Fabrikazio Mekanikoa; Osasungintza; Merkataritza eta Marketina; Ostalaritza eta Turismoa; Instalatze eta Mantentze

¹¹ Lanbidek Eustaten proiektio demografikoei buruzko datuak eta lan-merkatuaren hazkunde ekonomikoari eta bilakaerari buruzko EAERako hipotesi propioak erabili ditu, CEDEFOPen informazioa hartuta abiapuntu erreferentziatzat. Halaber, INCUAL kualifikazioen institutuaren lanbide-arloen eta jarduera-adarren arteko korrespondentzia ere erabili da.

Lanak; Eraikuntza eta Obra Zibila; Gizarte eta Kultura Zerbitzuak; eta Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak. Horiek izango lirateke, horrenbestez, enplegu-aukera garrantzitsuak lotuta izango lituzketen lanbide-arloak.

Enplegu-aukerak sortzeko bi faktoreak, hots, hedatzeko eskaria edo enpleguak dinamismo ekonomikoaren ondorioz sortzea eta ordezkatzeko eskaria, bereizten badira, langileek erretiroa hartu izanaren ondoriozko presiorik handienak dituzten lanbide-arloak Fabrikazio Mekanikoa eta Osasungintza direla egiazta daiteke.

4.22. grafikoa Batez besteko globala baino enplegu-hazkunde garbi handiagoa duten lanbide-arloetako erretiroaren ondoriozko irteerak eta enplegu-sorkuntza. Egun dagoen enpleguaren gaineko urteko %



Iturria: Lanbideko kabinete teknikoa

Beste lanbide-arlo batzuek, aitzitik, enplegu garbiaren galerak izango dituzte, erretiroaren ondorioz lan-merkatua utziko duen langile kopuru gutxi-asko garrantzitsuekin konbinatuko direnak.

Ildo horretan, enplegu garbiaren galerak eta erretiroaren ondoriozko lanpostu hutsak betetzeko premia garrantzitsuak konbinatzen dituzten lanbide-arloak honako hauek dira: Erauzketa Industriak; Administrazioa eta Kudeaketa; Arteak eta Eskulangintzak; Nekazaritza; eta Energia eta Ura.

Bestalde, aurreikuspenen arabera enplegu-suntsiketa izango duten eta ordezkatzeko eskari positiboarekin suntsiketa hori konpentsatzera iritsiko ez diren lanbide-arloak honako hauek dira: Itsasoa eta Arrantza; Beira eta Zeramika; eta Zurgintza, Altzarigintza eta Kortexoa.

Adierazi beharra dago, alabaina, bete beharreko lanpostu gutxi dituzten sektoreek, eskari-presiorik ez dutenek, ez dutela zertan izan langileak biltzerakoan arazo gutxien izango dituztenak, zeren litekeena baita langileak erakartzeko edo fidelizatzeko zailtasunei aurre egin behar izatea.

Informazio osagarri interesgarria da, bestalde, LHko lanbide-arloetako tituludunek duela gutxi enplegua zein jarduera-sektoretan aurkitu duten jakitea.

2013an titulua eskuratu duten ikasleek lortu duten lanpostuari buruzko datuak¹² kontuan hartuta, ikus daiteke, Nekazaritza eta Abere Hazkuntza eta Itsasoko eta Arrantzako Jarduerak lanbide-arloak alde batera utzita, ikasle egresatuen % 70ek zerbitzu-sektorean lortu zutela enplegua.

Lanbide-arlo bakoitzerako emaitzak analizatuz gero, ikus daiteke industriak Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloko tituludunek lortutako enpleguaren % 82 kontzentratzen duela. Horrek adieraziko luke, a priori behintzat, prestakuntzaren eta sektorearen arteko nolabaiteko "doikuntza" dagoela. Enplegua aurkitu duten jarduera-adar adierazgarrienak, hain zuzen ere, Metalurgia, Produktu metalikoen fabrikazioa eta Makineria eta tresneria mekanikoa eraikitzeke industria izan dira.

Elektrizitatea eta Elektronika, Produkzio Zerbitzua eta Mantentzea eta Zurgintza eta Altzarigintza lanbide-arloetako tituludunen artean ere industria-sektorea da hartzaile nagusia, baina zerbitzu-sektoreak ere garrantzi handia du.

Emaitza horiek enplegu "bideratuaren" mailari (jasotako prestakuntzaren arabera garatutako zereginak eta funtzioak) buruzko behin betiko ondorioak ateratzeko nahikoa ez badira ere, azpimarratzeko moduko datu batzuk nabarmen daitezke, esate baterako Eraikuntza eta Obra Zibila edo Kimika lanbide-arloei dagozkienak, horietan bigarren sektorearen adierazgarritasuna oso urria da-eta. Krisi ekonomikoa azpian dago, dudarik gabe, eskuratutako titulazioaren eta pertsona egresatuak garatu behar duen jardueraren arteko desoreka asko argitzen dituen elementu gisa.

Bestalde, garrantzi handiko pisu absolutua eta erlatiboa duten beste lanbide-arlo batzuetan arreta jarrita, hala nola Osasungintza eta Kultura eta Gizarte Zerbitzuak lanbide-arloetan, egiazta daiteke enplegu ustez "bideratuaren" proportzioa handia dela bi kasuetan, hots, osasun-jarduerak adiera hertsian lehen kasuan eta hezkuntza-jarduerari, asoziatiboari eta kulturalei lotutako enpleguak bigarrean.

¹² 2014ko udazkenean egindako inkesta. EAEko ziklo finalisten LHko ikasleei egin zaie, aktibo daudenei, lan esperientzia dutenei eta titulazioa 2013an lortu dutenei.

4.9. taula EAEko lanbide-heziketako tituludunei enplegua eman dien jarduera-sektorea lanbide-arloaren arabera. 2013ko promozioa

	Industriaren/eraikuntzar en sektorea	Zerbitzuak	Guztira
Jarduera Fisikoak eta Kirolak	8,9	91,1	100
Administrazioa	20,3	79,7	100
Arte Grafikoak	42,2	57,8	100
Merkataritza eta Marketina	15,0	85,0	100
Komunikazioa, Irudia eta Soinua	15,4	84,6	100
Eraikuntza eta Obra Zibila	24,1	75,9	100
Elektrizitatea eta Elektronika	61,6	38,4	100
Fabrikazio Mekanikoa	81,6	18,4	100
Irudi Pertsonala	0,7	99,3	100
Elikagaien Industriak	0,0	100,0	100
Informatika	13,0	87,0	100
Zurgintza eta Altzarigintza	60,9	39,1	100
Ibilgailuen Mantentzea	24,4	75,6	100
Produktio Zerbitzua eta Mantentzea	66,0	34,0	100
Kimika	31,4	68,6	100
Osasungintza	4,0	96,0	100
Gizarte eta Kultura Zerbitzuak	2,7	97,3	100
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	7,7	92,3	100
Energia eta Ura	46,7	53,3	100
GUZTIRA*	29,9	70,1	100

* Nekazaritza eta Abere Hazkuntza eta Itsasoko eta Arrantzako Jarduerak lanbide-arloak alde batera utzita

Iturria: Bertan landutakoa, Lanbideko Kabinete Teknikoaren datuak abiapuntu hartuta. Lan-munduan txertatzearen jarraipena egiteko inkesta

Atal hau amaitzeko, Hiruko Fundazioaren txostenen arabera 2011n enplegu-aukerei buruzko itxaropen onenak eskaintzen zituzten azpisektoreen xehetasunak biltzen dituzte ondorengo bi taulek.

4.10. taula Espainian erdi- eta goi-mailetan enplegu-aukeren itxaropen onenak dituzten azpisektoreak

Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuak eta gizarte-arreta ✓ Telekomunikazioak ✓ Prestakuntza ✓ Ingurumena ✓ Kirola ✓ 3D irudien, irudi birtualen eta bideojokoen diseinua ✓ Diseinu industrialia ✓ Osasun- eta farmazia-jarduerak
Industria	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Energia berriztagarriak ✓ Industria-ingeniaritzak ✓ Osagai elektronikoen fabrikazioa ✓ Eraikuntza: eraikinak birgaitzea

Iturria: Hiruko Fundazioa. Espainiako Lanbide Heziketaren Eskaintzaren Mapatik hartua

4.11. taula Espainian behe-mailetan enplegu-aukeren itzaropen onenak dituzten azpisektoreak

Gizarte-zerbitzuen esparruan	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Etxeko laguntza ✓ Garbitzaile espezializatua ✓ Adinekoentzako arreta ✓ Haurrentzako arreta
Merkaturatzearen eta salmentaren esparruan	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Telefono bidezko salmentarako operadoreak ✓ Saltzaileak
Komunikazioen esparruan	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Interneteko komunikazioen kudeatzailea ✓ Sare sozialetako komunikazio-arduraduna ✓ Eraikuntzaren esparruan: eraikinak birgaitzea
Ingurumenaren esparruan	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Hondakinen kudeaketa ✓ Energia berriztagarriak

Iturria: Hiruko Fundazioa. Espainiako Lanbide Heziketaren Eskaintzaren Mapatik hartua

4.3.5. Lanbide-arlo bakoitzean enplegua sortzeko perspektiben eta EAEko Lanbide Heziketako ikasleen duela gutxiko bilakaeraren arteko kontrastea

Atal honen helburua da lanbide-arlo bakoitzean enplegua sortzeko/suntsitzeko perspektibak, egungo plaza-eskaintza eta LHko ikasle tituludunen duela gutxiko bilakaera kontrastatzeko lana egitea, desoreken seinalerik dagoen ala ez edo desadostasunak sumatzen diren egiaztatzeko. Beste termino batzuetan analizatu nahi da enplegu-aukerak zenbatesten diren puntuetan titulazioen gehikuntzarik izan den eta prestakuntza-plazen eskaintza adierazgarria egiaztatzen den.

Datuak aztertuta egiazta daiteke esparru batzuetan enplegu-aukerak aurreikusten direla baina esparru horietan ikasle kopuruak behera egin duela 2008-2012 bosturteko batez bestekoak kontuan hartzen badira eta krisia hasi aurreko 2003-2007 bosturtekoan ikusi zirenekin konparatzen badira.

Industriaren esferan, hala gertatzen da Fabrikazio Mekanikoan, LHko ikasle-proporzio handienetakoa duen lanbide-arloan. Litekeena da krisiaren inpaktu gogorak eta prestakuntza-espezialitateen eskaintza handiagoak eragin izana ikasleek aukera horren alde egiteko joeran. Ikus daitekeenez, Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloan okupazio-tasak % 90 ingurukoak ziren krisia hasi aurreko urteetan eta krisialdian zehar % 60 baino jaitsi dira. Plaza-eskaintzari dagokionez, Hezkuntza Ministerioaren 2011rako datuen arabera, EAEn lanbide-arlo horri zegozkion mila soldatako langileko eskaintako plazen ratioa 12koa zen, Nafarroa, Katalunia edo Kantabria bezalako erkidegoetan erregistratutako zifrak baino txikiagoa (17-23 tartean kokatzen ziren).

Ikasle kopuruari dagokionez garrantzi handiagoa duten beste lanbide-arlo batzuk kontuan harturik, egiazta daiteke enplegu-itzaropen positiboek bat egiten dutela krisialdian aurreko alditik ikasle kopurua murriztu izanarekin Informatika eta Komunikazioak, Kimika edo Merkataritza eta Marketina lanbide-arloetan. Egoera horretan egongo lirateke, hots, enplegu-perspektiba onekin baina ikasle kopuruak behera eginda, Arte Grafikoak, Ostalaritza eta Turismoa eta Komunikazioa, Irudia eta Soinua lanbide-arloak ere.

Nabarmentzeko modukoa da, alabaina, erabili diren datuen arabera, Osasungintza eta Gizarte eta Kultura Zerbitzuak lanbide-arloetan izango litzatekeen ustezko sintonia, oso garrantzitsuak baitira

xurgatutako ikasleen kuotari dagokionez. Lanbide-arlo horietan, enplegu-perspektiba positiboekin batera, matrikulatutako ikasle kopuruaren gehikuntza garrantzitsuak izango lirateke. Hala eta guztiz ere, plaza-eskaintza, sektoreko soldatako biztanleriarekiko ratio gisa adierazia, 2011n behintzat, mugatua dela dirudi Kantabriako, Kataluniako edo Nafarroako adierazleekin konparatzen badugu.

4.12. taula EAE n hurrengo urteetan enplegu garbia sortzeko perspektiben eta ikasle kopuruaren iragan hurbileko bilakaeraren arteko kontrastea lanbide-arloaren arabera

	Aurreikusitako enplegu garbiaren hazkundera	Ikasleak			Lanbide-arlo bakoitzari dagozkion mila soldatako langileko LHko plazen eskaintza (2011)
		Batez besteko ikasle kopurua (2003-2007)	Batez besteko ikasle kopurua (2008-2012)	Ikasle kopuruaren aldakuntza-tasa	
Jarduera Fisikoak eta Kirolak	Positiboa	178	284	59,4	29
Arte Grafikoak	Positiboa	199	144	-27,7	18
Merkataritza eta Marketina	Positiboa	454	359	-20,9	2
Komunikazioa, Irudia eta Soinua	Positiboa	170	157	-7,3	15
Eraikuntza eta Obra Zibila	Positiboa	220	242	9,6	9
Fabrikazio Mekanikoa	Positiboa	1.367	1.031	-24,6	12
Informatika eta Komunikazioak	Positiboa	851	481	-43,6	53
Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak	Positiboa	414	464	12,3	14
Produktio Zerbitzua eta Mantentzea	Positiboa	491	570	16,2	41
Kimika	Positiboa	323	184	-43,1	3
Osasungintza	Positiboa	895	1.106	23,5	13
Gizarte eta Kultura Zerbitzuak	Positiboa	532	965	81,4	6
Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	Positiboa	22	30	38,5	3
Irudi Pertsonala	Positiboa	371	368	-0,9	17
Ostalaritza eta Turismoa	Positiboa	433	360	-16,8	5

Iturria: Lanbide, Lanbide-arloen arabera enpleguaren hazkunderari buruzko zenbatespenak; eta Hezkuntza Ministerioa, Espainiako Lanbide Heziketaren Eskaintzaren Mapa

4.4. EAEko sektore estrategikoak eta hazteko ahalmena dutenak

Eusko Jaurlaritzak (euskal lurralde-erakundeen parte-hartzearekin batera) berriki landu dituen plangintzako eta estrategiako txosten eta dokumentuek EAEko espezializazio sektorialari eta gure ekonomiaren produktibitateari eta lehiakortasunari buruzko analisiak jaso dituzte eta hainbat sektore estrategiko identifikatu dituzte.

4.13. taula Enpleguari eta garapen ekonomikoari eta lehiakortasunari lotutako estrategia eta gobernu-plan nagusiak

- 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana
- 2014-2016ko Industrializazio Plana
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Plana (ZTBP)
- 2014-2016 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana
- Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Plana
- 2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Plana
- 2020rako Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa
- RIS3 Espezializazio Adimendunerako Euskal Estrategia
- Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa
- Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia
- 2020ko Euskadiko Ingurumeneko IV. Esparru Programa
- 2014-2020ko Osasun Plana
- 2015-2018ko Unibertsitate Plana
- 2014-2016ko *Lanbide Heziketako Euskal Plana (+ EAEko Lanbide Heziketaren Legearen aurreproiektua)*

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planak (ZTBP) zehatz-mehatz analizatu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko lehia-egoera eta ekonomian, zientzian, teknologian eta I+Gn duen espezializazio-maila.

Analisi horien emaitzek nabarmendu dute EAEk espezializazio erlatibo handia duela industria-sektore jakin batzuetan eta, neurri txikiagoan, industriarekin erlazionatutako zerbitzu batzuetan. Izan ere, arreta sektore esportatzaileen taldean jarriz gero, espezializazio handia ikus daiteke metalurgian eta produktu metalikoetan, eta ondoren datoz material elektrikoak, kautxua, plastikoak eta beste ez-metalikoak eta makinak eta ekipamenduak.

4.14. taula Sektoe esportatzaileen intentsitate teknologikoaren / jakintza intentsiboaren xehetasuna eta EAEko 2012ko BEGaren gaineko ehunekoa

SEKTORE ESPORTATZAILEAK	BEG %	Espezializazioa (enpleguaren arabera) *	Produktibitatea (BEG/enplegua)	EAEko esportazioa	Intentsitate teknologikoa
1. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	% 0,9	70	22	Txikia	Txikia
2. Erauzketa-industriak	% 0,1	25	121	Txikia	Txikia
3. Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak	% 1,5	72	58	Ertain-txikia	Txikia
4. Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	% 0,2	33	40	Txikia	Txikia
5. Zura, papera eta arte grafikoak	% 1,3	117	58	Txikia	Txikia
6. Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	% 0,1	127	105	Ertain-txikia	Ertain-txikia
7. Industria kimikoa	% 0,7	45	89	Txikia	Ertain-handia / Handia
8. Farmazia-produktuak	% 0,7	45	89	Txikia	Ertain-handia / Handia
9. Kautxua, plastikoak eta beste ez-metalikoak	% 2,4	168	66	Txikia	Ertain-txikia
10. Metalurgia eta produktu metalikoak	% 6,4	313	54	Handia	Ertain-txikia
11. Produktu informatikoak eta elektronikoak	% 0,4	79	46	Handia	Handia
12. Material eta tresneria elektrikoa	% 1,2	205	59	Handia	Ertain-handia
13. Makinak eta ekipamenduak	% 2,4	140	66	Handia	Ertain-handia
14. Garraio-materiala	% 2,2	94	74	Handia	Ertain-handia
15. Altzariak eta beste zenbait manufaktura-industria	% 0,9	93	42	Ertain-txikia	Txikia
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	% 2,8	35	716	Handia	Ertain-handia
17. Ur-hornidura eta saneamendua	% 0,6	89	61	Txikia	Txikia
18. Eraikuntza	% 7,2	103	61	Txikia	Txikia
20. Garraioa eta biltegiatzea	% 5	85	70	Txikia	Txikia
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	% 0,6	64	58	Txikia	Handia
23. Telekomunikazioak	% 1,9	53	375	Txikia	Handia
24. Informatika	% 1,1	81	48	Txikia	Handia
25. Finantza- eta aseguru-jarduerak	% 6,4	63	171	Txikia	Handia
27. Aholkularitza eta jardura teknikoak	% 4,4	109	59	Txikia	Handia
29. Beste jardura profesional batzuk	% 0,7	100	40	Txikia	Txikia
GUZTIRA	% 51,5	102	69		

Espezializazio-erreferentzia: EB15=100

Iturria: RIS3 Euskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimendunerako lehenetasun estrategikoak.

Arreta barne-eskariko sektoreetan jarrita, eta etxeetako jarduerak alde batera utzita, bereziki nabarmentzen dira zerbitzu osagarriak eta ikerketa eta garapeneko zerbitzuak.

4.15. taula Barne-eskariko sektoreen jakintza intentsiboaren xehetasuna eta EAEko 2012ko BEGaren gaineko ehunekoa

BARNE ESKARIKO SEKTOREAK	BEG %	Espezializazioa (enpleguaren arabera) *	Produktibitatea (BEG/enplegua)	Jakintza intentsiboa
19. Merkataritza; ibilgailuen konponketa	% 10,4	96	44	Txikia
21. Ostalaritza	% 4,6	106	49	Txikia
26. Higiezin jarduerak	% 10,6	79	952	Txikia
28. Ikerketa eta garapena	% 0,7	152	64	Handia
30. Zerbitzu osagarriak	% 2,7	132	28	Txikia
31. Administrazio publikoa eta defentsa	% 5	75,	54	Handia
32. Hezkuntza	% 4,8	93	41	Handia
33. Osasun-jarduerak **	% 5,4	68	70	Handia
34. Gizarte-zerbitzuetako jarduerak	% 1	47	25	Handia
35. Jolas- eta kultura-jarduerak	% 1,3	48	55	Handia
36. Bestelako zerbitzuak	% 1	151	25	Txikia
37. Etxeetako jarduerak	% 1	486	8	Txikia
38. Lurraldez kanpoko erakundeak	-	-	-	Txikia
GUZTIRA	% 48,5	97	50	

** Osasun-jarduerak espezializazio erlatibo handiagoa dute balio erantsiaren terminoetan (104) enpleguan. 2013ko ekitaldiko datuak hartuta, osasungintzaren sektoreko enpleguaren proportzioa Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoaren % 7tik gora hazten da.

Iturria: RIS3 Euskadi. Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimendunerako lehentasun estrategikoak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planean (ZTBP) irudikatu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko lehia-abantailei eta ikerketaren, berrikuntzaren, produkzio-ahalmenen eta gizarte-erronken eta merkatu-aukeren arteko sinergieiei buruzko emaitzak oinarri hartuta, RIS3 Euskadi dokumentua landu zen. Bertan ezartzen dira Espezializazio Adimenduneko Lehentasun Estrategikoak, dauden ezaugarri eta aktiboen identifikaziotik abiatuta, Euskal Autonomia Erkidegoaren produkzio-transformazioari sostengua emateko.

Lehentasunak hautatzean hiru irizpide daude azpian:

- Enpresa-ehun lehiakorren eta gaitasun zientifiko-teknologiko diferentzietan bermatuta egon behar dute.
- Jakintzan oinarritutako soluzioak eskaintzeko ahalmena duten arloetako gizarte-erronkei aurre egin behar diete.
- Laguntza-tresnak izan behar dituzte (estrategiak, laguntza-programak eta abar).

Irizpide horiek aplikatzeak honako lehentasun bertikal hauek definitzea ekarri du:

- Gaitasun zientifiko-teknologikoen zein enpresa-gaitasunen ebidentziak eta dimentsioa dituzten lehentasun orekatuak: Fabrikazio Aurreratua eta Energia. Aukera-esparru horiek energia-erronkarekin (energia segurua, garbia, eraginkorra) eta klima-aldaketaren eta iraunkortasunaren erronkarekin lotzen dira.

- Gaitasun zientifikoaren ebidentziak baina enpresa-gaitasun mugatuak dituen lehentasun bat (goraka ari den sektorea): Biozientziak. Aukera-esparru hori osasunaren eta zahartzearen erronkarekin loturik agertzen da.

Hiru lehentasun (bertikal) horiez gain, lurraldeari lotutako gaitasun zientifiko-teknologikoko nitxoak identifikatu dira, hala nola iraunkortasunari eta giza inguruneari lotuago dagoen nekazaritzako elikagaien industria, ekosistemen inguruko jarduera espezifikoak, lurralde-plangintza eta hiri-berroneratzea eta aisiarekin eta entretenimenduarekin erlazionatutako nitxoak. Aukera-esparru horiek hainbat erronkarekin loturik egongo lirarteke: osasuna (elikagaien segurtasuna), zahartzea, iraunkortasuna (nekazaritza iraunkorra, itsasoko eta itsasaldeko ikerketa), urbanizazioa, mugikortasuna, osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea.

Ondoren, hiru lehentasun bertikalei buruzko zehaztapen batzuk jasoko dira: Fabrikazio Aurreratua, Energia eta Giza Osasuna.

FABRIKAZIO AURRERATUA

EAE, EB-28ren aldean, fabrikazio aurreratuan espezializatuta agertzen da, eta gaitasun-kontzentrazio handiena batzen du, bai baliabide zientifiko-teknologikoak eta I+G emaitzak metatzeari dagokionez, bai ikerketaren hartzaile eta ustiatzaile diren enpresa-sektoreen dimentsioan.

Fabrikazio Aurreratuaren lehentasuna produktu berriak sortzera, material berriak sartzera eta fabrikazio-prozesuak hobetzera bideratutako jarduera bat dela ulertzen da. RIS₃ dokumentuan bildutako definizio zehatza hau da: "produkzio-bide eta -sistemetan adimena sartzera, goraka ari diren teknologiak eta gaitasunak produktu eta prozesu berrietan aprobetxatzea, material aurreratuak balio erantsi handiagoko soluzioetan edo prozesu hobetuetan integratzea, erabilitako baliabideen eraginkortasuna eta iraunkortasuna erdiestea eta balio erantsi handiko zerbitzuak integratzea. Inplikaturako enpresa-jarduerak garraioaren industria-sektorearekin (automobilgintza, aeronautika, trenbidea eta ontzigintza), ekipamendu-ondasunekin eta beste industria-sektore batzuekin erlazionatutakoak dira, baita energiaren eta biozientzien lehentasunekin erlazionatutako industrializazioa ere. Aplikatu beharreko soluzioek material berrien ahalmen berritzailea eta fabrikazio-teknologia aurreratuak sartuko dituzte, baita nanoteknologia, mikroteknologia, fotonika eta IKTak ere, eta teknologia tradizionalen ekarpena ere handia izango da (ingeniaritza, mekanika, elektronika, metalurgia eta abar), baita gaitasuna eta dimentsioa duten funtsezko zientzietan oinarritutakoena ere (fisika-zientziak, kimika-zientziak, matematika, informatika eta abar)".

Industria-soluzio berri lehiakorragoak sortzeko premiarekin (nazioarteko lehia gero eta handiagoaren aurrean), baliabideen eta lehengaien erabilera eraginkorrenekin eta produkzio iraunkorrenekin erlazionatutako erronkei erantzutea da lehentasun honen azpian dagoen azken helburua.

ENERGIA

RIS3 Euskadi Estrategiak, 2014-2016ko Industrializazio Planarekin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Planarekin lerro-lerro, energia hautatu du lehentasun estrategikoen artean, energiaren esparruan garapen zientifiko-teknologikoaren eta ekonomia- eta enpresa-garapenaren alde eginez.

2020rako Euskadiko Energia Estrategia oso lerrotuta dago Europar Batasunaren lehentasunekin. Izan ere, energia berriztagarrien eta energia-eraginkortasunaren esparruak bereziki nabarmentzen dituen energia-estrategia onartu du.

Energiaren sektorea eragin handiko sektore estrategikotzat jotzen da EAEn, eta nazioarteko lehia handia jasaten du hiru azpisektore garrantzitsuetan: energiaren sorkuntza, ekipamendu-ondasunen fabrikazioa eta energia-ingeniaritzako zerbitzuak.

Sektorearen osagai teknologikoa handia da eta hiru azpisektoreak munduko liderrak dira energia berriztagarrietan. Bere garapenak inplikazio handiak ditu IKTen eta tresneria elektronikoen sektorearekin eta biozientzien industriarekin.

Zeharkakotasun-maila ere handia da, funtsezko inplikazioa baitu energia-mendekotasun handia duten euskal sektore tradizionalen (metala, papera, kimika eta abar) garapen lehiakorrean.

Energia berriztagarrien garapenak bultzada eman diezaieke automobilgintzari edo ekoindustriari eta industria tradizionaleri (ontzigintza, kimika, metala).

Trakzio-sektorea da iraunkortasunean eta teknologia garbietan (ingurumeneko zerbitzu eta ondasunen sektorearekin batera), eta teknifikazioaren eragin handia izango du bionanoteknologiaren ondorioz.

Sektoreak talentua erakartzeko eta atxikitzeko politika aktiboak beharko ditu, langile kualifikatuak ziurtatzeko eta sektorearen hazkundera eta nazioartekotzea ahalbidetzeko.

BIOZIENTZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia garatzeko ahalmena duten esparruetarantz dibertsifikatzen laguntzeko apustu estrategiko baten ondorio da Biozientzien lehentasuna:

- Ikerketa medikoa, ikerketaren industria-ustiapenak ardatz hauek izanik:
 - Medikuntza pertsonalizatua
 - Teknologia medikoak, osasun-teknologiak eta hornidurak
- Zahartzearekin erlazionatutako garapen mediko eta teknologiko berriak
- Nitxo jakin batzuk elikadura osasungarriarekin eta ekosistemekin erlazionatutako prozesu eta produktuen esparruan.

Zuzenean inplikaturako sektorea osasunarena da (farmazia, ekipamenduak eta hornidurak, teknologia medikoak, osasun-laguntza) eta, zeharka, dibertsifikatzeko ahalmena eskaintzen du (osasungintzaren munduarekin erlazioatutako soluzioen garapena) beste industria-jarduera tradizional batzuetatik (hala nola makina-erreminta)...

Osasunaren sektorea da zuzeneko inplikaziorik handiena duena. Zahartzea osasun-ikuspuntutik (eta teknologien ikuspuntutik) barne hartzen duen giza osasunaren segmentuan kontzentratzen da jarduera nagusia.

Bere soluzioetan bioteknologia, material berriak, nanoteknologia, mikroteknologia eta IKTak integratzeko ahalmena sortu beharko du, garrantzi berezia emanez teknologia horietako zenbait aldi berean biltzeari.

Biztanleriaren osasunarekin eta zahartzearekin erlazioatutako gizartearen etorkizuneko erronka handiei erantzutea da azken helburua.

4.5. Enpleguaren eta enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreen bilakaera zehaztuko duten joerak

4.5.1. Enpleguari eta prestakuntzari buruzko joera orokorrak

"The Future of Work. Jobs and Skills in 2030" (UK Commission for Employment and Skills, 2014) azterlanaren arabera, epe luzean enpleguaren eta kualifikazioen gainean eragina izango duten hainbat joera global hautematen dira negozioretan eta gizarteetan:

- Goraka ari diren ekonomiak gero eta ordezkartza handiagoa hartzen ari dira produktio-kate globaletan.
- Aldaketa demografikoa eta migrazioa biztanleria aktiboa transformatzen ari dira.
- Aurrerabide teknologikoak sektoreen arteko mugak pixkanaka lausotzen ari dira eta lan egiteko modu tradizionalak aldatzen ari dira.
- Enpresetako antolakuntza-egiturak lan gero eta malguagorantz eta neurri handiagoan sarean egindakorantz bilakatzen ari dira.

Aldaketa korapilatsu eta bizkor horiek enpleguari eragiten ari zaizkio mundu osoan, etengabe desafio eginez hezkuntza-politiken orekari eta merkatuko eskaintzari eta eskariari. Ondoren enpleguari eta prestakuntzari buruzko etorkizuna modelatzen duten joera nagusiak deskribatzen dira, faktore sozialak, teknologikoak, ekonomikoak, ekologikoak eta politikoak aipatzen dituztenak:

- Aldaketa demografikoak: biztanleria langilea "baby boom" ospetsuko biztanleria erretirora iristean markatzen duen zahartze-prozesua jasaten ari da. Europako herrialde askotan, alabaina, migrazioak konpetentzia-urritasuna arintzen lagundu du.

- Gero eta aniztasun handiagoa: emakumeek gizartean eskubide-berdintasuna bilatzen jarraitzen dute; hortaz, emakumeak lan-merkatuan izango duen eginkizunak hazten jarraituko du. Langileen mugikortasuna eta teknologia berriak areagotzearen ondorioz, hainbat kulturak, erlijioak, arrazak eta hizkuntzak parte hartzen duten lan-merkatua sortzen ari da.
- Ziurgabetasuna diru-sarreraren mailan: hazkunde ekonomiko txikiaren ondorioz, Europako familiek gero eta ziurgabetasun handiagoa dute beren diru-sarreraren mailari buruz. Laneko ziurtasunik ezak eta aberastasunaren desberdintasunak ere gora egin dute.
- Bizitza pertsonalaren eta lan-bizitzaren arteko oreka hobea nahi izatea: lan-malgutasunak aukera ematen dio familiari lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka hobea izateko. Pizgarri tradizionalagoz gain, onura berriak sartzen dituzte erakundeek profesionalak atxikitzeko.
- Aldaketak lan-giroan: lanpostuak eta lan egiteko modua malgutasunaren gehikuntzaren eta negozioaren aldakortasunera egokitzeko premiaren presiopean daude. Enpresen esternalizazioaren eta gero eta nazioartekotze handiagoaren ondorioz, gero eta ugariagoak dira kanpoko kolaboratzaileekin egiten diren proiektuak eta talde-lana. Eraitza gisa, erantzukizun-maila desberdinetako pertsona gehiago parte hartzen ari dira enpresetan erabakiak hartzen. Gainera, etengabeko prestakuntza behar da teknologian.
- Bat egiten duten teknologiak eta zeharkako kompetentziak: natura-zientzien eta informatikaren arteko muga gero eta lausoagoa da. Diziplinak eta teknologiak bat egiten ari dira, batez ere nanoteknologian, bioteknologian, informazioaren teknologian eta zientzia kognitiboan, eta egun dauden negozio-ereduak aldatzen eta merkatu berriak sortzen ari dira.
- Produkzio-prozesuen digitalizazioa: industrializazioaren aro berri bat bultzatzen ari da digitalizazioa. Makina, material eta produktuen arteko berehalako datu-trukearekin, produkzio-sistemak gero eta autonomoagoak dira. Bestalde, 3D inprimaketa-teknikek produkzio-prozesu berri konplexu eta deszentralizatuak ahalbidetzen dituzte.
- IKTen garapena eta Big Data: IKTen garapenak errendimendua eta nanoteknologia areagotzea ahalbidetzen du. Gero eta gailu mugikor adimendun gehiago izatea, Internetarako sarbide bizkorragoarekin konbinatuta, informazioarako eta komunikabideetarako sarbide unibertsala ahalbidetzen ari da. Datuen kudeaketa eraginkorra oso garrantzi handia hartzen ari da: datuen bilketa, biltegitratzea eta haiek analizatzeko ahalmena nabarmen handitzen ari da.
- Perspektiba ekonomiko aldakorra: globalizazioa eta aldaketa teknologikoa korapilatzen ari dira ekonomia eta finantza-sistema. Aldakortasun global handiagoaren eta hazkunde ekonomiko txikiaren ondorio diren desafioek larriagotu egiten dute hori.
- Asiaranzko desplazamendua: botere ekonomikoa goraka ari diren herrialdeetarantz desplazatzen ari da, G-7ko ekonomiek garrantzi erlatiboa galtzen duten aldi berean. Goraka ari diren herrialdeetako merkatuek hazkunde handia eta inbertsio-aukera errentagarriak igurikitzen dituzte.

- Enpresa-ekosistema berriak: antolakuntza-arloko paradigma berri bat dago eta “network orchestrators” (sareko bideratzaileak) izeneko enpresak sortzen dira. Lankidetzak ireki banatua edo crowdsourcing bezalako jardueren bitartez konekta daitezkeen kompetentziak eta baliabideak haiek dituzten kompetentziak eta baliabideak baino garrantzitsuagoak izatera iristen dira. Balioa sortzeko sareetako lankidetzak negozio-prozesuen birtualizazioari esker egin daitezke, ekonomia digitalaren goraldiak bultzatuta.
- Natura-baliabideen urritasun gero eta handiagoa eta ekosistemen degradazioa: munduko hazkunde ekonomikoaren ondorioz, handitzen ari da natura-baliabideen eta lehengaien mundu osoko eskaria. Natura-baliabide horiek ustiatzeak kostu handiagoak eta erauzketa-ekosistemen degradazioa ekartzen ditu. Baliabide horien prezioak aldakorragoak dira.
- Ekintza politikoaren irispidearen murrizketa: gizarte-transferentzien, pentsioen kargaren eta zor publikoaren igoserarekin lehiatzen diren presio fiskalek gero eta gehiago jartzen dute zalantzan enplegu eta hezkuntzako ekimenetan inbertsioak egiteko politikaren irispidea.

Txosten horretan bertan, **lanaren eta prestakuntzaren etorkizuna erabat alda lezaketen oztoko** batzuk jasotzen dira:

- Alderantzizko migrazioa: hazkunde ekonomikoaren tasa txikien ondorioz irauli egin daitezke migrazio-fluxuak. Herrialde industrializatu eta immigranteak beren jatorrizko herrialdera itzul litezke (goraka ari diren ekonomietara batik bat) lan eta oparotasun bila.
- Langileen balioen aldaketa: gero eta jende gehiago dago bere balio pertsonalak bizitzen ari dena eta horiek bere lanpostura eraman nahi dituenak, bai goi-mailako kualifikazioetan eta bai behe-mailakoetan. Biztanleriak bere balioekin bat datozen enplegatzaileak aukeratu nahi ditu, eta horrek aldatu egiten du enplegatzaile tradizionalen merkatua. Horiek horrela, balio horiek bere egingo dituen antolakuntza-kultura berri bat sartzera behartuta daude enpresak, eta horrek aldaketa ekartzen du enpresen politika korporatiboan.
- Lan-malgutasun handiagoa: biztanleriak lehiakortasun handiari egin behar dio aurre lan-merkatuan; egoera horretan, enpresek oro har ez dute arazorik beren behar espezifikoak asetzeko. Eskari gorabeheratsuei erantzuteko kontratu malguak gero eta ugariagoak dira; paradigmakoa da ez lanaldi zehatzik ez lanordu kopuru jakinik bermatzen ez duten Erresuma Batuko “zero orduko kontratuen” kasua.
- Kompetentzien ikaskuntza edonon, edonoiz: hezkuntza eta prestakuntza tradizionalaren sektoreak ikaskuntza-aukera ez-tradizional ugariaren erronkei egin behar die aurre. Online prestakuntzaren aukerak, unibertsitate irekiak eta berdin arteko ikaskuntza gora egiten ari dira.
- Adimen artifiziala eta robotak: robotikaren alorrean, algoritmoetan eta adimen artifizialean egiten ari diren aurrerabideek prozesuen eta zerbitzuen automatizazioa ahalbidetzen dute, gaur egun goi-mailako kualifikazioak eta soldata handiak dituzten profesional adituek garatzen dituzten lanetan (esate baterako, kirurgia, diagnostikoa eta aholkularitza juridikoa).
- Desglobalizazioa: munduko krisi ekonomikoaren ondorioz, joera protekzionista eta nazionalistek gora egin dezakete eta horrek indarririk gabe utz dezake lankidetzak eta nazioarteko merkataritza.

- Bikaintasun-zentroen hautabide geografikoa: goraka ari diren herrialdeek hurrengo garapen-mailaraino iristeko behar den azpiegitura garatzen duten aldi berean, hiri sorta berri bat (hala nola Shanghai, Hong Kong edo Singapur, finantza-industriaren kasuan) aurrea hartzen ari da, lehiakortasunari dagokionez, produkzioaren eta berrikuntzaren alorretan. Hiri horiek oso erakargarriak dira atzerriko inbertitzaileentzat eta enpresa berrientzat, gobernuen babesa eta laguntza baitute (esate baterako, diru-laguntzak eta zerga-pizgarriak), lan egiteko adina duten biztanle asko eta produkzio-kostu eta lan-kostu merkeagoak.
- Interneten garapena etetea: Interneten garapen ona blokeatuta gera daiteke arazo korporatiboen edo online espazioko pribatutasun-arazoen ondorioz. Delitu zibernetikoek gora egiten dute eta horrek eragin handia du Interneten egituren, erakundeen eta gizabanakoen gainean.
- Hondamendi edo gatazka klimatikoek baliabideen hornidura mehatxatzen dute: baliabide-premien gehikuntzak eta munduko biztanleriaren hazkundeak areagotu egin ditzakete baliabide estrategikoak erabiltzearekin erlazionatutako gatazkak. Baliabideen eskaintza gune estrategiko erabakigarria izatera irits daiteke.
- EB partzialki zatikatzea: herrialderen bat Europar Batasunetik ateratzeak euroguneko merkatu bakarra Europako beste herrialde batzuekin batera partekatzea ekar lezake.

4.5.2. Europar enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreen bilakabidearen bereizgarri izango diren ezaugarriak

a) *Industria-politiken garapenaren susperraldia*

Europako Batzordeak industria-pizkundea lortzeko helburua ezarri dio bere buruari. Azken urteotan hauteman da, halaber, industria-politiken garapena suspertu egin dela, eta Erresuma Batua, Frantzia, Alemania, Suedia edo Japonia bezalako ekonomia aurreratuenetako askotan asmo handiko estrategien definizioan zehaztu dela susperraldi hori.


Euskal Autonomia Erkidegoak, bestalde, berriki hartu du bere gain Vanguard sarearen lehendakaritza, industria-politiken buru diren Europar Batasuneko 20 eskualdeak integratzen dituen foroarena. Horrek aukera emango dio industria-garapen eta industriaren etorkizuneko joeren berri izateko. Besteak beste, 4.o Industrian hezurmamitutako Laugarren Industria Iraultzaren informazioa izateko. Alemaniako gobernuak sortutako termino horrek *fabrika adimenduna* deskribatzen du, non informazioaren teknologia berriak produkzio-prozesuetan integratzen baitira, fabrikatzeko, diseinatzeko eta merkaturatzeko prozesuen produktibitatea modu ikusgarrian areagotzeko. Izan ere, estrategia nazionalak partekatutako helburuetako bat da, hain zuzen ere, teknologia eta sistema aurreratuak gehitzea modu lehiakorrean fabrikatzeko eta enplegua sortzeko.

"*Ekonomia zirkularrarena*" da modu erabakigarrian gora egiten ari den eta hurrengo urteetan industria barnean hartuko duen beste kontzeptu bat. Baliabideen erabilera eraginkorra erdietsi nahi du, produktu, zerbitzu, hondakin eta abarren "bizi-zikloa ixtea" du xede, eta haiek berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzen du horretarako.

Europako Batzordea ere esfera horretan zentratuta dago, eta produktuak diseinatu, produzitu, kontsumitu eta antolatzeko modua berraztertzea planteatzen du. Gaur egun beste neurri sorta bat prestatzen ari da hura bultzatzeko.

Manufaktura-industriak rol garrantzitsua jokatzen du eta jokatuko du, gainera, energia-kontsumoa, baliabide primarioen kontsumoa eta CO₂-aren isuria gutxitzea bezalako erronkei aurre egiterakoan.

4.23. grafikoa Ekonomia zirkularra



Iturria: Royal Society for the encouragement of Arts, Manufactures and Commerce (2013)

Ondoren, adibide modura, Erresuma Batuan duela gutxi egin den manufaktura-industriari buruzko epe luzerako gogoeta-lan baten funtsezko puntuetako batzuk bildu dira. EAEn garrantzi handia duen manufaktura-sektoreak transformazio drastikoa izango du eta aldatu egingo da sektoreak enplegu-sorreran betetzen duen rola ere. Egia esan, aldatzen ari da dagoeneko.

Frantziaren adibidea ere atal honetan irudikatu nahi izan da, "Frantzia Industrial Berria" programan kokatutako "errekonkista" industrialeko planak eta "Etorkizuneko Industria" proiektua aditzera emateko asmoz.



■ *Erresuma Batuen kasua: manufaktura-sektorearen aro berria*

Erresuma Batuko gobernua epe luzerako begirada estrategikoa eman dio manufaktura-sektoreari eta aldaketaren bektoreak, erronkak eta aukerak identifikatu ditu. Egindako gogoetak oinarri hau hartzen du abiapuntu, hots, manufaktura-sektorea funtsezkoa dela epe luzerako hazkunde ekonomikorako eta Erresuma Batuen "erresilientzia" ekonomikorako. Onartzen du sektorearen ezaugarriak sakonki aldatzen ari direla eta, horren ondorioz, diru-sarrerak eta balioa lortzeko modu berriak sortzen ari direla (produktuekin erlazionatutako zerbitzuak).

Garatutako lanaren emaitza "*The future of manufacturing: A new era of opportunity and challenge for the UK*" txostenean jasota dago. Txosten horretan manufaktura-sektorearen bilakaeraren lau ezaugarri garbi nabarmentzen dira; ondoren azalduko ditugu.

✓ *Bizkorrago erantzuten duen eta bezeroengandik hurbilago dagoen manufaktura-sektorea*

Teknologiak eginkizun nagusia beteko du aldaketaren bektore gisa. IKTak, sentsoreak, material aurreratuak, bioteknologiak eta robotika bezalako elementu teknologikoen transformatu egingo dute kontsumitzaileekin erlazionatutako produktuen diseinua, produkzioa, eskaintza eta erabilera.

Izan ere, elementu horiei esker (3D inprimagailua esate baterako) produktuen pertsonalizazioa kostu txikiagoekin hedatu ahal izango da. Aukera emango dute, halaber, produkzioaren izaera bera transformatzeko (nanoteknologiak, robotika aurreratuak) edo balio-kateak digitalizatzeko (software aurreratu, sentsore eta abarren bitartez), eta hobetu egingo dituzte bezeroekiko harremanaren kudeaketa, kontrol-prozesuak, produktuen egiaztapena, logistika, produktuen trazabilitatea eta segurtasun-sistemak.

✓ *Merkatu-aukera berriak aurrez aurre dituen manufaktura-sektorea*

Garapen-bideko herrialdeen eskaria (Asiak, bereziki, era askotako produktuak behar dituen kontsumitzaile kopuru garrantzitsua dakar) eta balio-katearen etengabeko zatikatzea (*outsourcing* eta *offshoring*), lanaren kostuek eta kalitateak eraginda, garraioa, segurtasuna, merkataritza-liberalizazioak sortutako aukera berriak, datuen eta informazioaren erabilgarritasuna eta produktua garatzeko prozesuan hornitzaileak integratzea aukera berriak sortzen dituzten esparruak dira.

✓ *Goi-mailako kualifikaziodun langileen gero eta mendekotasun handiagoa duen manufaktura-sektorea*

Etorkizun hurbilean erretiroa hartuko duten langileak ordezkatzeko eskari garrantzitsuari aurre egin beharko dio Erresuma Batuko manufaktura-sektoreak. Manufaktura-sektorean behera egingo du lanpostu tradizionaletan dauden langile seniorren kopuruak eta zuzendari, profesional eta teknikarientzako lanpostuak sortzea aurreikusten du, eskaria eskaintza baino handiagoa izango dela aurreikusten du-eta.

Epe luzeagora, jarduera adin handiagoko profilentzat erakargarri egiteko erronkari aurre egin beharko zaio eta biztanle gazteek eta emakumeek manufaktura-sektoreari buruz duten pertzepzioa hobetzeko lan egin beharko da.

Egindako gogoetak ezartzen duenez, arrakasta izango duten enpresak jakintza-oinarri zabalagoa duten langileak bermetzat hartuko dituztenak izango dira, merkataritza-trebetasuna zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikako jakintza teknikoekin konbinatuko duten eta problemak ebazteko trebetasunak izango dituzten liderrak eta kudeatzaileak izango dituztenak.

✓ *Manufaktura-sektore iraunkorragoa*

Ingurumen-iraunkortasunak aldaketa sakonak ekarriko ditu hurrengo hamarkadetan zeharreko produkzio-prozesuetan.

Biztanleriaren hazkunde globalak eta etengabeko urbanizazioak ura, energia eta lurzorua bezalako natura-baliabideen eskariaren gehikuntza ekarriko dute. Horren ondorioz, baliabide horiek lehia handiagoari loturik egongo dira. Kasu gehienetan prezioak gora egingo du eta aldakorrako bihurtuko dira. Produktuak baliabide urri horien kontsumo txikiagoarekin fabrikatzen ikasten duten enpresa eta herrialdeek erresistentzia handiagoa izango dute ondorio kaltegarri horien aurrean.

Manufakturak rol garrantzitsua jokatuko du, halaber, energia-kontsumoa, baliabide primarioen kontsumoa eta isuriak gutxitzea bezalako erronkei aurre egitean.

Bestalde, klima-aldaketak espektro zabaleko ondorioak izango ditu eta neurri handiagan arautu beharko da ingurumena.

Energia eta natura-baliabide gutxiago erabiltzen dituzten produktu iraunkor edo berdeen kontsumitzaileen eskariari dagokionez, gora egiten ari da, baina ez dago batere garbi eskari horrek zer-nolako irispidea eta erritmoa izango duen.

Kontuan izan behar da, halaber, IKTbetan oinarritutako sistemak aktiboen erabilera partekatzean oinarritutako negozio-eredu berriak ahalbidetzen ari direla.

Azpimarra daitekeen azken elementua produktuak berrerabiltzea, berriz fabrikatzea eta birziklatzea bereizgarri duen "ekonomia zirkularrari" buruzkoa da.

■ *Frantziaren kasua: Frantzia Industrial Berria*

Hamar urteko desindustrializazioa bizi ondoren, enplegu-bolumen handia suntsitu eta BPGan pisua galdu eta gero, industria berriz ere elementu nagusia izan da Frantziako eztabaida ekonomikoan eta susperraldian.

Frantziako gobernuak 34 plan abiarazi ditu berriki "errekonkista" industrialari ekiteko. Erdietsi nahi duen helburua da herrialdea nazio industrial handi gisa indartzea eta finkatzea, gauza izan dadin bere burua berriz asmatzeko eta aitzindari izateko trantsizio ekologiko eta energetikoaren eta trantsizio digital eta teknologikoaren bidegurutzan inskribatutako industria-iraultza berrian.

Frantziaren barruan zein kanpoan merkatuaren kuota berriak xurgatzeko eta enplegu berriak sortzeko gauza izango den eskaintza industrial berri eta lehiakorra eta herrialdearen berrabiada industrial lortzeko helburuaren zerbitzura dauden produkzio-indarren batasunetik abiatuta landu dira plan horiek.

Adierazitako 34 industria-planak 10 ardatz hauen inguruan bildu dira:

- ✓ Baliabide berriak: material birziklatuak. Industria kimikoko landare-jatorriko lehengai-bolumenaren eta hondakin ez-arriskutsuen birziklatze-ehunekoaren terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Hiri iraunkorra: ura, smart grid, isolamendu teknikoak, zuraren industria. Fakturazioaren eta lurraldekatutako enpleguen terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Mugikortasun ekologikoa: 2 l/100 ibilgailuak, ibilgailu autonomoak, kargatzeko edo hornitzeko guneak, energia biltegitratzea... CO₂-aren isuria gutxitzeko terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Etorkizuneko garraioa: AHT, hegazkin elektrikoak, itsasontzi ekologikoak, droneak. Propulzio elektriko eskola-hegazkinen salmentaren eta energia-kontsumoaren terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Etorkizuneko medikuntza: osasun digitala, bioteknologia medikoak, gailu medikoak. Telezaintza medikoaren pean dauden paziente kronikoen eta teknologia medikoen arloan merkataritza-balantza berrezartzearen terminoetan definitu dira helburuak.

Datu-ekonomia: big data, superkalkulagailuak, cloud computing. Enpleguen eta teknologiaren terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Objektu adimendunak: robotika, errealitate handitua, kontakturik gabeko zerbitzuak, ehun berritzaileak... Mugikorrarekin ordaintzen duten bezeroen eta billete elkarreragingarrien hedaduraren terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Konfiantza digitala: zibersegurtasuna, subiranotasun teknologikoa, nanoelektronika, softwarea, propulzio elektrikoak, sateliteak. 5G gaitasunaren garapenaren eta

zibersergurtasuneko esportazio-kuotaren urteko hazkundearen terminoetan definitu dira helburuak.

- ✓ Elikadura adimenduna: elikadura funtzionala, etorkizuneko enbalajeak, elikagaien segurtasuna. Hiltegien modernizazioaren eta langileen kontratazioaren terminoetan definitu dira helburuak.
- ✓ Etorkizuneko industria: eskaintza teknologikoa garatzeko, enpresen transformazioan laguntzeko, langileak prestatzeko eta nazioartean lankidetzan jarduteko. Hori guztia enpresei eredu ekonomikoa, antolakuntza-eredua, diseinuari eta ikusmoldeari dagokiona eta merkaturatze-eredua transformatzen eta eredu digital bihurtzen laguntzeko.

b) Enplegua sortzeko ahalmen handienak dituzten sektoreak

"EU Skills Panorama 2014: Analytical Highlights" (European Commission) eta "The Future of Work. Jobs and Skills in 2030" (UK Commission for Employment and Skills, 2014) ikerketak erreferentzia bezala hartuta, ondoren enpleguari eta kualifikazio-profilei dagozkien inplikazioei buruzko itzaropenen laburpen xumea aurkeztuko da. Okupazioa, etorkizuneko hazkunde ekonomikoaren bultzadan izango duten eginkizuna eta gizartearen eskariak estaltzeko garrantzia kontuan izanik, gaur egun duten eta etorkizunean izango duten garrantziaren arabera hautatu diren sektoreak bildu dira laburpenean.

Zehazkiago, enplegua sortzeko ahalmen handia duten sektore hauek enpleguan eta konpetentzietan dituzten inplikazioak analizatu dira:

- Manufaktura aurreratua
- Automobilgintza eta ibilgailu garbiak
- Energia berriztagarriak
- Zerbitzu profesionalak eta enpresentzakoak
- Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
- Txikizkako merkataritza eta logistika
- Sektore sortzailea eta digitala

4.16. taula Enplegu eta konpetentzietako inplikazioak: manufaktura aurreratua

MANUFAKTURA AURRERATUA	
Enplegu inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Fabrikazio-teknika aurreratuak manufaktura-sektorearen adar guztietan aplika daitezke. Hurrengo urteetan fabrikazio aurreratuak hazkunde esanguratsua izango duela espero da, • Europa munduko liderra da fabrikazio-teknika aurreratuen garapenean. EBk % 35etik gorako kuota du merkatu globalean eta % 50etik gorako patente-kuota. EBko sektore pribatuaren inbertsioaren % 40 baino gehiago manufaktura aurreratuari dagokio. • Fabrikazio aurreratuaren hazkunde gehiena Mendebaldeko Europako herrialdeetan gertatuko da seguruenik. • Manufaktura aurreratuari sostengua ematen dioten teknologia berriak "funtsezko teknologia bideratzaileak" (Key Enabling Technologies) izenaz ezagutzen dira, espektro zabaleko aplikazio-ahalmen handia baitute lehiakortasuna eta ingurumenaren iraunkortasuna areagotzen laguntzeko: <ul style="list-style-type: none"> ○ Material aurreratuaren teknologia hainbat arlotan aplika daitezke: energia (esate baterako, katalizatzaileak eta bateriak), ingurumena (esate baterako, ontzi adimendunak), osasuna (esate baterako, ehunen ingeniari-tza), garraioa (esate baterako, material arinak) eta IKTak (esate baterako, zuntz optikoak). ○ Nanoteknologia erabiltzen ari da dagoeneko inplante medikoetan eta energiaren alorrean (energia bihurtzeko, biltegitratzeko eta aurrezteko). ○ Mikro eta nanoelektronikak ibilgailu motordun garbiak garatzen laguntzen du erregaiaren eraginkortasunaren hobekuntzaren bidez. ○ Industria-bioteknologia elikagaien, pentsuen eta detergenteen sektoreetan aplikatzen da. ○ Fotonika (argiaren zientzia eta teknologia) oso ustiatuta ez dagoen teknologia da, baina "fotonika berdearen" aplikazioa (esate baterako, eguzki-energia fotovoltaikoa) hazkunde bizkorreko merkatua da. • Produkzioaren digitalizazioak manufaktura-jardueren itzulera ahalbidetu lezake (deslokalizatutako jarduerak "etxera berriz ere"), eta horrek areagotu egingo luke goi-kualifikazioko enpleguaren eskaria.
Konpetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Manufaktura industriako kualifikazio baxuko langileen artean enplegua gutxitzen jarraitzea litekeena den arren, produkzio sistema automatizatuak kudeatuko dituzten prestakuntza maila altuagoko langileen beharra gero eta handiagoa izango da • Kualifikazio txikiagoko langileak gorpil zoroan harrapatuta geratuko dira. Teknologia berriak sartzearen ondorioz, zuzendariek haien prestakuntzan inbertsioak egiteko interesa gal lezakete. Konpetentziak hobetu ezean, kualifikazio txikiagoko langileak kaleratuak izateko arriskuan egongo dira. • Manufaktura-ingurune erdiautonomo batean, produkzio-eremuko langileek erantzukizun gehiago izango dituzte, eta horretarako mantentze-lanetako, kontroleko eta arazoaren ebazpeneko konpetentziak beharko dituzte, baita, oro har, enpresaren prozesu guztien ezagutza ere.

- Diziplina anitzeko konpetentziak, konpetentzia teknikoak, merkataritzakoak eta kudeaketakoak izango dituzten gizabanakoen eskaria gero eta handiagoa izango dela uste da.
- Manufaktura aurreratuko aholkularitzako konpetentziek maila globaleko eskaria izango dute.
- Manufaktura aurreratuaren hazkundeak azken teknologietan trebetasunak dituzten langileen eskaintza handiagoa beharko du:
 - Teknika digitalak.
 - Informatika.
 - Pentsamolde analitikoak.
 - Makinen ergonomia.
 - Fabrikazio-metodologiaren ulermena (fabrikazio-diseinua, muntatzeko diseinua eta automatizaziorako diseinua barne).
- Zientzietako eta ingeniarietako gradudunen kopurua handitzen ari da, baina langile kualifikatuen urritasunak (skills shortages) bere horretan jarraitzen du fabrikazio aurreratuarekin lotutako espezializazio gero eta handiagoaren aurrean. Azken hamarkadan ingeniarietako gradudunen kopuruan izan den hazkunde aski orokortua ez da uniformeki banatzen ingeniarietaren adarretan zehar, eta horrek arazoak eta desorekak sortzen ditu.
- Oinarrizko ingeniarietako konpetentziak garrantzi handikoak dira manufaktura-sektorean; baina litekeena da etorkizunean beste kualifikazio espezifikoko batzuk ere behar izatea (hala nola ingeniarietako biomedikoa).
- Produkzio digitaleko enpresetan (3D inprimaketa) diseinu eta produkzio-prozesuetarako konpetentziak balioetsiko dira. Produkzioaren digitalizazioak handitu egiten du goi-teknologiako produkzioak garatzeko eta inplementatzeko sistema ziberfisikoetan espezializatutako ingeniarien eskaria. Diseinuko, simulazioko eta datuen analisiko konpetentziak dituzten pertsonak beharko dira.

4.17. taula Enplegu eta kompetentzietako inplikazioak: automobilgintza eta ibilgailu garbiak

AUTOMOBILGINTZA ETA IBILGAILU GARBIAK	
Enplegu inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Garraioan karbono-isuria gutxitzeko EBren asmo handiko helburuak berrikuntza bultzatzen ari dira ibilgailu garbietan. Horren ondorio dira eskari hauek: <ul style="list-style-type: none"> ○ Errekuntza-motorren energia-eraginkortasuna areagotzea. Material arinagoak, potentzia handiagoko motor txikiagoak eta energia berreskuratze sistema eraginkorragoak erabilia lortuko litzateke hori. ○ Ordezko energiek eragindako ibilgailuak: bateria elektrikoak, erregai-bateriak, ibilgailu hibridoak, bioerregaiak, gas natural likidotua (GNL), gas natural konprimatua (GNK) eta abar. • Ibilgailu motordunen fabrikazioko lanpostu kopurua 2025 arte erritmo apalean haziko dela aurreikusten bada ere, ibilgailu garbien eskariak ikerketa eta garapenean (I+D) eta diseinuan goi-kualifikazioa duten lanpostuak sortzen lagunduko du eta fabrikazio-prozesuan goi-mailako lanpostuak sortzen lagunduko du. • Aurreikuspenen arabera, 2025erako enplegu-aukeren erdiek baino gehiagok goi-mailako kualifikazioak eskatuko dituzte (461.000 enplegu). Horrek goi-mailako kualifikazioak eskatzen dituzten 213.000 lanpostu berri barne hartzen ditu, sektorean behe- eta erdi-mailako kualifikazioak eskatzen dituzten enpleguen kopuruan aurreikusitako beherakadarekin kontrastatuz. • Aitzitik, ibilgailu elektrikoaren produkzioaren igoerak ziur aski murriztu egingo du muntaketa-lerroko lanpostu kopurua. Ibilgailu elektrikoak ez dira hain intentsiboak eskulanari dagokionez, osagai gutxiago dituzte-eta. Bestalde, gero eta osagai elektriko gehiago erabiltzeak areagotu egingo ditu segurtasun-arriskuak eta, hortaz, produkzio-prozesua are automatizatuagoa izango da.
Kompetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailu garbien bultzadak lanpostu berriak sortuko ditu I+Dn eta diseinuan, eta goi-mailako lanpostuak fabrikazio-prozesuan. Bereziki, honako hauek eskatuko dira; materialetako zientzialariak; informatika-analistak; kimika; elektrizitatea; industrialak; materialak; eta mekanika-ingeniariak. • Ibilgailu garbien fabrikazioak eskatuko du egungo langileek trebetasun berriak ikastea: motor elektrikoaren muntaketa, informatika, kontrolagailu elektronikoak eta detekzio-tresneria. • Sektorearen etorkizuneko kualifikazio-premiak asetzeko gradudunen eta graduondokoen eskaintza ona dago. Alabaina, ingeniartzaren eta zientziaren, matematikaren eta konputazio-zientzien adituak etengabe izatea ziurtatu behar da.

4.18. taula Enplegu eta kompetentzietako inplikazioak: energia berriztagarriak

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK	
Enpleguko inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbatespenen arabera, energia berriztagarrien industriak 1,2 milioi langileri ematen die enplegua EB-28n, haize-energiaren, eguzki-energiaren eta bioenergiaren industrietan gehienak (kopuru hori 2.000.000a irits liteke 2020an). • Espero da sektoreak merkatu-kuota handiena izatea potentzia osoaren sorkuntzan (% 26) 2020an eta ia produkzio osoaren herenera iritea 2030ean. • Aurreikuspenen arabera, sektorean enpleguak gora egingo du industriaren garrantzia hazi ahala. Gainera, kontuan izan behar da egungo langileen trebetasunen zaharkitzapenaren ondorio den eskaria eta erretiroen ondorioz ordezkatzeko eskaria asetzeko premiak ekarriko duena. • Energia berriztagarrien sektore guztiek komun duten atributu bat da enplegua balio-kate osoan zehar hedatzen dela, hasi tresneriaren fabrikaziotik, proiektuen garapenetik, eraikuntzatik eta instalaziotik, eta eragiketa eta mantentze-lanetara iritsi arte. • Hala eta guztiz ere, enpleguaren hazkundea politika nazionalari loturik dago. Estatu kide gehienetan, sektoreko enplegu-mailek gora egitea espero da (bereziki ingeniartzako proiektuetan eta eraikuntzan), nahiz eta inbertsio-mailen eta inplementatzen diren laguntza-politiken mende egon.
Kompetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Energia berriztagarrien industriarako funtsezko desafioa izango da hezkuntza eta prestakuntza lerrokatzea lanbide eta industria berrietan zein lehendik daudenetan goraka ari diren kualifikazioen premiak asetzeko. Dena den, kasu gehienetan ez da birkualifikazio zabalik beharko. Horren ordez, trebetasunak prestakuntza egituratuaren bitartez hobetzean zentratzen da arreta. Hala nola, arlo batzuetan, lehendik dauden lanbideen alderdi osagarria izan daitezke energia berriztagarriak. Eraikuntzaren sektorean, esaterako, teknologia berriak eskala txikian instalatzeko lanak sarritan argiketari edo iturgin gisa lan egiten dutenek egiten dituzte, horiek ere teknologia berriztagarriak instalatzen baitituzte. • Energia berriztagarrien sektorea urritasuna jasaten ari da dagoeneko eguzki-instalazioen eta instalazio geotermikoen instalatzaileak edo ingeniariak bezalako lanbide teknikoetan ez ezik, lanbide orokorragoetan ere, hala nola saltzaileak eta finantza, ikuskapen, aholkularitza eta arlo juridikoan espezialistak direnen artean. • Goraka ari diren lanbideak tresneria berriztagarrien fabrikazioan (esate baterako, haize-energiaren diseinuko ingeniariak), proiektuen garapenean (esate baterako, haize-baliabideen ebaluazioko espezialistak) eta produkzioan eta eragiketan (esate baterako, haize-mekatronikako teknikariak eta biomasa-produkzioaren kudeatzaileak) zentratzen dira. Halaber, espezialistak sortzen dira instalazio fotovoltaikoetarako, eguzki-instalazio termikoetarako eta eguzki-instalazio kontzentratuetarako eguzki-energiaren esparruan. Haize-energiari dagokionez, aerosorgailuetan espezializatutako instalatzaile txikiak behar dira. • Funtsezko kualifikazio batzuek arautze-esparruari, kudeaketari eta beste lanbide batzuekin lankidetzan jarduteko talde-lanari buruzko jakintzak barne hartzen dituzte, baita bezeroak erakartzeko eta zerbitzuak saltzeko komunikazio eta marketineko trebetasunak ere. Eta berrikuntzarekin erlazionatutako trebetasunak ere bai, hala nola problemak ebazteko, diseinatzeako edo "stakeholders"ekin lan egiteko trebetasunak.

4.19. taula Enplegu eta kompetentzietako inplikazioak: zerbitzu profesionalak eta enpresentzakoak

ZERBITZU PROFESIONALAK ETA ENPRESENTZAKOAK	
Enplegu inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> Lan profesionalen egituran eta antolakuntzan izaten ari diren aldaketek, litekeena da zuzendaritzako langileen kopurua murriztea, lantalde gero eta autonomoagoen eta egitura horizontalagoen emaitza gisa, kudeaketa-eredu hierarkikoagoak atzean utzita. Enpresentzako zerbitzuen eskariak gora egingo duela espero da, hots, igo egingo direla jakintzako zerbitzu intentsiboak edo jabetza intelektualaren kudeaketarako edo kudeaketa estrategikorako lege-aholkularitzarekin erlazioatutako kompetentziak. Finantza-zerbitzuek ere gero eta eskari handiagoa izango dutela aurreikusten da, langile autonomo gehiago izango baitira eta erretiroa hartzeko adina handiagoa izango baita. Gero eta lehia handiagoa izango da nazioarteko goi-kualifikazioko profesionalen artean. Automatizazioak eta informatika-garapenek zaharkituta utz ditzakete behe-kualifikazioko bezeroentzako arreta-profil batzuk. Aldaketa garrantzitsu bat izan liteke zerbitzu profesionalen eta administrazio-zerbitzuen lan-merkatuan (goi-kualifikaziokoak baina errepikakorrak diren prozesuak barne), jarduera horiek gero eta neurri handiagoan ordezkatzen baitituzte teknologia berriek (esate baterako, algoritmo adimendunen bidez). Horrek enplegurako ondorio negatiboak izan litzakeen arren, intentsitatearen eta agertokian aurreikusitako inpaktuaren arabera, oraindik ere tarte nabarmena geratzen da aldaketa horiekin erlazioatutako enplegu berriak agertzeko.
Kompetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> Makina adimendunak lan errutinazkoenak egiteaz arduratzen diren bitartean, ordezkaezinak diren kompetentzien eskaria gero eta handiagoa da, hala nola sormenarena eta pentsamolde kritikoa. Automatizazioa mundu profesionalean sartzeak trebetasun profesionalak garatzeko eredu berriak sortzeko premia ekartzen du. Azken batean, errutinazko lanbide-kompetentzien eskaria murriztu egingo dela aurreikusten bada ere, kompetentzia analitikoak eta diseinuko eta ikerketako kompetentzien eskariak gora egitea espero da. Finantza-azpisektoreetako globalizazioaren ondorioz nazioarteko merkatu berriak sortzen ari dira. Horrek esan nahi du berrikuntza edo kudeaketa kulturala bezalako kompetentzien beharra gero eta handiagoa dela, merkatu berrietara egokituko diren produktuak garatzeko. Jakintzan intentsiboa den ekonomia berritzaile batek lege- eta merkataritza-zerbitzuen eta jabetza intelektualak kudeatzeko zerbitzuen eskaria sortzen du, eta produktu eta zerbitzu berriak kudeatzeko eta babesteko eta kontratuen eta gobernuen mugak finkatzeko kompetentziak dituzten profilak eskatzen ditu. Sektore honetako enplegatuek gero eta ziurgabetasun handiagoa eta informazio-kantitate ikaragarria bereizgarri dituen ingurunea dute aurrez aurre. Hala, konplexutasuna eta arriskua kudeatzeko kompetentziak beharko dira, baita erabakiak hartzeko informazio-kantitate handiak analizatzeko eta itzultzeko ere.

4.20. taula Enplegu eta konpetenzietako inplikazioak: osasuna eta gizarte-zerbitzuak

OSASUNA ETA GIZARTE ZERBITZUAK	
Enplegu inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreikuspenen arabera, osasunaren sektorea hazi egingo da hurrengo urteetan, eta 1,8 milioi lanpostuko hazkunde garbia izango du EB osoan 2013 eta 2025 artean. Gainera, kontuan izan behar da erretiroaren ondorioz edo beste arrazoi batzuegatik sektorea uzten duten enpleguak ordezkatzeko premia, lan-eskaintza gehiago egongo bailirateke osasunean beste edozein sektoretan baino (11,6 milioi). • Gizarte-zerbitzuak polifazetikoak dira, haurrentzako, adineko pertsonentzako eta desgaituentzako zerbitzu-hornidura hartzen baitute. Zenbatespenen arabera, lan-ingar osoaren % 5 eta % 10 artean mugitzen da sektorea. • Pertsonentzako arreta enplegua sortzeko iturri garrantzitsua izan da azken 10-15 urteetan. Hala, pertsonak zaintzen dituzten langileak (osasun- eta gizarte-arretan) hazten ari diren lanbide nagusien artean daude Italian, Belgikan, Holandan, Txekiar Errepublikan eta Hungarian. Hala ere, irudi negatiboa duen sektorea da (enplegu partzialaren eta aldi baterakoaren nagusitasun handia, lan-giro estresagarria, langileen txandakatze handia, ibilbide definiturik eza...). • Aurreikuspenen arabera, etxeko arretako eta telelaguntzako zerbitzuen eskaria handitu egingo da, batez ere adineko pertsonentzako zerbitzuena, egoitzako arretaren kostu handiak familia askoren ahalmen ekonomikoa gainditzen duela kontuan hartuta. • Esparru pribatuko arreta pertsonalizatuko lanpostuek ere gora egingo dutela aurreikusten da, esate baterako arreta medikoko telefonoguneek. • Prebentzio-medikuntzan eta ordezko medikuntzan gora egingo du lanpostuen eskariak. • Bizitza-estilo osasungarrien sustapenak haiekin lotutako lanpostuen gehikuntza dakar, esate baterako osasun eta fitness entrenatzaile pertsonalei eta zerbitzu terapeutikoei dagozkienak. • Osasunaren eta ongizatearen teknologiak ugaritzeak (esate baterako, gailu mediko pertsonalak) handitu egiten du datuen analisiko lanpostu kopurua. • Kudeaketa-ahalmenaren inguruko eskakizunek gora egingo dute, kostuetan eraginkortasuna bilatu nahian. Arrazionalizazioak teknologiarantz neurri handiagoan bideratzea ekarriko du, baina baita lan-maila handiagoa ere sektorean lan egiten duten pertsona gehienentzat. • Espero da egoera fiskalak eredu komunitarioen garapena eta gizarte-ekintzailtza bizkortzea (esate baterako, etxeko arretarako sareak), deszentralizazio-printzipioetan oinarrituta.

- Litekeena da gizarte- eta osasun-arretan beheko, erdiko eta goiko mailetan jakintza teknologikoen eskaria izatea. Belaunaldi gazteenak IKTekin ohituta daude, baina adinez zaharragoak diren langileek kompetentziak eguneratu beharko dituzte aurrerapen teknologikoekin egunean egoteko.
- Graduondoko mailako pertsonen eskari handia izango da, bereziki diziplina arteko kompetentziak dituztenena.
- Berrikuntza teknikoek diagnostikoaren automatizazioa handitzeko aukera emango dute. Tresneria mediko elektronikoak eta digitalak ezinbestekoak izango dira medikuntzako langileentzat. Ikusmolde horiek erabilia, erabiltzaile eta zerbitzuei buruzko datu kopurua ikaragarri handitzen da. Osasuneko eta gizarte-laguntzako langileek datu horiek analizatzeko, kudeatzeko eta itzultzeko behar dituzten jakintzak eskuratu beharko dituzte (esate baterako, tratamendu-metodo hobeak hautatzeko edo pazienteei horren berri emateko).
- Medikuntza konbentzionalaren esparruan genetikan oinarritutako medikuntza pertsonalizatua zabaltzarekin bat, litekeena da prebentzioaren, diagnostikoaren eta tratamenduaren arloetan kompetentzia berrien eskariak gora egitea.
- Aurreikuspenen arabera, kudeaketa-ahalmenaren eskari handiagoa izango da urrutiko osasun-laguntza ahalbidetzeko, askotariko lan-indarraren kudeaketa ere barne dela.
- Zainketa aurreratuko teknologiaren erabilerak (esate baterako, roboten zainketa) gizarte-arretako profesionalen artean gora egitea espero da. Teknologia horrek areagotu egiten du produktibitatea eta handitu egiten du gizarte-arreta "bigunerako" denbora erabilgarria (enpatia-harremanak, zerbitzuaren erabiltzaileekiko interakzioa...).
- Aurreikuspenen arabera, handitu egingo da diziplina arteko kompetentzien eskaria, batez ere programazio medikoari eta diagnostiko automatizatuei buruzko jakintza eta kompetentzien konbinazioarena.
- Pertsona askok osasun- eta gizarte-arretan enplegua aurkitzen dutenez, beren lehen enplegua delako edo beste sektore batzuetatik lekualdatu dituztelako, kompetentzia sozialak/jarrerazkoak ikasteko eskari handia dago (enpatia eta bezeroa zerbitzatzeko etika), trebetasun tekniko berriekin batera.
- Teknologia berriak sartzek, e-osasungintzaren hedapena barne (aparatu mediko berrietan eta diagnostiko-teknika berrietan oinarritutako urrutiko diagnostiko-zerbitzua), esperientzia tekniko profesionala eskatzen du, jakintza klinikoez gainera.

4.21. taula Enplegu eta kompetentzietako inplikazioak: txikizkako merkataritza eta logistika

TXIKIZKAKO MERKATARITZA ETA LOGISTIKA	
Enpleguko inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Beherakada espero da saltzaile "tradizionalen" eskarian, prozesuen automatizazioaren eta online erosketarako goranzko joeraren ondorioz. Ziur asko, txikizkako merkataritzaren sektoreko enpleguek erosketa-esperientzia pertsonalizatua eskaintzen zentratzeko joera izango dute, eta lehentasunari eta kontsumoari buruzko datuak erabiliko dituzte horretarako. • Internet bidezko merkataritzaren igoerak banaketaren eta logistikaren sektoreko langile eta espezialisten eskari gero eta handiagoa sortuko du. • Programatzaileen eta datu-analisten (online salmenten enpresetarako) eta teknologia berrietako espezialisten (biltegiatze- eta garraio-enpresetarako) eskaria handitzea espero da. • Sektoreko enpresa handiek teknologia berriak erosteko eta horietara egokitzeko aukera izango dute. Enpresa txikienek, alabaina, porrot egiteko eta zaharkituta geratzeko arrisku handiagoa izango dute. • Litekeena da kontsumo berdeak ere merkataritzaren sektoreko enpleguetan eragina izatea. Izan ere, produktu ekologikoen eskaria gero eta handiagoa denez, horretarako prestatutako langileen eskaria ekar dezake.
Kompetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Datuen analisiarekin eta teknologia berriekin erlazionatutako kompetentzien eskaria (programazioa, aurkezpen digitalak eta abar) gero eta handiagoa izango da, online erosketak hazten diren eta kanal anitzeko merkataritza zabaltzen den neurrian. • Sektorean enplegatutakoen kompetentzia teknologikoak indartzeko beharra egongo da. Informazio-kantitate handiak analizatzeko eta erabiltzeko trebetasuna gero eta kompetentzia garrantzitsuagoa bihurtzen ari da. • Behe-mailako kualifikazioko lanbide-profilek hobetu egin beharko dituzte teknologia berriekin erlazionatutako kompetentziak, automatizazioaren ondorioz merkatutik kanpo geratu nahi ez badute. • Gero eta premia handiagoa dago bezeroari arreta sofistikatuagoa emateko kompetentzietan inbertitzeko (esate baterako. bezeroaren fidelizazioa). Trebetasunak bilatzen dira bezeroari erosketa-prozesuan laguntzeko, erosketa-esperientzia positiboa izan dezan eta gogora dezan.

4.22. taula Enplegu eta kompetentzietako inplikazioak: sektore sortzailea eta digitala

SEKTORE SORTZAILEA ETA DIGITALA	
Enplegu inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • IKTen garapenak eta erlazionatutako negozio berriek izaera profesionaleko enpleguak eta kudeaketa-zuzendarienak sortzen jarraituko dute. • Gero eta digitalizazio handiagoari eta IKTei esker, langileak edonon lokalizatuta egon daitezke. Teknologia mugikorrek eta etxetik lan egiteko modu berriek gora egingo dute ziur aski. Halaber, IKTen erabilera gero eta handiagoak langileen arteko lehia sortuko du nazioartean, lokalizazio geografikoak gero eta garrantzi txikiagoa izango du-eta. • Aurreikuspenen arabera, langile autonomoen edo proiektu zehatzetarako kontratatutakoen kopurua gero eta handiagoa izango da.
Kompetentzietako inplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Hazi egingo da kompetentzia generikoen (esate baterako, programazioa) eta sektoreko espezifikoaren eskaria. • Datuak kudeatzeko, analizatzeko eta bistartzeko kompetentzien eskari handia espero da, erabilgarri dagoen datu kopurua esponentzialki handitzen ari da-eta. • Kompetentzia digitalak eta sortzaileak integratuagoak egongo dira goi-teknologiako sektoreetan (bizitzaren zientziak, material berriak, adimen artifiziala...). Eskatuko diren kompetentzia nagusiak datu konplexuen diseinuari eta irudikapenari (datu-bistaratzearen bitartez) buruzkoak izango dira. • Zibersegurtasuneko eta auzitegi-informatikako kompetentziak dituzten profilak gero eta beharrezkoagoak izango dira. • Diziplina anitzeko pentsamoldea gero eta gehiago eskatuko da, erakundeek erabiltzailearen esperientzia hobeto ulertzeko eta produktuak eta zerbitzuak merkatura egokitzeko aukera izan dezaten. • Ekintzailtza eta autogestioa bezalako kompetentziak gero eta beharrezkoagoak dira, egiturak kontratu finko tradizionaletatik proiektu zehatzetan oinarritutako enplegu malguagoetarantz bilakatzen diren heinean.

5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

5.1. Laburpena

5.1.1. Jarduera ekonomikoa eta enplegu dinamikak EAEn: krisiaren inpaktua

Industria-sektoreko enpleguaren eta BEGerako ekarpenaren murrizketa krisialdiaren urteetan

- Krisiaren ondorioz, industriaren parte-hartzea murriztu egin da aberastasunari eta enpleguari dagokienez. Fenomeno horrekin batera, euskal enpresek gero eta neurri handiagoan esternalizatu dute jarduera, produkzioa modernizatzeko eta industria "industria berria" bilakatzeko prozesuaren barruan.
- EAEk, Europako herrialdeek oro har eta Espainiak baino profil industrialagoa izanik, espezializazio handia mantentzen du manufaktura-jardueretan: produktu metalikoen fabrikazioa, metalurgia, makinak eta ekipamenduak, kautxua eta plastikoak eta beste ez-metalikoak. Sektore horiek dira, nazioarteko eskariaren eraginpean, enplegu gehien kontzentratzen dituztenak, baina lanpostu suntsiketa nabarmena jasan dute (alabaina, ez da jantzigintzaren, larrugintzaren eta oinetakogintzaren eta zuraren, paperaren eta arte grafikoen adarrek jasandakoa bezain trinkoa izan).
- Krisialdian zehar enplegua alde malguan doitu da batez ere (aldi baterako kontratuak); tarte hori agortu ondoren, batez ere automobilgintza eta siderurgia bezalako sektoreak baina ekipamendu-ondasunak ere eraginpean hartu dituzten berregituraketak egin dira. Industriari dagozkio 2008 eta 2013 artean erregistratutako enplegu-erregulazioko espedienteak jasan dituzten lau langiletik hiru. Enpleguaren aldi baterako etendura izan da, iraungitzearen aurrean, krisiari aurre egiteko erabili den baliabidea (zerbitzu-sektoreak ez bezala).

Ez-merkatuko zerbitzuak dira krisia hobekien jasan dutenak, handitu egin baitute BEGerako ekarpena eta enpleguaren bilakaera positiboa izan baitute

- Zerbitzu-sektorearen barruan portaera dibergentea izan da. Ez-merkatuko zerbitzuek handitu egin dute BEGa eta enplegua. Merkatuko zerbitzuek ere handitu egin dute BEGa, neurri txikiagoan izan bada ere, baina galerak izan dituzte enplegu-bolumenean.
- Merkatuko zerbitzuen barruan, enplegu-suntsiketa handiena izan duten adarrak higiezin jarduerak eta merkataritza, konponketa eta ostalaritza izan dira.

Enplegu-galerek batez ere gazteak, gizonak, aldi baterako kontratudun biztanleria okupatua eta langile kualifikatu gabeak hartu dituzte eraginpean

- Gizonezkoen biztanleria okupatuak emakumezkoenak baino beherakada nabarmen handiagoa izan du.
- Gazteen kolektiboak, kontratuen behin-behinekotasun handiagoarekin loturik, enplegu-galeren bolumen handiagoa jasan du eta zailtasun handiagoei aurre egin behar izan die krisialdian lanpostu bat eskuratzeko.
- Krisi ekonomikoak neurri handiagoan eragin dio aldi baterako enpleguari izaera mugagabeko enpleguari baino. EAEn Espainian baino txikiagoa da behin-behinekotasunaren tasa (baina Europan baino handiagoa).
- Erregistratutako kontratuei dagokionez, nabarmendu beharra dago aldi baterako kontratuek pisu handia izaten ari direla. Kontuan izan behar da, gainera, krisialdian laburtu egin dela haien iraupena.
- Lanaldi partzialeko lanak ere gora egin du, bai kontratu mugagabeen artean eta bai aldi baterakoen artean, bereziki emakumeen kolektiboan.
- 2007 eta 2013 artean handitu egin zen zuzendaritzako langileen, langile teknikoek eta administrazio-langileen lanpostuetan okupatutako biztanleria eta uzurtu egin zen enplegu kualifikatu gabea.

5.1.2. Prestakuntza eta kualifikazioen hobekuntza, enplegu iraunkorrerako oinarri

Biztanleria orokorraren eta okupatuaren kualifikazio-maila ona; krisialdian hobetzen jarraitu du, baina defizit garrantzitsua du bitarteko kualifikazio-mailen ordezkartzari dagokionez

- EAEk goi-mailako prestakuntza-profila du eta oso bilakaera positiboa izan du kualifikazio-mailan, bai biztanlerian oro har, bai biztanleria okupatuan. Alabaina, hirugarren hezkuntzako ikasketen presentzia oso handia bada ere, bitarteko kualifikazioen ordezkartzari nabarmen urriagoa da.
- Estatuan bezala, Batxilergoaren aukera (Unibertsiterunzko bidea) nagusitu egiten zaio, oraindik ere, Lanbide-Heziketari. Dena den, azken urteetan oreka pixkanaka baina etengabe berreskuratzeko joera gero eta handiagoa izan da.
- Lanbide-heziketaren esparruan, erdi-mailako lanbide-arloen artean, honako hauek nabarmentzen dira: osasungintza, fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika, ibilgailuen mantentze lanak eta administrazioa eta kudeaketa.
- Goi-mailako lanbide-heziketan, aldiz, lanbide-arlo hauetako matrikulazioak nabarmentzen dira: Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa eta Administrazioa eta Kudeaketa.
- Unibertsitate-hezkuntzari dagokionez, graduako mailan matrikulazioa egonkor samar mantendu da azken urteotan, eta gora egin du masterretan eta graduondoko ikasketetan

erregistratutakoak (igoera horretan eragina izango zuen, seguruenik, krisi ekonomikoak berak eta unibertsitate-ikasketen erreformak).

- Jakintza-alorraren arabera, Gizarte eta Lege Zientzietako matrikulazioak dira nagusi, baina Osasun Zientziek gorakada handia izan dute. Irakaskuntza teknikoek (Ingeniaritza eta Arkitektura) beherakada nabarmena izan dute matrikulazioan.
- Nabarmendu beharra dago, hala ere, EAEn agertzen diren unibertsitate-titulazio berriak nagusiki Ingeniaritzaren jakintza-arloarekin lotuta daudela (Energia Berriztagarriak, Prozesu eta Produktuetako Berrikuntza, Energia, Sistemen Informatika...).

Krisiak eragin negatiboa izan du LHko egresatuen eta unibertsitateko egresatuen okupazio-tasan, eta enplegu bideratuaren tasak ere murriztu egin ditu

- Lanbide Heziketatik datorren biztanleriaren okupazio-maila uzkurdu egin da krisialdiaren urteetan, baina izan dira okupazio-tasa hobetu duten lanbide-arloak ere, hala nola Produzio Zerbitzua eta Mantentzea, Fabrikazio Mekanikoa eta Ehungintza, Larrugintza eta Jantzigintza.
- Adierazle erabilgarriek aditzera ematen dute krisiak penalizatu egin duela enplegu bideratuaren tasa ere (enplegua eskuratzeko gehiegizko kualifikazioa). LHko egresatuen kasuan egiaztatu da lanpostu teknikoek pisua galdu dutela lan kualifikatu gabeei lotutakoan mesederako.
- Unibertsitate-ikasketei dagokienez, Osasun Zientziak dira enplegu-tasa handienak (globala eta bideratua) erakusten dituztenak eta haiei dagozkie, halaber, plazen matrikula/eskaintza ratorik handienak. Teknikoek (Ingeniaritza eta Arkitektura) ere enplegu-tasa handiak dituzte (baina apalagoak), plazen matrikula/eskaintza ratio txikiagoa dute eta matrikulazioan hautemandako joera negatiboa da, Zientzia Esperimentaletan bezalaxe.

5.1.3. Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren epe ertain eta luzerako perspektibak

Bilakaera demografikoa lan-merkatuaren elementu erabakigarria da, lan egiteko adina duen biztanleriaren murrizketa eta biztanleria aktiboaren zahartzea baitakar berekin

- EAEn lan egiteko adina duen biztanleriaren bolumenaren uzkurdura eta zahartzea oso adierazgarriak izango dira hurrengo urteetan, eta enpresen plantillen belaunaldi-errebokoko premia gero eta handiagoekin egingo dute bat. Bi fenomeno horiek komun dituzte Espainiak eta Europako herrialde askok, eta erronka partekatutak planteatzen dituzte.
- Lan-merkatuko parte-hartzea (emakumeena eta adin-segmentu handieneko langileena batik batik) handitzeak arindu egin lezake beherakada hori,aldi baterako behintzat. Baita inmigrazioaren gorakadak horretan lagundu lezake, nahiz eta gogoan hartzen diren aurreikuspenak ez duten hori aditzera ematen.

- Lan Merkatuaren Zentsuaren datuen arabera, nekazaritzaren sektorea, manufaktura-sektorea eta zerbitzu osagarrien sektorea dira plantillen zahartze-indizerik handienak dituztenak. Administrazio publikoak ere bai.
- Okupazio edo lanbideari dagokionez, egiazta daiteke langile kualifikatu gabeen kategoria dela adinaren ondoriozko presiorik handiena duena (biztanleria seniorren proportziorik handiena). Alderantziko korrelazioa dago adinaren eta kualifikazio-mailaren artean.
- Dena dela, gogoan izan behar da 55 urtetik gorako pertsona okupatu gehienek zuzendaritzako langilearen, langile teknikoaren edo administrazio-langilearen lanpostua betetzen dutela (% 45) edo lan kualifikatua garatzen dutela (% 42). 10 bat urteren buruan gisa horretako langile gehienek erretiroa hartuko dute. Horrek esan nahi du hurrengo urteetan sortuko diren enplegu-aukerak erdi- edo goi-mailetakoak izango direla funtsean.

EAEen enplegu-aukera garrantzitsuak izango dira hurrengo hamarkadan, hurrengo urteetan erretiroa hartu eta beren lanpostua hutsik utziko duten langileek sortuak

- Lanbidek 2014-2024 aldirako zenbatetsi dituen enplegu-aukeren kuantifikazioa urteko 30.000 lanpostu ingurukoa da.
- Bete beharreko 10 lanpostutik 8 baino gehiago adinaren ondorioz (erretiroak) lan-merkatua uzten dutenak ordezkatzeko premiatik datoz. Horrek ez du esan nahi, jakina, hutsik geratuko diren lanpostuak ezaugarri berdin-berdinak dituzten beste batzuekin ordezkatzeko direnik.
- Dinamismo ekonomikoaren ondoriozko enplegu-sorrera (hedatzeko eskaria) eta erretiroa hartu ondoren lan-merkatutik irtetearen ondoriozkoa (ordezkatzeko eskaria) oso modu desberdinean konbinatzen dira lanbide-arloen arabera.
- Lanbideren zenbatespenen arabera enplegu-sorrera garbia (hedatzeko eskariaren ondorioz) izango duten lanbide-arloetan arreta jarriz gero, egiazta daiteke aukera gehienak zerbitzu-sektoreari egokituko zaizkiola, zehazki, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak eta Merkataritza eta Marketina lanbide-arloetan sailkatutako jardueri eta, neurri txikiagoan, Ostalaritza eta Turismoa eta Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloetakoei.
- Bi faktoreak (dinamismo ekonomikoa eta erretiroaren ondorioz ordezkatzeko premiak) batera kontuan hartzen badira, enplegu-aukerei dagokien sailkapenaren buruan dauden lanbide-arloak honako hauek dira: Fabrikazio Mekanikoa, Ostalaritza eta Turismoa, Osasungintza eta Merkataritza eta Marketina.

Hurrengo urteetan sortuko diren enplegu-aukerak goi- eta erdi-mailako kualifikazioei egokituko zaizkie batik bat

- Joera orokorrekin erakusten dute sortutako lanpostu berriek aurrekoek baino konpetentzia-maila handiagoa eskatuko dutela.
- Europak eskatuko duen kualifikazioen egitura, alabaina, euskal egituraren bestelakoa da, EAEk bitarteko mailaren bolumena eta pisua handitu behar baitu kualifikazioen piramidean hautemandako muturretako polarizazio nabarmena zuzentzeko.

- Kompetentzien kalitatea faktore erabakigarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoak bere apustu estrategikoak kontuan hartuta garatu nahi dituen lehia-abantailak atzeman ahal izateko.
- RIS3 dokumentuan definitutako lehentasun estrategiko bertikalek (Fabrikazio aurreratua, Energia eta Biozientziak) eskatuko dute koherentzia ziurtatzea beharrezko profilen eta sortzen ari den trebetasunaren artean, termino kuantitatiboetan zein kualitatiboetan. Zentzu honetan, badirudi eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak sortzeko arriskua dagoela lanbide-arloaren edo jakintza-alorraren arabera.
- Europan garatzen ari diren industria suspertzeko plan eta gogoetek nabarmentzen dutenez, behar-beharrezkoa da kualifikazioak egokitzeaz arduratzea, batez ere defizit-arriskua izan dezaketen segmentu eta sektore jakin batzuetan. Hortaz, ezinbestekoa izango da talentua erakartzeko edo atxikitzeke politikak behar bezala kudeatzea.

5.2. ONDORIOAK

EKONOMIAREN TERTZIARIZAZIOA, BAINA SEKTOREEN ARTEKO BANALERRO GERO ETA LAUSOAGOekin

- Zerbitzuek enplegu osoaren zati bat ordezkatzeko dute, goranzko joera duena baina industria-sektorean hautematen direnak baino dinamika sektorial heterogeneoagoak dituenak.
- Joerari dagokionez, industria-enpleguak behera egiten du balio absolutuan krisialdian zehar (baita krisia baino lehen ere), bai krisiaren beraren eraginez, bai sakonagoko beste faktore batzuen ondorioz (teknologiaren eragina, jarduera jakin batzuen esternalizazioa eta nazioarteko lehia).
- Dena dela, sektoreen arteko banalerroa gero eta lausoagoa dela dirudi. Hirugarren sektoreko jardueren esternalizazio gero eta handiagoak (horietariko asko lehen industria-enpresetan bertan integratuta zeuden eta gero zerbitzu-enpresei azpikontratatu zizkieten) islatzen du sektoreen arteko bereizketak are gehiago lausotzeko joera duela faktore teknologikoaren eraginez.

AZKEN ESKARIAREN HURBILEKO ZERBITZUAK, HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUA SORTZEKO ESPARRU GARRANTZITSUA

- Zerbitzu-sektorean, azken eskariaren hurbilekoak izan ziren (banku-jarduera eta aseguruak, hezkuntza, osasungintza, gizarte-zerbitzuak...) EAEn krisialdiak iraun zuen bitartean portaerarik onena izan zutenak.
- Hurrengo urteen horizontean, gainera, enpleguaren igoera aurreikusten da pertsonentzako zerbitzuen sektorean, onura ateratzen baitiote eskaria sortzen duten joera demografiko eta sozialei eta eskaintzaren egituraketa hobeari. Adierazi beharra dago hemen, zahartze aktiboa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren estrategiak bere helburuen artean duela zahartzearen inguruan jarduera ekonomikoaren garapena sustatzea, enplegua sortzeko iturri gisa.
- Halaber, merkataritza, ostalaritza eta sukaldaritza bezalako zerbitzuen jarduera-maila areagotzea aurreikusten da, sektore horiek uzkuritu egin baitziren krisialdian, ondorioak sortuz enpleguaren gainean.

JAKINTZAREN EKONOMIARI ETA IRAUNKORTASUNARI LOTUTAKO INDUSTRIA, ENPLEGU BERRIAK SORTZEKO AUKERA

- Industriari dagokionez, azpimarratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoak espezializazioa eta lehia-abantailak dituen sektore horren bereizgarri izan dela, oro har, hirugarren sektorekoak baino lan-baldintza hobek eskaintzea (kontratuen iraupena, ordainsariak...). Hala ere, krisialdiaren urteetan enplegu iraunkorra suntsitu da eta aldi baterako enpleguarekin ordezkatu da.

- Industria-sektorearen barruan, makina eta ekipamenduen adarrak, produktu informatiko eta elektronikoaren industriak eta ur-hornidura eta saneamenduarenak portaera ona izan zuten krisialdi ekonomikoaren urteetan.
- Aitzitik, EAEko espezializazio-sektore garrantzizkoenetako batzuk, metalurgia eta produktu metalikoak, siderurgiak, automobilgintzak eta ekipamendu-ondasunak kasu, nazioarteko lehiaren eraginpean zeuden eta esportazioen mendekotasun handia zuten adarrak zirenez, enplegu-uzkurdura garrantzitsuak izan zituzten.
- Etorkizuneko perspektibak kontuan hartuta, jakintzaren ekonomia bateranzko trantsizioak, osasun-zainketa eskariaren igoerak, energia-baliabideen eta lehengaien eskariaren igoerak eta, oro har, sektore edo adar "berdeei" (garraio iraunkorra, etxebizitzak birgaitzea...) lotutako garapen-eragile endogenoak bultzatuko du, batez ere, industriako enpleguaren sorrera.
- Berrerabiltzeko eta birziklatzeko ekonomiaren garapena (ekonomia zirkularra) enplegu berrien sorkuntzan aintzat hartuko den makrojoeretakoa bat izango da.

JAKINTZARI LOTUTAKO ENPLEGU SORTU BERRI GEHIAGO ETA ESKUZKO EDO ERRUTINAZKO ENPLEGU GUTXIAGO, BAINA BEHE ETA ERDI MAILAKO PROFILEKO LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO PREMIA

- Manufaktura-industrian produkzio automatizatuko sistemak kudeatzeko gai diren goi-kualifikazioko gero eta teknikari eta profesional gehiago beharko dira. Enplegu tekniko eta profesionalek, batez ere gizonezkoenak eta eskuzko interbentzioei lotutako prozesuek jakintzari lotuago egongo den lanari utziko diote lekua. Diziplina anitzeko taldeak ugaritu egingo dira.
- Hazkunde ekonomikoaren ondorioz sortuko diren enplegu berriak goi-kualifikazioei loturik egongo badira ere, erretiroaren ondoriozko lanpostu huts asko ordezkatu beharko direnez, behe- eta erdi-mailako profileko langileak ere beharko dira.
- Gizarte- eta osasun-sektoreko, ostalaritzako eta sukaldaritzako, eta turismoko eskariak, esaterako, enpleguaren hazkundera suspertuko du behe- eta erdi-mailako lanbideetan.
- Argudiatzen denez, aldaketa teknologikoaren eta globalizazioaren ondorioz polarizatzen ari da kualifikazioen eskaria, alde batetik goi-kualifikazioen eskariaren igoera sortu baita eta, bestetik, behe-kualifikazioko lanpostuena.
- Kontuan izan behar da, alabaina, erdi- edo behe-mailako konpetentziak eskatzen dituzten enpleguek erraz egon daitezkeela aldaketa teknologikoaren eta antolakuntzakoaren eraginpean.

BALORE BERRIAK, SALEROSKETA AUKERA BERRIAK, ENPRESA EREDU BERRIAK

- Gizarte, politika, ekonomia eta teknologi aldaketek millenials edo Y belaunaldia deritzonaren agerpena azkartu dute, ongizatearen estatuaren ondorio dena, eta belaunaldi honek, izaera, ohitura eta balore oso ezberdinak ditu aurrekoekin alderatuta, etorkizun gertua baldintzatuko dituzten baloreak: baikorrak, barneratzaileak (aniztasunari dagokionez irekiak), ekintzaileak, eta burujabeak dira, etorkizunera begiratzeko joera dute, gizartearentzako lanerako prest daude, eta sormena gehigarritzat duten lanbide interesgarriak bilatzen dituzte, soldata on batekin ordaindutakoak..
- Belaunaldi honen inguruan, eta testuinguru ekonomiko eta teknologiko aldakor baten barnean, negozio eredu eta aukera berriak sortzen ari dira: gizartekintza eta ekologiako edukia duten enpresak, elkarlaguntzarako (elkarlaneko ekonomia: *crowdworking*, *crowdfunding*...), eskaripekoak (bat-batean asetzeko beharrak), erosketa prozesuaren bitartekari edo tirabirarik gabekoak (erosketa prozesua errazten duten tresna eta baliabideekin). Oro har, enpresa eredu dinamikoagoak eta aldakorragoak erazten dira, partehartzeari irekiak, askotan informazio teknologiek lotuak edo haietan oinarrituak. Gaitasun handiko profesionalek sortutako enpresa txikiak izan ohi dira, arrakasta izanez gero eraldatzen direnak, spin-off-ei bidea eman, edo tamaina handiagokoek erosiak izaten direnak.

EMAKUME GEHIAGO HIRUGARREN HEZKUNTZAN SARTZEN, INDUSTRIAN KUDEATU BEHARREKO TALDE MISTOEN PRESENTZIA HANDIAGOA

- Azken hamarkadan hirugarren hezkuntzan sartu diren emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da bai Europar Batasunean eta bai EAEn. Emakume okupatuen kualifikazio-maila ere, termino agregatuetan, gizonena baino handiagoa da.
- Etorkizunari begira, Europako aurreikuspenek adierazten dutenez, emakumeek gizonek baino maila handiagoko kualifikazioak izango dituzte sektorea gorabehera. Gainera, aurrera egiteko aukera handiagoak izango dituzte gizonek baino.
- Ildo horretan, talde mistoen kudeaketak (industrian ere) eta gero eta emakume gehiago enpresa-zuzendaritzako lanpostuetara iristeak aldaketa gehigarriak ekarriko dituzte enpresaren eta kudeaketaren "eredu tradizionalen".

GEHIEGIZKO KUALIFIKAZIOA AZTERTU BEHAR DEN EGITURA ARAZOA DA

- Teknologia, jakintza eta berrikuntza nagusi diren mundu honetan, euskal gazteak bigarren hezkuntzaren ondokoarekin jarraitzeko erabakia hartzen ari dira, eta goi-kualifikazioko biztanleria handitzen ari da. EAEk erdietsi du Europa 2020 estrategian ezarritako helburua hezkuntza-adierazleetan.
- Hala ere, EAE ez da gauza izan goi-kualifikazioko biztanleria xurgatzeko behar adina enplegu sortzeko, ezta krisia hasi aurreko goraldi ekonomikoaren urteetan ere. Izan ere, EAEk enplegu

bideratuaren tasa txikiak ditu EBren aldean, eta gehiegizko kualifikazioaren indizeak gero eta handiagoak dira. Krisialdian zehar lualifikazioen polarizazioa handitu egin da. Alde batetik, gehiegizko prestakuntza maizago gertatzen delako (bete beharreko lanpostuen eskakizunen gainetiko prestakuntza mailak) eta bestalde nolabaiteko "tituluaren overbooking" bat gertatu da, dagoeneko presakuntza maila handia zuten pertsonak prestatzen jarraitu dira, bereziki unibertsitate mailako gazteak, lan merkaturako sarrera atzeratuz aukeren urritasuna dela eta.

- Arazo hau hainbat ikuspegitatik analiza daiteke eta hala egin behar da: zereginen horren beharrik ez badute ere, goi-mailako titulazioa duten pertsonak "nahiago dituzten" enpresaburuaren portaera; produktibitatearen gaineko inpaktuak; beheko prestakuntza mailen egokitzapena; gehiegizko kualifikazioa duten pertsonen motibazioa eta frustrazioa; langileen txandakatzea; gehiegizko kualifikazioa langile-urritasunaren etorkizuneko agertokian; mugikortasuna; eragin handieneko jakintza-arloak; gehiegizko kualifikazioaren gizarte-kostua; eta abar.
- Lanbide heziketaren arloan, ikasleen eskaintza eta enpresen eskariaren arteko oreka positiboagoa dirudi, eta teknologi gaitasun maila ertain-baxuan dagoen doikuntza egokia da. Gainera, ikas ekinezko lanbide heziketak, hezkuntza zentruko ikasketa prozesua eta enpresan bertan egindako lana bateratzen duena, prestakuntzaren eta enpresen beharren arteko doikuntza errazten du. Dena den, lanbide heziketaren barnean, espezialitate jakin batzuetan dagoen ikasle gabeziari aurre egin behar zaio eta euskal LHaren ereduaren gizarteratzean aurrera egin, hezkuntza eta lanbide aukera balioarritzat onartua izan dadin..

ENPRESEN BEHARRAK AURRERATZEAREN ETA ERABILGARRI DAUDEN TRESNAK HOBETZEAREN GARRANTZIA, ESPEZIALITATEEN ESKAINTZAREN ETA ESKARIAREN ARTEKO DESOREKAK PREBENITZEKO

- Behar-beharrezkoa da produkzio-sektorearen beharren doikuntza eta identifikazio goiztiarra bultzatzea, horretarako monitorizazio erregularra, denboran jarraitua eta ikusmolde kuantitatiboa eta kualitatiboa integratuko duena ziurtatuz.
- Lanbideren Behatokiak lan garrantzitsua egiten du ildo horretan, eta interesgarria da sektoreen araberako aurreikuspenak eta sektore bakoitzeko erronka kuantitatibo eta kualitatiboak zehatz-mehatz ezagutzea ahalbidetuko duten bitartekoak finkatzea. Ildo horretan, Lanbidetik sustatutako lantalde sektorialen edo Lanbide Heziketako III. Euskal Planaren esparruan egin ziren lanbide-arloen araberako lan-topaketan antzeko ekimenak oso tresna erabilgarriak izan litezke.
- Espezialisten eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak oztopatu egin dezake sektore jakin batzuen etorkizuneko garapena. Txosten honi esker egiaztatu ahal izan da esparru batzuetan (Fabrikazio Mekanikoa, esate baterako) enplegu-aukerak aurreratzen direla baina, aitzitik, dagokion lanbide-arloko mila soldatako langileko eskainitako prestakuntza plazen ratioa inguruko edo erreferentziako erkidegoetan antzemandakoaren azpitik dagoela, eta gainera ikasle kopuruak behera egin duela azken urteetan.
- Industria-sektoreko Lanbide Profesionalaren aldeko hautua egiten duen pertsona kopurua handitzeko premiari buruzko alerta behin eta berriz adierazi dute hezkuntza arduradunek.

Espero diren erretiro kopuru handien aurrean, beharrezkoa dirudi, halaber, etorkizuneko ikasleen orientabidea nabarmentzea, emakumeek LHko industria-adar jakin batzuk ez hautatzeko inertzia eta apriorismoak aldatzen ahalegintzeko.

- Lanbide Heziketaren esparruan ez ezik, unibertsitate-esparruan ere zaindu egin behar da ikasleen espezializazio-alorren eta lan-merkatuak behar dituen espezializazio-alorren arteko korrespondentzia.
- EAEko unibertsitateko ikasleen bilakaeraren analisiak adierazten duenez, espezialitate teknikoek (Ingeniaritza eta Arkitektura) beherakada adierazgarria izan dute azken urteetan eta geldialdia izan da zientzietan. Hori, lehen batean, ez litzateke bat etorriko EAEko apustu estrategikoekin (RIS3), Zientziak eta Teknologia aukeratuko lituzketen ikasle gehiago eskatuko lituzkete-eta.
- Erresuma Batuko manufaktura-sektorerako egindako gogoeta baliozkoa izan daiteke EAerako etorkizunean eskatutako profilei dagokienez. Ildo horretan esaten denez, arrakasta izango duten enpresak jakintza-oinarri zabalagoa duten langileak bermetzat hartuko dituztenak izango dira, merkataritza-trebetasuna zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikako jakintza teknikoekin konbinatuko duten eta problemak ebazteko trebetasunak izango dituzten liderrak eta kudeatzaileak izango dituztenak.
- Era berean, ikasleen lanbiderako orientazio zerbitzuak indartu behar dira bigarren hezkuntzatik aurrera, erabaki kurrikularrak gazteen asmo eta ahalmenei egokitu daitezen, eta era berean, benetako enplegu aukerei eta ekonomia eta gizarte sistemaren beharrei.
- Baita ere, hezkuntza zentroen eta enpresen elkarlanarekin aurreikuspen sektoriala/okupazionalaren modeloa garatu behar da, etengabeko heziketa doikuntza-lotura bat bezala hartuz eta langileen gaitasunen eta enpresen beharren arteko etengabeko egokitzerako tresna bezala, prestakuntzan dauden doikuntza-gabeziak gutxituz bai alde kuantitatiboan eta bai kualitatiboan. Unibertsitate arloan, gaur egun kreditu gutxirekin balioesten diren oinarritzko kudeaketa-gaitasunak indartzea komeni da.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZAK HOBEKUNTZA ESPARRUAK DITU IRISPIDEARI, DIMENTSIONARI ETA FORMATUARI DAGOKIENEZ

- Kontuan izanik testuinguru produktiboa (eta soziala) gero eta teknologikoagoa eta aldakorragoa dela, biztanleria langilearen etengabeko prestakuntza indartzeko esku hartu beharra dago, bai ingurune aldaketetara egokitzeko tresna izan dadin, bai produktibitatea mantentzeko.
- Etengabeko prestakuntzak presentzia txikiagoa du EAEn Europako erreferentziako herrialdeetan baino; hortaz, badago zer eginik.
- Berriz ere adinaren kudeaketaren kontua ekarrita, arreta berezia eskaini behar zaie langile gero eta zaharragoei aplikatutako prestakuntza-metodoi. Lan-merkatuan sartzen diren gazte taldeek prestakuntza handia dute, baina haien kopurua txikia da enpresan jarraitzen duten eta gero eta espezializatuagoak eta aldakorragoak diren beharrei egokitutako konpetentziak landu behar dituzten langileen stocken aldean.

- EAEko etengabeko prestakuntzak gehiegizko nagusitasuna ematen die zeharkako tresna batzuei (hizkuntzak, komunikazio-trebetasunak...), prestakuntza espezializatuen kalterako.
- Beste alderdi garrantzitsu batean ere sakondu beharra dago: behin-behinekotasunak enpresetako etengabeko prestakuntzaren gainean izan ditzakeen inplikazioak.

BIZTANLERIA AKTIBOAREN UZKURDURAK ERRONKA GARRANTZITSUA PLANTEATUKO DU ENPRESETAN LANGILEAK HAUTATZEKO ETA ATXIKITZEKO ESTRATEGIEI DAGOKIENEZ

- Erretiroaren ondorioz lan-merkatua utziko dutenen kopuru handiak inpaktu gogorra izango du enpresetan.
- Lan-merkatuko sektore jakin batzuetan nolabaiteko langile-urritasuna izango delako etorkizuneko perspektibek ondorioak izango dituzte langileak erakartzeko eta fidelizatzekeo estrategietan.
- Agertoki horretan, immigrazioa ez da tresna erabakigarria izango epe labur eta ertainean lasaigarri demografikoa lortzeko (Eustatek hurrengo hamarkadarako egindako aurreikuspenen arabera), erakargarritasunera bideratutako politika aktiboa garatu ezean.

ADIMENA ERAKARRI ETA ATXIKITZEKO MUGAK EAEN

- Euskal ekoizpen sistemak, profesional gaituak erakartzeko eta mantentzeko ahalmena mugatua dauka, hainbat arrazoiengatik. Haien artean, egiturazkoak, hala nola, enpresen batzbesteko tamaina txikia, edo askotan balio kateetan duten menpekotasuna; eta baita koiunturazkoak ere, krisialdiari lotutakoak, hala nola, enplegu interesgarrien eskaintza urria edota lan baldintzen okerrerako joera.
- EAEko soldata mailak Estatuko batzbestekoaren gainetik egon arren, Europako beste herrialdeetakoak baino baxuagoak dira gaur egun, eta horrek atzerriko profesionalak erakartzeko edota beste herrialde batera lanera irten ziren eta itzultzea pentsatzen ari diren euskal profesionalak erakartzeko ahalmena murrizten du.
- Europar esparruko beste zenbait herrialdek ordea, gai izan dira euskal profesional gazteak erakartzeko enplegu aukera interesgarriak eskainiz, talde honek aurrerago itzultzeko zailtasunak topatzen dituelarik, horretarako pizgarri profesionalak ez dituelako aurkitzen.
- Zentzu horretan, beharrezkoa litzateke gure herrian profesional gaituen erakarpen eta atxikipenerako ahalmena indartzeko estrategia bat zehaztu eta garatzea.

PLANTILLETAKO ADINAREN KUDEAKETA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ATZERATU EZIN DEN KONPONDU GABEKO KONTUA

- Ohartu beharra dago zahartze-prozesua produkzio-sistemaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna baldintzatzen dituen faktorea dela.

- Halaber, enpresek beren langileen zahartzearen aurrean gainditu beharko dituzten oztopoetan sakondu beharra dago.
- Euskal enpresek oraindik ez dute sartu 'adina' aldagaia plantillen kudeaketan, ez dago adin-segmentuen arabera bereizteko estrategiarik prestakuntzan, prebentzioan, laneko osasunean eta abar. Izan ere, salbuespenak salbuespen, adina ez da giza baliabideen kudeaketa bideratu eta artikulatuko duen zeharkako ardatza. Ez da epe luzean jarduteko planik definitu, eta kontuan hartu diren neurriak edo ekintzak aurretiko erretiroen esparrura eta plantillak txanda-kontratuen bitartez gazteagotzera mugatzen dira.
- Manufaktura-sektorean eta zerbitzu osagarrienean presakoa da adina kudeatzeko politikei ekitea, langile seniorren proportzio handia baitute plantilletan (lehen sektorea eta administrazio publikoa alde batera utzita).
- Adinaren kudeaketa sartzeko ezinbestekoa da langileen egoeraren eta portaeraren jakintzan aurrera egitea (enpresa-diagnostikoak), osasunarekin erlazionatutako esparruak, kompetentziak, prestakuntza eta jakintzaren transmisioa, antolakuntza eta lan-baldintzak, karrera profesionala eta erretirorako iragaitza barne hartuta.
- Finlandia, Frantzia, Erresuma Batua eta Irlanda bezalako Europako herrialdeetan, EAEko piramide demografikoa bezain "*korapilatsua*" ez badute ere, hainbat urte daramatzate bizitzaren hainbat esferatan (osasuna, familia, aisia...) eta, jakina, enpresetan adina kudeatzeko gobernu-estrategiak garatzen.
- Eusko Jaurlaritzak bultzatuko duen 2015-2020ko Zahartze Aktiboko Estrategia esparru egokia izan daiteke ikuspegi hau bultzatzeko eta lana antolatzeko eta lan-baldintzak malgutzeko estrategiak garatzeko (lanpostuen egokitzapena, lanaldi partziala, lanaldi egokitua, prestakuntza espezifikoa,...).

Eranskina. BIBLIOGRAFIA



Bibliografía

- BBVA, "Situación País Vasco", 2014.
- Caja Laboral, "Población, empleo y pensiones en la CAPV 2004-2050", 2004.
- CEDEFOP, "Europa retoma, con desequilibrios, la senda de la creación de empleo", 2015.
- CEDEFOP, "Anticipating changing skill needs: A Master Class", 2011.
- CEDEFOP, "Employment Opportunities".
- CEDEFOP, "Employments Trends".
- CEDEFOP, "Europa ante el reto de las competencias", 2012.
- Centre d'analyse stratégique, "Les secteurs créateurs d'emplois à court-moyen terme après la crise", 2010.
- CEPS, "Let's get to Work. The future of Labour in Europe",
- CES, "Dinamismo empresarial, creación de riqueza y empleo: análisis desde la CAPV", 2015.
- Consejo de Relaciones laborales, "Informes sociolaborales anuales", 2008-2014.
- Consejo de Relaciones laborales, "Situación económica y relaciones laborales en la CAPV", 2013-2014.
- Danish Technological Institute, "Future Qualification and Skills Needs in the Construction Sector", 2009.
- Ekonomiaz, "Crisis salarial, paro y desigualdades. ¿Cuáles el futuro del empleo?", 2015
- EUSTAT, "Euskal Industriaren Ikuspegia", 2014.
- EUSTAT, "Ekonomia Jardueren Gidazerrenda eta Enpresa-demografia".
- EUSTAT, "Industria Inkesta".
- EUSTAT, "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)".
- EUSTAT, "Lan-merkatuari buruzko txostena".
- EUSTAT, "Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkesta".
- EUSTAT, "Kontu ekonomikoak", 2008-2013.
- EUSTAT, "Hezkuntzari buruzko udal-estatistika".
- EUSTAT, "Proiektzio Demografikoak".
- EUROFOUND, European Foundation for the improvement of Living and Working Conditions, "Drivers of recent job polarization and upgrading in Europe", 2014.
- European Commission, "EU SKILLS PANORAMA 2014. Analytical highlight. Focus on: Skills challenges in Europe", 2014.
- European Commission, "European Vacancy and Recruitment", 2014.
- European Commission, "Employment and Social Developments in Europe", 2013.
- European Parliament's Committee on Employment and Social Affairs, "Labour Market Shortages in the European Union", 2015
- European Sector Skills Council, "Textile Clothing Leather Footwear", 2014.
- EUROSTAT, European Labour Force
- EUROSTAT, National Accounts.
- EUROSTAT, "Encuesta Europea de Población Activa".
- Eurostatistics, "Data for short-term economic analysis".
- EVE, Ente Vasco de la Energía, "Escenarios sectoriales a largo plazo de Euskadi", 2009.
- FEDEA, Fundación de Estudios de Economía Aplicada, "Observatorio laboral de la crisis, 2012-2014".
- Fundación CYD, "Informe CYD, Capítulo 3: Graduados universitarios y mercado de trabajo", 2013.
- Fundación Bancaja e IVIE (Instituto Valenciano de investigaciones económicas). Capital Humano en España y su distribución provincial, 2013.
- Fundación Tripartita, Datos sobre empresas y participantes en Formación Continua.
- Gobierno de España, Ministerio de educación, cultura y deporte, "Inserción laboral de los egresados universitarios. La perspectiva de la afiliación a la Seguridad Social".

- Gobierno de España, Ministerio de educación, cultura y deporte, "Estadística Universitaria".
- Gobierno de España, Ministerio de Industria, Energía y Turismo, "Agenda para el fortalecimiento del sector industrial en España. Propuestas de actuación", 2014.
- Gobierno de España, Ministerio de Empleo Seguridad Social, "Estadística sobre afiliaciones a la Seguridad Social, 2009-2013".
- Gobierno de España, Ministerio de Empleo Seguridad Social, "Estadística de pensiones".
- Gobierno de España, Ministerio de ciencia e innovación, "Estrategia estatal de innovación".
- Gobierno de España, Ministerio de ciencia e innovación, "Estrategia española de ciencia y tecnología 2013-2020".
- Gobierno de España, Ministerio de Educación, "Mapa de la Oferta de Formación Profesional en España", 2011.
- Gobierno de España, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Inserción laboral de los egresados universitarios. La perspectiva de la afiliación a la Seguridad Social", 2014.
- Gobierno de España, Secretaría de Estado de Educación, Formación Profesional y Universidades, "La Formación Profesional en España", 2015.
- Eusko Jaurlaritza, "2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana".
- Eusko Jaurlaritza, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, "2014-2016ko Industrializazio Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2020 Plana (ZTBP)".
- Eusko Jaurlaritza, "2014-2016 aldirako Enpresak Nazioartekotzeko Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "2014-2016ko Berrikuntza Publikoaren Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "2020rako Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa".
- Eusko Jaurlaritza, "RIS3 Euskadi lehentasunen esparru orokorra".
- Eusko Jaurlaritza, "RIS3 Espezializazio Adimendunerako Euskal Estrategia".
- Eusko Jaurlaritza, "Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa".
- Eusko Jaurlaritza, "Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia".
- Eusko Jaurlaritza, "2020ko Euskadiko Ingurumeneko IV. Esparru Programa".
- Eusko Jaurlaritza, "2013-2018ko Osasun Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "2015-2018ko Unibertsitate Plana".
- Eusko Jaurlaritza, "2014-2016ko Lanbide Heziketako Euskal Plana (+ EAeko Lanbide Heziketaren Legearen aurreproiektua)".
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, "Lan Merkatuaren Zentsua", 2008-2014.
- Eusko Jaurlaritza, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, "Produktzio-zerbitzuek euskal ekonomiari egiten dioten ekarpena", 2014.
- Eusko Jaurlaritza, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, "Euskadiko ekonomia berdeari buruzko txostena. Aldaketa bideratzeko hainbat ideia", 2014.
- Eusko Jaurlaritza, Gizarte eta Ekonomia Gaietarako Lehendakariaren Aholku Batzordea, "Euskal Sektore Estrategikoak eta horien Etorkizuna", 2010.
- Eusko Jaurlaritza, "Lanbide Heziketako III. Euskal Plana".
- ILO, International Labour Organization, "Global employments trends 2013. Recovering from a second jobs dip", 2013.
- IndustriAll European Trade Union, Policy brief 2015-06. Digital Single Market. "Communication on the EU's Digital Single Market",
- INE, "Análisis de la evolución reciente de la población activa en España", 2014.
- INE, "Encuesta de población activa", 2002-2014.
- INE, "Censo de población".
- INE, "Directorio central de empresas".
- INE, "Encuesta industrial".

- INE, "Encuesta anual de estructura salarial".
- INE, "Tasas de actividad proyectadas".
- Institute for Employment Research, "Trends in Employment Creation in Europe".
- Instituto Nacional de la Seguridad Social, Estadística de pensiones, 2006-2015.
- Lanbide, "LHko tituludunak bizitza aktiboan sartzeari buruzko inkesta. 2010eko promozioa".
- Lanbide, "Lan Merkatuaren Behatokia".
- Lanbide, "EAEko graduko unibertsitate-promozioak bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlana", 2010.
- Lanbide, "Lan Merkatuaren Egoera", 2014.
- Lanbide, "Estudio y análisis de la capacidad y ámbitos de relevo generacional en el marco temporal 2014-2024 y su manifestación en las diversas familias profesionales del FP de Euskadi", 2014.
- La Gouverneme République Française, "La Nouvelle France industrielle. Point d'étape sur les 34 plans de la nouvelle France industrielle", 2014.
- The Government Office for Sciences, Foresight, "The future of manufacturing: A new era of opportunity and challenge for the UK", 2013.
- McKinsey&Company, "Manufacturing the future: The next era of global growth and innovation", 2012.
- Ministerio de Empleo y Seguridad Social, "Estadística de contratos", 2014.
- ORKESTRA, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustu Fundazioa, "Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2015eko Txostenaren Koadernoak", 2013- 2015.
- ORKESTRA, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Deustu Fundazioa, "Zahartzea eta lan merkatua Euskadin", 2011.
- UK Commission for Employment and Skills, "The Future of Work: Jobs and skills in 2030", 2014.
- UPV/EHU, "Euskadiko Lan Txostena", 2014
- Universitat Pompeu Fabra, "The Labor Market in Spain: Trends and Analysis",
- REINHILDE VEUGELERS, "Manufacturing Europe's future", 2013.
- SEPE, Servicio Público de Empleo Estatal, Estadística de contratos notificados.